

Mikel Asurmendi

Komatxo artean 1
Elkarrizketa literarioak
2000-2006

Utriusque Vasconiae

© Mikel Asurmendi
© Utriusque Vasconiæ
Lehen argitaraldia: Donostia, 2007ko apirila
ISBN: 84-935019-5-6
Lege-gordailua:
Maketazioa: P.I.A.

UTRIUSQUE VASCONIAE
Ategorrieta Hiribidea, 3-3. 20013 Donostia.
Tel.: 943-270433

Banatzaila: BITARTE - 31195 Berriozar (Nafarroa).
Tel.: 948-302239

Mikel Asurmendi

Komatxo artean 1
Elkarrizketa literarioak
2000-2006



Liburu hau Ur Apalategi Idirinek zuzenduriko
KRITIKA LITERARIOA
sailean argitaratzen da

Literatur maitaleen arteko solasaldiak

Pentsamendu kritikoaren hastapenetan Kantek norbanakoaren tokian bestea jarri beharra zegoela zioskun. Euskaldunok, halaber, hausnarketa adierazteko “nire buruari galdetu diot”... diogu. Bestearekiko elkarrizketa izan zen jakintza maite dutenen lehenengo literatura. Platonek bere *Elkarrizketak* idazteari ekin ziolarik, ez zen soilik idazteko modu berri bat erabiltzen ari, pentsatzeko era berria ere abian jartzen ari zen...

Aurreko Hesiodok edo Homerok mito erlijiosoa edo kronika erabili bazituzten ere, Platonen idazkerak bere aurretik ez zegoen memoria motari nahiz gogamenari atea ireki zizkion. Gurean, halaber, modu honetako idazki literario-filosofiko-pedagogikoak izan dira, adibidez, L. L. Bonaparteren aginduz eta A. Iturriagaren *Jolasak* oinarritzat hartuz J. Duvoisin-en Iturriagaren *Solastaldiak* lapurteraz eginiko bertsoia, edo E. Intxausperen Iturriagaren *Elhestaldiak* zubereraz eginikoa, edota J. A. Uriarteren Iturriagaren *Berbaldijak* bizkaieraz bezalakoak. Eta Mogelek *Peru Abarka*, euskarazko eleberrigintzan aitzindaria dena idatzi zuenean, gertaera solteak bildu eta eskaini baino elkarrizketak papereratu nahi izan zituen euskal literaturan oinarri filosofala ezarriz. Ez

genuke ahaztu behar, bide batez, Mogel bera izan zela Pascalen *Gogamenak* itzuli zituena.

Idazle desberdinekin paraturiko literaturari buruzko elkarrizketak bildu ditu Mikel Asurmendik emari honetan. Eta horrekin, literatura nahiz pentsamendua maite dugunontzat, benetako opariaz gain, literatur kritika ere eskaintzen digulakoan nago. Mota desberdinetako egileak, hitz jarioak eta jardunbide literarioak, egileak eta iritziak aurkitu daitezke elkarrizketa papereratu hauetan, literatur kritikarentzako ekarpena, irakurlearentzako gozagarri.

Fito Rodriguez
(Euskal Idazleen Elkarteko lehendakaria)

Komatxo artean literatur saioa (1997-2006)

Aitzinsolasa

Komatxo artean literatur irratsaioak, gutxi gorabehera, 1997tik 2006ra bitartean iraun zuen. Gutxi gorabehera diot, saioaren gidariak izan gineno zaila zaigulako ekimenak iraun zituen urteak eta hilabeteak zehatz-zehatz aditzera ematea. Eman dezagun, biribilean esanda, hamarkada batez euskal literaturaren paisaiaren kolore eta printzak jaso zituen saioa izan zela.

Saioa hiru erakundeen eskutik antolatu zen: Euskal Idazleen Elkartearen (EIE) asmoz eta beharrez jaiatu zen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza ekonomikoari esker, eta Donostiako Herri Irratiaren –hedatzeko– ardurapean. Komatxo artean saioa, Gipuzkoan entzuteaz gainera, Araban, Bizkaian, nahiz Nafarroa Garaiko zenbait eskualdetan zabaldu zen, baita Bidasoaz harantzago zabaldu ere. Bilbo Irratia eta Iparraldeko Euskal Irratiek izan zuten ardura hori, besteak beste.

Saioaren lehen arduraduna Jon Mikel Arano izan zen; aldiari aldiari Karolina Bikuñako Sainz irrati esataria bidelagun izan zuen Aranok. Lehenbiziko bi urteen

ondoren, bolara batez, Gari Berasaluzeren gidaritzapean ibili zen saioa, baita gidari finkorik gabe ibili ere. Hirugarren urtea bete ostean, 1999ko urria aldean, saioa Mikel Asurmendi-ren gidaritzapean berrabiatu zen.

Sei urte luzeko ekinaldi horretan, besteak beste, baina bereziki, EIEko Andolin Eguzkitza eta Tere Irastortza lehendakariak, Maite Gonzalez Esnal eta Ana Urkiza idazkariak nahiz Herri Irratiko Txema Auzmendi kazetaria izan ziren saioaren sustatzaileak.

Bigarren aldia

Komatxo artean saioa, oro har, eta nik neronek –Mikel Asurmendi– berau gidatu nuen aldian orobat, euskal idazleen liburuen gainean oinarritu zen: saioaren ezaugarri nagusiak liburuak eta idazleak izan ziren, alegia. Saioa atal laburrek osatua izaten zen halaber: literaturaren berri laburrek, literatur testuen irakurketek, hala nola EIEko berriek.

Saioa literaturaren beraren periferian ibili zen zenbait unetan. Literaturari berari buruzko funtsaz haratago egin zuen bide, alegia, literaturaren inguruko kultur industriako hainbat eragilek eta sustatzailek ere leku hartu baitzuten: argitaletxeetako arduradunek, ilustratzaileek, nahiz tokian tokiko kultur eragileek edota kulturgintzako egileek.

Edonola ere, idazleekiko solasek osatu zuten bereziki saioa, eta bildu ditugun solasaldiak bi garai desberdinei dagozkie: Ana Urkizak EIEko idazkaritza hartu zuenean, saioa berritu eta bizitu zen. Berbarako, hilabete behin mahai-ingurua burutu genuen, baita saio bereziren bat edo beste burutu ere. Urteroko Galeuscari buruzkoa, kasu.

Saioaren funtsa

Saioaren funtsa idazleekin gauzatutako solasaldia zela adierazi dut, propio eta espres adierazi ere. Izanez ere, elkarrizketen muntak paperera eramateko adina funtsa zuela oharturik, saio batzuk ARGIA aldizkarian argitaratu ziren.

Bidean bide joaki, ez zara jabetzen motxilan bildu duzunaz. Ez zara ohartzen, bide-lagun izandako editore batek zuk egindako bidea estimatu eta saioak liburuan batzea proposatzen dizun arte. Eta behin zereginean hasi ondoren, bidean utzitako harri-bitxiak harritzen zaituzte. Areago harritu ere, jakin dakizunean, motxilan –ARGIAko motxilan– jasotako harri-bitxiak ez direla argitara ematea merezi zuten solasaldi bakarrak. Eta zure burua kontsolatu aldera –eta esaldi topikoa baliatuz– “ez daude merezi duten guztiak, baina daudenek merezi dute, ondo merezi ere”, diozu zure baitarako. Merezi dute idazleek eta liburuek, merezi dutenez. Baita merezi ere mahai-inguruko solasaldiek.

Nork bere burua gutxiesteaz ez da osasungarria, ezta sobera goraiatzea ere. Alabaina, *Komatxo artean* saioaren gaineko gogoeta honi beste ele sorta xume hau gehitu nahi diot, nire lanaldiaren esperientziaren eta eskerren agergarri.

Euskal literaturaren paisaia

Komatxo artean saioaren gidari izatea euskal literatura ezagutzeko berebiziko lanabesa izan zen niretzat. Saioaren sarreran erabili ohi nituen eleak parafraseatuz: euskal literaturaren paisaian murgiltzeko berealdiko aukera izan zen. Paisaiaren metaforari jarraikiz, literaturaren hainbat mendi, muino, laino, erreka eta bide zidor ezagutzeko parada eman zidan saioak.

Paisaia hori margotzen diguten idazleei nire eskerrik beroenak helarazi nahi dizkiet, baita paisaia osatzea posible egiten duten editore nahiz argitaletxeei ere. Biziki lagundu zenidaten saioa aurrera eramaten. Aitortu beharrean nago-eta: hainbatetan bakarlari sentitu nintzen, oso bakarti sentitu ere. Batzuetan, behar bezalako neurririk –neurri duinagoa edo– eman ez izanaren sentsazioa eramaten bainuen nirekin.

Zenbaitetan, *trena* duintasunez eramateko bitartekariak eskas ote ziren uste izaten nuen: ondoko hedabideetan irratia egiteko moldeez jabetuta, saioa, nik egiten nuen saioa, bigarren mailako saioa begitantzen zitzaidan. Horregatik, nire burua adoretu beharrean edo “bizi dugun –edo bizi gaituen– mundua, *trena* bailitzan irudikatzen nuen. Trenetik jaitsi eta –metafora berriz balioetsiz– literaturaren paisaiaren barrenean bidaiazten nuen ordutxo batez”. Hots, eguneroko mundua gelditurik une batez, “geure” beste munduko bestelako istorioak entzuzera menturatzen nintzen asterik aste.

Komatxo artean-en segida: Testuketan

Jaio dena hiltzen da. Hala ere, izen bereko (*Komatxo artean*) beste saio bat bizi da Bizkaiko Irratian, Donostian sortu zenaren bidaidea eta gogaidea. Jaio dena hiltzen da, baina –Xenpelarrek iragarri bezala– sortu(ko) dira berriak.

Hau, da hamarkada bateko harri bitxiak bildu ditugu *komatxo artean* eta hasi dira dagoeneko harri bitxiak lantzen *Testuketan* saioaren bidez, Komatxo artean saioaren oinordekoa. Etxe berean gauzatu, Donostiako Herri Irratian. Literaturak berezko bozak behar ditu eta boz hauek berezko gailuak.

Irakurgai paratu ditugun elkarrizketak berezko boz eta luma dituzten euskal idazleenak dira. Euskal literaturako paisaian koloreak eta doinuak bizi-biziak paratu dituzten idazleak dituzu, berben amalgama anitzen eta bizien jabe.

Azkenik, nire eskerrik beroenak eman nahi dizkiet EIERi nahiz ARGIA egiten duen Komunikazio Biziagoa, S.A.L. enpresari artikulu bilduma hau bildu eta argitaratzeko emandako aukerarengatik. Eskerrik beroenak halaber, Utriusque Vasconiæ argitaletxeari eta liburua argitaratzearen ardura hartu duen Ur Apalategi Idirin editoreari. Hitz laburretan, liburuan eta aitzinsolas honetan ageri diren eta ageri ez diren literaturaren jarraitzaile eta maitaleei, nire eskerrik sentikorrenak.

Mikel Asurmendi

Euskal Idazleen Elkarteak sustatutako emankizun bat izan zen "Komatxo artean" (oraindik ere hala da Bizkaian) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestua. Donostiako Herri Irratiaren uhinetan entzun ziren elkarrizketa hauek lehenik eta *Argia* astekarian argitaratu ziren egin ahala. Guztiak ala guztiak eskertuak gera bitez hitz hauen bitartez.

2000/urtarrila

XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

“Biluzia ez da erabatekoa izan”

1978tik 1982ra doan aldian kokatu du Xabier Mendiguren Elizegik bere azken narrazioa. Oroitzapen generoan sailkatua den *Nerabearen biluzia* aitorkizun-liburuaren egilea biluztu samar agertu izana iruditu zaigu. Berak ez du uste berea erabateko *strip-tease*-a izan denik.

Honen aurreko Gure Barrioa 1975 liburua haurtzaroko kontuak garbitzeko idatzi zenuen. Oraingoan, nerabe garaia azaldu eta zure barrua hustu bide duzu. Irakurle gaztearengana iristeko idatzitako liburuak al dira?

Ez dakit *Gure Barrioa 1975* eta *Nerabearen biluzia* liburuekin publiko gazteengana iristea lortu dudan. Ez dago bereizterik nor den euskal irakurle eta nor ez. Urtean hamar liburu irakurtzen dituen euskal irakurle fina da, dudarik gabe. Inoiz irakurtzen ez duena ez den bezala. Badago ere, noiz edo behin irakurtzen duena, noizbait liburu bat erosten duena, irakurtzea inoiz ez, baina norbaiti ematen diona. Orduan, muga lanbrotsua dago beti. Irakurle alfer samarrak ditugu, beraz irakurle alfer horri ez zaio atzetik ibili behar zartagailu batez-edo. Ni irakurle nagi horietako batek nire liburua eskura eta irakurri dezan saiatzen naiz. Gustuz irakurtzen badu oso pozik sentituko naiz, irakurle horrek esango duelako

euskal literatura ez dela aspergarria, baizik eta zer ondo pasa dudan liburu hau irakurtzen.

Pasioz idatzitako liburua da Nerabearen biluzia eta gazteentzako idatzia nolanahi ere.

Beno, ez zait iruditzen nire adin modukotsuentzako liburua denik. Hala ere, uste dut nire adin modutsokoak direnak gauza askotan identifikatuak sentituko direla. Neurri handi batean haurtzaroko eta adoleszentziako esperientziak unibertsalak direlako. Edonon eta edonoz berdintsu gertatzen diren gauzak azaldu ditut. Orduan, konturatu naiz, hainbat toki eta adin ezberdinetako irakurleekin hitz eginez, halako afinidade bat dutela nirekin gauza asko sentitzeko eran; konplizitate bat. Pasioa aipatu duzu, eta bai noski, pasioz idatzia dago. Ez dut pasioz idaztea aukeratzen horregatik. Nola ez naizen idazle profesionala, bada, idazten badut zer edo zer gustuz idazten dut. Irakurleak gustua, zaletasuna, pasioa eta indarra atzemango balitu nire idazkietan ni oso gustura nengoke.

“Obsesio bat likidatu zenuela” adierazi zenuen orriotan. Nerabearen biluziarekin besteak beste?

*Gure Barrio*a 1975 ez zen zehazki autobiografia bat izan, baizik eta haurtzaroan kokatutako nobela bat. Nire oroitzapenak aprobetxatu nituen lan horretan, ez gauzak ziren bezala kontatuz, baizik haietan oinarrituta kontakizun bat asmatu izan nuen. Egia esan, ez nuen buruan haurtzaroaren ondorengoaz liburu bat idaztea, adoleszentzia garaiarekin lotuko zen liburua, baina bat-batean atera zen. Burura etorri zitzaizkidan ideiak eta oroitzapenak hasi nintzen idazten, gustura, eta segitu nuen. Ez da berez obsesio zahar bat, interes zahar bat baizik. Hau da, adoleszentzia garaia beti iruditu zait oso interesantea. Lehenik ere baditut idatzi nobela batzuk garai horretan kokatuak, gaztetxoek irakurtzekoak: “Irakasle alu bat”, *Obsexuen kluba* edota *Harrika*. Gazte jendeari bideratuak

eta hauen jendeen kezka agertzen dituztenak. Dena dela, haiek fikziozko kontakizunak dira honen aldean, nik asmatutako istorioak dira, azalean gelditzen direnak bestalde, pentsamenduetan gehiegi sakondu gabe. *Nerabearen biluzia* liburuan, berriz, nire bizitzak ez duenez gorabehera eta pasadizo berezirik, bada, pertsona baten biluzte moduko kontakizuna burutu dut.

Izan ere, biluzten zinez biluzten zara. Zure buruari buruz horren gardenki idazteko beharra al zenuen?

Behin baino gehiago galdetu didate, eta ez dut galdera horri erantzuten jakin izan. Ez dakit zein izan den zergatia. Egia da biluzte bat dagoela, baina biluzte hori zenbaterakoa den... Ez dakit. Izan ere, irakurle batzuek honela aitortu didate: “Zenbat gauza esan duzun zeure buruari buruz, ni ez nintzen ausartuko”. Beste batzuek, ordea: “Bai, esan esango duzu, baina azkenean ez duzu ezer esaten, gauza interesgarrienak iristen direnean isildu egiten zara”. Biluztea ez da erabatekoa izan. Azken finean, nik neuk kontrolatzen dut biluzte hori. *Striptease* batekin konparatuko bagenu, azkenean halako traputxo batekin gelditzen naizela esango nuke.

Nolako ezberdintasunak aurkitu dituzu haurtzaro eta nerabezaroaren artean?

Nerabe garaia beti iruditu zait interesgarria, nahi eta ezin asko daudelako, zalantza asko, pertsona egin egiten da. Haurtzaroan dena emana dauka pertsonak. Bere sinesmenak, usteak, pentsamenduak edota gogoetaldiak etxean eta eskolan transmititzen zaizkio. Garai batetik aurrera –batzuek lehenxeago bestezuek geroxeago– norbera bere bidea egiten hasten da, bere pentsamenduak, bere sinesmenak, bere lagunak eta abar. Adoleszentzia garaiak zalantza eta kontraesan asko ditu, baina aberastasun eta edertasuna handia ere bai. Nik azaldu nahi nuen garai hori, eta azaltzeko modu zinezkoena neure esperientziak

kontatzea iruditu zait. Ezer berezirik eta apartekorik gertatu ez arren, gauzak gertatu zitzaizkidan bezala kontatzea alegia. Biluztasunean eta gordintasun osoan agertzen direnez gero jendearengana iritsi direla uste dut. Hainbat jendek “niri ere antzeko zerbait gertatu zitzaidan” esan dit.

Kontakizunean zure bizitzako une giltzarriak agertzen dira. Esaterako, Las ideologías anarquistas liburua aurkitu zenueneko.

Bai. Garai horretan esponja bat bezala izaten gara. Hau da, inguruaz blaitzeko eta ikasteko prest egoten garela. Liburu hori aipatzean kontatzen dut liburu hura iritsi zela nire eskuetara eta halako eragina izan zuela. Baina beste liburu bat izan balitz, beste eragina jasoko nuen agian. Ni hezkuntza erlijioso eta hertsian hezia izan nintzen. Inguru ideologiko indartsuena frankismoarena zen. Aldi berean baina, nire baitan hura dena gezurra zela sentitua nuen. Gu beste herri bat ginela, eta hortaz denaren kontra egon beharra. Eliza, estatu, eta kapitalaren kontra. Zentzu horretan, une batez, liburu batek zure pentsaera lanbrotsu horri oinarri bat ematen dio; neurri handi batean ere anekdotikoa dena. Nolanahi dela ere, oso prest zaude zerbait jasotzeko, jadanik zuk zeuk aukeratu duzun bide baten barnean betiere. Inportantea da adin horretan jasotzeko prest zaudela.

Liburuan benetako pertsonen izenak agertzen dira antza; baten kasuan salbu. Oso ausarki jokatzeko duzu alde horretatik, ezta?

Errealak dira denak, bai. Baten kasuan ezizena erabili nuen, irakurle batek esan zidalako pertsona horri buruz diodana ez zitzaioala gehiegi gustatuko beharbada. Orduan aldatu nion izena. Bestelakoan, egiazko sentimenduez ari naizenez, bai tokiak nola datak hala zirkuntantziak egiazkoak direnez gero, barne koherentziaz idatzi behar izan dut pertsonak ere egiazkoak ager daitezen.

Bestelako izenak jarri izan banitu, oso artifizialak egingo zitzaizkidan pertsonaiak. Uste dut gainera, jende gehiena ondo samar jartzen dudala.

Nolanahi ere, ausarki jokatu duzu, lotsagabeki ere bai...

Bai. Joko bat dago. Lotsagabe eta lotsagabekeriaren arteko jokoak. Oso kontziente naiz horretaz.

Darabilzun hizkuntza ez da jaso-jasoa. Erraz idatzia ematen du, eta azkar irakurtzen da. Liburu honek zenbat du literaturatik?

Niretzat erabat da literatura. Liburua hau goitik behera literatura dela uste dut, esaldi bakoitza ondo pentsatua, aztertua, pisatua dago, eta graziaz idazten saiatu naiz. Erraz irakurtzen da, baina, ekuazio faltsurik baldin badago literaturan hauxe da: “literatura berdin zaila”. Hau da, ez zait iruditzen niri hala izan behar duenik, nik: “literatura berdin ederra” esango nuke, eta saiatu naiz parrafo bakoitza idazki on bat izan dadin.

Ez da erreskadan idatzia, ohartzen bazara, batetik bada segida kronologiko bat; 14-18 urtera bitartean, bestetik, atalak nahiko tematikoak dira: eskola, erlijioa, ideologia, maitasunari buruzko gogoetak. Orduan, atal bakoitza tematiko izatea eta gai horri buruz aritzea, eta kronologikoki haria ez galtzea, nik dakit kosta zaidan edo ez. Oso natural irakurtzen da, baina naturaltasun horren atzean badago artificio bat, lanketa bat.

Idazteak berebiziko lekua bete izan du zure bizitzan, baina ez da zure espresio modu bakarra izan, agidanez.

Literaturak edo hizkuntza idatziak nire bizitzan hartu duen garrantzia ezaguna da. Hala ere, liburuan kontatzen dudanez, txikitatik marrazteko zaletasun eta erraztasun handi samarra nekarren. Justu idazten hastearekin batera galdu egin nuen marrazketarako joera. Beharbada, beste espresio bat aurkitu nuelako, idaztea alegia, neure barruko gauzak ateratzeko utzi nuen marrazketa.

Liburuaren pasarte batean agertzen denez, garai hartan idazten zenuen poesia bota egiten zenuen. Zure obran ez da poesia gehiegi nabarmendu, egia esan.

Idatzia agertzen dudan bezala bota ere, komunikazio behera hain justu. Ni idazten hasi nintzenean denetarik idazten nuen. Barruko espresio bat bilatu nahian nolabait; barruko adierazte behar bat nuen. Poemak idazten hasi nintzen, eta lehenbiziko poema haiek erdaraz idatzi ere. Izan ere, giro erdal batean hazi nintzen; eskolan erdaraz hezi ere. 18 urterekin kontzientzia hartze bat izan nuen eta erabaki nuen euskara landu eta hobeto behar nuela. Parentesi bat bizi izan nuen: lehen hizkuntza ez zitzaidan balio baztertu nuelako, eta idazteko aukeratu nuen hizkuntza ez zitzaidan balio, gauzak behar bezala esateko gai ez nintzelako. Parentesi horren ondoren, bai kontakizunak bai poesiak idazten hasi nintzen. Betidanik izan dut ahalmen autokritiko handi samarra, eta azkar samar konturatu nintzen ez nintzela poeta ona. Poemak errazkeriak zirela, nire irudimena ez zela izugarri aberatsa, topikoetara jotzeko joera nuela. Beraz, kontakizunerako esku hobea nuela konturatuta, halako batean poeta txarra izatea gustatu ez, eta erabaki nuen poesia ez idaztea. Nolanahi ere, 18 urtetik 22 urtera bitartean poesia aski idatzi nuen. Liburuetan ez, baina aldizkarietan nire poesia mordoska argitaratu zen.

Frankismoaren ondotiko saltsa ideologikoa agertzen duzu, sozialdemokratak tarteko; Euskadiko Ezkerra-ren (EE) aukera...

Beno, nahiz anarkismoarekin liluratua gelditu nintzen aipatu liburu horren bidez, garai hartan EEn zale ere sentitzen nintzen neurri batean. Halako batean nolabaiteko desilusio bat sentitu nuen ordea, desengainua. Agian epelkeriak ez nauela sobera kilikatzen...

Lasalletarren garaia lehenik, eskolapioena gero. Filiak eta fobiak. Egur dezente banatzen duzu...

Ez da hainbeste, beno edozein ikasle hasten denean bere ikasle garaiak gogoratzen “batek hau egin zigun eta beste hark hura” kontatzeko joera du. Kontakizuna gazi-goza da; gauza onak ere badira.

Orduan eraikitako nortasunaren isla zara, garai hartako ondorena alegia, edo asko eboluzionaturiko pertsona?

Beti izaten gara izan ginenaren ondorena eta isla. Baina nortasun konplexu eta nahasi bat dakar horrek, nire kasuan behintzat. Orduko mutiko kristau txintxo naiz batetik; geroxeagoko errebelde akrata ere bai, nolabait; ondorengo filomarxista ere bai, dudarik gabe. Neure oraingo definizio politikoa ez dut uste interesekoa denik, literarioki behintzat. Dena dela, jarrera ideologiko zehatzik ezean ere, errealitateari begiratzen eta neure kasa pentsatzen saiatzen naiz, modu kritikoa, askatasunaren eta justizian oinarrituriko Euskal Herri baten alde.

*“Zuri, Montse, hamazazpi urteko oroigarri” diozu liburua-
ren eskaintzan. Harekikoan apal-apal jarri duzu zure bu-
rua, eta berea berriz, goraiatu. Zer iruditu zaio zure neska-
lagunari?*

Berak ez dit deus esan. Dena merezia du-eta.

2000/maiatza

JUAN KRUZ IGERABIDE

**“Istorioa gogorra da baina ez dago
etsipenik”**

Juan Kruz Igerabide adunarrak *Helena eta arrastiria* argitaratu du aurten, baita gaztelaniazko bertsioa kalera-
tu ere. Haur eta gazte literaturan idazle izarra dugu Ige-
rabide. Iazko Euskadi Sarien irabazleetako bat izan zen
Jonas eta hozkailu beldurtia lanarekin.

*Haur eta gazte literaturan azken hamarkada honetan bere-
ziki nabarmendutako idazlea zaitugu. Konta iezaguzu no-
lakoa izan den zure idazle bilakabidea.*

8-9 urteko haurrei eskola ematen nenbilenean sartu
nintzen mundu honetan. Haurrentzako literatur mate-
rialak biltzen nituen, eta gustatzen hasi zitzaizkidan gau-
za batzuk. Batez ere, tradizio herrikoian oinarritutako li-
teratura izan dut gustuko. Hortik etorri zitzaidan gogoia.
Bilketa horiek guztiak berandu hasi ziren ematen frui-
tuak, ordea. Hasieran, kontu pedagogikoa izan zen; gus-
tatu bai, baina ez nuen uste nik egiten nituen gauzatxoek
ezertarako balio zutenik.

*1984 urtean publikatu zenuen Notre-Dameko oihartzu-
nak. Hamarkada horretan oso liburu gutxi kaleratu zenuen;
azken honetan berriz, idazle oparo bihurtu zara.*

1992tik aurrera kaleraturiko lanak aurreko urteetan egindako lanaren ondorioa ere badira. Hasieran ez nuen inolako pretentsiorik. Urte hartako *Begi-niniaren poemak* lanak izan zuen onarpenak bultzada handia eman zidan. Aldeko hainbat gauza esan zidaten eta nolabaiteko animua hartu nuen. Orduan hasi nintzen nire buruarekin konfiantza hartzen.

Jonas eta hozkailu beldurtia *ipuinarengatik saria jasotzean*, *Groucho Marxen zale agertu zinen*. “*Ohore bat da Groucho Marxen zalea den honentzat andere botereari eskuan muin ematea ahotik purua kendu gabe. Eskerrak eman nahi dizkiot sagu txiki bati, eskerrak arratoiari, eta zaldiari, mandoari, azeriari eta oilo bustiari*” esan zenuen.

Hor norberak egingo zuen bere interpretazioa. Interpretazio asko ditu horrek. Nik, alde batetik, botereak sari horiek eman zizkigunez, bada, distantzia bat markatu nahi izan nuen. Eta ez distantzia ideologikoa, baizik eta idazlearen edo artistaren distantzia markatu nahi izan nuen umorearen bidez. Horregatik aipatu nuen Groucho Marx. Bestalde, garai batean marxista ere izan nintzen. Bi zentzuetan egin nuen. Gero, nire liburuetakoa lagun horiek aipatu eta eskertu nituen nolabait.

“Haur eta gazte literatura duina dugu, kanporatzeko modukoa, baina planifikazioa beharko litzateke ateratzen joateko” esan izan duzu inoiz.

Bai. Izan ere, inprobisazioz jokatzeko delatzen ari nintzen. Kanpora zabaltze horretan, bai behintzat. Idazle baten bere lana kanpora atera nahi badu, bere aldetik mugitu behar du eta, egia esan, batzuk ari dira arrakasta lortzen. Bernardo Atxagak ireki zuen bidea helduentzako literaturan, eta esaterako, Anjel Lertxundi ere ari da zabaltzen bide hori. Baina bakoitza bere aldetik ari gara. Literatura askoz planifikatuagoa ekartzen da kanpotik, guk kanpora ateratzen duguna baino.

Helena eta arrastiria zure azken eleberriarekin euskal literatura zabaltzeko bide berri bat lantzen ari dela dirudi.

Liburu hau “Apirila” deritzan sailean argitaratu da, Argitaletxe Elkartuak deritzanak atera du. Sari honen inguruan badago ekimen antolatuago bat. Estatuko sei argitaletxe ari dira. Elkarlanean eta beste bost argitaletxek orain urte batzuk hasitako ekimen bat da. Liburu txikiekin oso ondo joan dela dirudi, eta gazte alorrera zabaldu nahi dute ekimena. Sari hau jarri dute, eta badakit asmo zabalxeagoak ere badituztela. Hau pauso planifikatua da eta aukera handia ematen du.

Espainiako Estatuko hizkuntza guztietan zabalduko da, ezta?

Handienetan behintzat bai. Aragoerarekin ez dakit zer pasatuko den, asturieraz badakit aurrera doala. Gaztelera, katalanez eta galizieraz ziur aterako direla. Besteak kolokan izaten dira, argitaletxeak ahulagoak direlako. Nolanahi ere, azkenean horiek guztiak ere ateratzea espero dut.

Hedapen modu hau ezberdina da nolabait. Helena eta arrastiriaren azala bera ere ezohikoa da.

Bai. Corte Inglés saria da tarteko, eta badirudi horrelako leku handietan saltzeko formatuan egin dela. Araua horrela da. Eta sartzen baldin bazara bide horretan, onartu behar duzu. Liburuaren azala euskaldunentzako arrotz samarra da beharbada. Baina horretan ere normalizatzen ari gara euskaldunak. Saltoki handietara jotzen duzu eta gero eta liburu sorta handiagoak aurkitzen dituzu. Haur literatura nahiko normalizatua dago. Molde hau normalizat hartzen da. Helduentzako liburuen artean ez da hain normala, ordea.

Liburuaren sarreran bi autore eta obra aipatzen dituzu. Arrastiriari aipu eginez, Txingiz Aitmatov eta Familia lana. Helenari dagokionean, Homero eta Iliada.

Familia nik neronek itzulia dut euskarara. Txingiz Aitmatoven beste lanen bat ere irakurria dut, eta izugarri gustatzen zaizkit. *Jamiliak* nobela honetan eragin handia izan du pertsonaien osakeran. Helena da liburuaren beste sinboloa, Homeroren *Iliadan* azaltzen den emakume ederra. Bi sinbolo horiek dira nobelaren euskarria. Arrastiria nobelaren koadroa da. Nobela koadro batean bezala idatzia dago, sei ataletan banatua, eta bakoitzaren sarreran egoera bat dago.

Kontakizunaren hasieran kale bat agertzen da. Kalearen urrunean mendi bat ikusten da eta hura deskribatzen ari da mutil gazte bat. Kontalari gazte bat hortik hasten da oroitzen lehenengo denbora haiek. Aldi berean, gazte denboran dagoen eguzkia eta honen indarra ageri dira. Eta han Helena dago. Inspirazio eta oroitzapen guztiak Helenak sortzen ditu. Helena baita nobelaren protagonista. Hor hasten da auzo eta familia baten istorioa. Gure inguruko edozein auzo dateke, duela 30 urte izan zitekeena. Nobelan gauza batzuk identifikatzen ahal dira, baina ez du zentzu handirik lekuak identifikatzeak, nobela oso sinbolikoa delako.

Heriotzaren tristura isil eta itsua agertzen da. Etsipenezko eleberria al da Helena eta arrastiria?

Garraztasuna badago, eta garraztasun horretan istorio bat; oso gogorra. Horrek sinbolizatzen du gure barruan dagoen umea, eta inozentzia nerabezaroan sartzean hil egiten dela. Nerabezaroan heriotza bat dago barrutik berriro jaiotzeko, eta hori garratza da, baina ez da etsipena.

Bizitzaren ibilbidearen sinbolo al da eleberria?

Hori esango nuke. Irakurketan ikusten denez, istorio bat dago eta bera gailentzen da. Gertakizun batzuk dira eta azpi-irakurketa bat dago.

Helena eta Daniel dira eleberrian agertzen diren pertsonaien izen bakarrak. Kontalaria bera protagonismo handikoa da, baina izenik gabea.

Haur edo gazte literatura horrela idaztea gustatzen zait. Kontalaria, haurra kasu honetan, istorioarekin identifikatu dadin gustatzen zait, istorioan sar dadin.

Arestian ingurua aipatu duzu. Nobelaren testuingurua Adunan, zure jaioterrian, al dago?

Bai eta ez. Gehiena asmatua dago. Adunan torlojo fabrika bat egon zen. Orain jarri dudana torloju fabrika hori beste modu batekoa da; auzoa beste modu batean marraztu dut. Elementu asko identifikagarriak dira, Ernio mendia ere identifika daiteke. Hori guztiak izenik gabe jarri ditut iruditzen zitzaidalako istorioa edozein lekutan gerta daitekeela.

Eleberria errealistatzat jotzen duzu, baina magikotasun puntu bat ere badu nire irudiko.

Baita ere. Hala ere, gauza magiko dezente kendu nizkion nobela iradokitzaile uzteko. Errealitatetik hurbil dago, gauza ezinezkorik ez dago; ordea, printza batzuk baditu, giro magiko bat badu.

2000/uztaila

RAMON SAIZARBITORIA /

ANJEL LERTXUNDI mintzo

Aberriaren alde (eta kontra) eta Gogoa Zubi
hizpide

**Euskalgintzaren arrastoa seinalatu diguten
bi saio**

Aberriaren alde (eta kontra) eta Gogoa Zubi, Ramon Saizarbitoriak eta Anjel Lertxundik hurrenez hurren idatzitako saioak dira. Alberdaniako Zerberri sailean argitaratuak. Hauek irakurri eta autoreekin izaniko solasaldien osteko gogoetak dira ondokoak.

Kultura

Aberriaren alde egitean, zenbaitetan, gogoa urratzerainoko bidea egin ohi dugu euskaldunok. Eta, bidez bide, bidea suntsitu ere sarritan. Zubiak eraikitzeko garaia omen da oraingoa. Hala izanik ere, eginaren eginez, zubi hitzaren balioa ez ote den menderatzen ari pentsatzeko motiborik dagoelakoan gaude. Bi saio hauen bitartez, Ramon Saizarbitoriak nahiz Anjel Lertxundik euskalgintzaren arrastoa seinalatu digute. Berriz ere, ordea, lekukoa bide bazterrean geratu ote den beldur gara.

Jar gaitezen

1999ko hasieran, herrigintzaren bidean barrena abiatzeko-edo, *Jar gaitezen* izeneko artikulua bat argitaratu zuen Anjel Lertxundik *Egunkarian*. “Izanetik izanera bidean, handia da euskaldunon mina; esanahi eta esanezina”, gaztigatu zigun idazle oriotarrak. Urte eta erdi iragan ostean, euskaltzaleok jarri ote garen galdetu diogu: “Zaila da horri erantzuten, horretara jarrita baikara betiere. Ez, baina, nik nahi nukeen moduan. Izan ere, sarritan, politikaren farfailak itota bizi gara, politika ulertzeko modu oso mugatuan. Uste dugu hori bakarrik dela herrigintza. Herrigintza marko politikoak ematen duen politikagintza soila bada, nik ez dut herrigintza hori nahi”. Abertzaletasunak abertzaletasuna besterik ez ekartzeak ez du Anjelen gogoia betetzen.

Aberri hitza hizpide izanik, aberriaren alde paratzean, euskaldunon patu hitsaren bidean jarri gaitu bere saioko pasarte batean Ramon Saizarbitoriak; Bilboko Gran Víaan barrena jarri ere. Bere alaba eskolako lagunekin txangoz dabil Bilbon. Galdu da nonbait, eta Arte Ederretako museoa non den galdetzen dio udaltzain bati euskaraz. “*No me vaciles*” ihardetsi dio udaltzainak: “Euskal Herriari buruz dugun irudi faltsua aurkitu zuen nire alabak. Gaixoak uste zuen Euskal Herrian orok euskaraz egiten genuela, gezurra izaki”. Alegia, askotan, euskaldunok nahi genukeen errealitatean kokatzen dugu gure burua, eta halako sustoak hartzen ditugu, Ramonen hitzetan. Bere ustez, azken urteotan euskaltzaleok ohar-tzen hasi gara badirela ere espainol sentitzen diren euskal herritarrak, euskaltzaleon portaeraren aurrean harritu eta izutu egiten direnak.

Aberriaren alde –eta kontra– jartzean, idazle donostiarrak errealitateak alderdi asko duela adierazi nahi izan du. Errealitatea bi begien bitartez eta alde anitzetatik ikustea komeni dela gaztigatu digu, eta aurrean nor

duen, halako diskurtsoa darabilela berak: “Euskararen egoera nahiko tragikoa da oraindik. Nik ez nuen euskaraz egiten zuenari eraztuna jartzen zitzaioneko garaia ezagutu, euskara debekatuta zegoen garaia. Nolabaiteko tolerantzia zegoen garaia izan zen gurea, euskararen aldeko militantismo garaia. Egungoa baino hobea akaso, ze, egun, ia nahiago duzu zure hizkuntza debekatzea, hitz bakoitza aldarrikatzen bizi beharra baino”.

Euskaldunon endogamia eta zailtasunak

Ugari dira euskararen erronkak, ugari direnez. Euskararen kalitatea eta euskararen mintza guneak (espresaguneak), kasu. Euskaldunok gure burua euskaraz adierazteko ditugun zailtasunak izan ditugu hizpide jarraian: “Gure hizkuntzaren garapena eta zirkunstantzia guztientzatik zailtasunak ditugu euskaldunok. Espresatzeko gai ez garen neurrian, nor eta nolakoak garen esateko aukerak galtzen ari gara. Faktore exogenoak dauden arren, gure baitara bildu beharra hartzen dut faltan. Hizkuntzari ateratzen ez dizkiogun etekinak galtzen ari gara. Hartan, orduan eta baldarrago espresatu, orduan eta baldarragoak gara euskaldunok”, adierazi digu *Gogoa Zubiren* egileak. *Aberriaren alde (eta kontra)*ren egilea ere, donostiarra den aldetik, euskararen mintza gunez (hiriburuez, kasu) arduratuta dago: “Donostian euskaraz bizitzea zaila da. Paradoxikoa dirudien arren, beste inon baino zailagoa da euskaldun izatea. Gasteizen, Bilbon, Iruñean edo Baionan, badakigu zein lekutan eta zein jarretan hitz egin dezakegun euskaraz”. Oro har, eta bereziki, Euskal Herriko hiriburuetako euskararen egoera ez dela osasuntsua dio Saizarbitoriak: “Euskaraz ziurtasunez egin daitekeen esparruak ‘ghettoak’ dira. Izan ere, euskaldunak, euskararen profesionalak nolabait, endogamia moduko batean bizi dira. Asko konturatu gabe ere, bere ‘ghetto’an bizi dira. Zoritxarrez euskalduntasunean bizi

direla uste dute, baina funtsean, euskal mundu fiktizio batean bizi dira”.

Espazioak espazio, euskararen profesionalen eginbidean, Anjel Lertxundiren liburutik harturiko oharra izan dugu aipagai: “Azken urteotan langintza handia egin da linguistikaren esparruan. Baina, askotan, gramatika gorabeherak medio, behar-beharrezko ditugun jomuga linguistikoak desbideratzen ditugu. Izan ere, linguistika lanabesa den aldetik, ez dugu berarekin obsesionaturik bizi behar. Euskararen erronka ez datza H baten gorabeheran, bere erabilera jorian eta aberatsean baizik. Gure hizkuntzaren joritasunaren aldeko apustu garbiago bat egin beharra daukagu”.

Tradizioari eutsi

Ramon Saizarbitoriak eta Anjel Lertxundik suerteko garaitzat jotzen dute beren “militante garaia”. Artean, dena omen zegoen egiteko. Moderno izatea zuten helburu, euskaldun moderno, alegia. Formak zituzten helburu, eta estilo berriak bereganatzen saiatu ziren. Egungo gazte euskaldunek, berriz, neurri batean, landuago dute bidea. Orduko eta oraingo literatur ekoizpenak, irakas-kuntzarako testuak eta hedabideak, oro har, ezin dira alderatu. Hala ere, hau guztia izanda ere, tradizioari heldu beharko diogu euskaraz osasuntsu biziko bagara. Honela dio Anjelek: “Memoria tradizional historiko literario laburra daukagu. Gure memoria herri literaturan dago, aldizkari literarioetan. Horietatik edan eta eguneroko kaleetako hizkera landu beharra daukagu. Euskara liburuetakoa da, eta belarrietakoa ere bai. Euskarak, hizkuntza guztiek bezalaxe, dinamikotasun batean bizi behar du. Definizioz, hizkuntza bat bada, dinamikoa da. Gu gara hizkuntza dinamizatzaileak, eta euskara egiten dugunak”.

Aberriaren alde versus unibertsalismoa

Idazleok, biok hala biok, bakoitzak bere erara, partikularismoa eta unibertsalismoa jarri dituzte parez pare. Partikularismoaz aritzean abertzaletasunaz dihardu Ramonek, nolabait. Aberriaren alde jartzean, euskaldun izatea eta abertzale izatea parekotzat jotzen ditu bere liburuan. Baita, garaion, euskarak iraun dezan nazionalismoa ezinbestekoa dela esan ere; nahiz Ramon euskal nazionalismoarekiko kritiko ere baden. *Aberriaren kontra* izena baitu bere saioak ere: “Nazionalismo guztiek beren muinean zerbait txarra dute eta kontu handia izan behar da nazionalismoarekin. Euskaldunok nazionalismoaren minbizia dugula esaten dutenean, egia da, hala da, batzuek minbizia dute. Baina inor gutxi dago libre gaitz horretatik. Euskal Herrian, batzuek behintzat, nazionalismo hitza zentzu kultural batean erabiltzen dugu, hala ere. Neurri handienez defentsako nazionalismo bat bezala, nazionalismo baten aurrean gure burua, izaera, kultura eta, batez ere, euskara gure hizkuntza defenditzeko. Zenbaitetan gehiegikeriak egiten dira euskal nazionalismoaren izenean. Badira nazionalista ez diren euskaltzaleak, nazionalista euskaldunak ez direnak”.

Behinola Juan San Martini (Ararteko ohia, eibartarra eta sozialista, euskararen alde hainbeste egindako gizona, Ramonen hitzetan) bera ez zela nazionalista edo abertzalea, euskaltzalea baizik, entzun zion Saizarbitoriak. Eta harritu zen, Juan San Martin izan baitzen lehendabiziko pertsona hori esaten. Ramon ez da iritzi horrekin guztiz ados, ordea: “Juan San Martinekin bat ez nentorrela adierazi nuen publikoki. Euskaldun-fededun aferan bezala, nire euskaltzale militante garaian, ni ez nintzela fededuna eta fededun ez nintzelako euskaldun izateko eskubidea ez nuela galtzerik adierazi nuen. Nazionalistak ez direnen kasuan gauza bera gerta daiteke: ez zaie euskaldun eta euskaltzale izateko gogoia deuseztu behar.

Hori esanda ere, dudarik gabe, euskarak iraun du nazionalismoari esker. Euskal nazionalismoa izan ez balitz, honezkero, euskara Hegoaldean desagertzeaz legoke; Iparraldean dagoen bezala. Euskarak oraindik ere berme ideologiko bat behar du, eta nazionalistak ez direnek lehenbailehen eta modu sineskor batean erakutsi behar dute berme hori. Ni sinesteko prest nago, baina nazionalistak ez diren alderdietako gehienek ez dute borondate politikorik erakusten euskararen alde. Sinestarazten baldin badigute euskararen alde direna, egiaz erakusten duten momentuan, esan ahal izango dugu euskara ez dela nazionalismoarekin ezkondu behar. Ni pozik nengoke une hori iritsiko balitz”.

“Partikularismoa versus unibertsalismoa” auziaren harian, globalizazioaren arazoaz gogoetatu du Lertxundik. Herri txikia izateak ez gaitu globalizazioaren aurrean kokildu behar: “Globalizazioaren aurrean, gu nola izan, nola euskaldun izan eta zer eskaintzen dugun dago jokoan. Desberdin izateko beste modu bat erakutsi behar dugu. Denok berdinak, herri eta kultura bereko hiritarrak, musika eta liburu berak eta hamburgesa berak kontsumitu ordez, bada, guk munduan izateko modu bat dugula erakutsi behar dugu. Eta hori euskalduntasuna da”. Saizarbitoriak ere, bere alde, honela trenkatzen du euskalduna eta moderno izatearen afera: “Kultur txikikoa izateak irakurtzeko eta idazteko ardura eman dit. Esparru honetan jaio ez banintz, euskalduna izan ez banintz, ziur asko ez nuen idazteko zaletasunik edukiko. Euskarak eman dit aukera eta bidea kultura zabalago batera iresteko”. Horiek horrela, Ramonek honela zehazten du esana: “Alabaina, ez genuke hizkuntza handi bat izan nahian indarra galdu behar, handiak imitatuz, baizik eta geure eredu propioa eraiki, izateko modu propioa asmatu beharko genuke. Eta hori oso zaila da. Ez gara gai gure modeloa eraikitzeko, eta horretan jardun beharko

genuke. Gure erakundeek kanpoko instituzioek egiten dutena egiteko joera dute, tamalez”.

Ideologia auzitan

Instituzioen politika eta ideologia izan ditugu hizpide amaitzeko. Bi saiokideek ez diote ideologiari muzin egiten. Hona Anjelen zehazpena ordea:”Hizkuntza batekin egin daitekeen hanka sartzerik handiena ideologia partikularizatzea eta monopolizatzea da. Ideologia monopolizatzen denean besteek ezinbestean utzi egin dutelako, gaitzerdi. Ordea, monopolizazio hori besteak baztertzetik datorrenean, nor den euskaldunago planteatzen denean eta ideologia gainetik jartzen denean, hots, hizkuntzaren garapenaren gainetik ideologia jartzen bada, hor sortzen dira gatazkak eta arazoak. ‘Gehiengoa nor izango den, halakoa izan behar dugu’ ustea dugu gurean. Horrek kalte egiten dio euskarari”.

Biok hala biok, herrigintzarako estrategiak hartzen dituzte faltan. Nor bere esparruan ari gara euskaltzaleok, epe laburreko estrategiak landuz. Euskalgintzak eta herrigintzak epe luzerako planteamenduak behar ditu. Orainokoa ez dira epe luzerako planteamenduak egin, eta hartaz, zer nolako bidea behar dugun ez da seinatu oraindik.

IRITZIA

JOXERRA GARZIA

“Beude bi liburuok hilik, baina ekar ditzagun euren proposamenak bizira”

Zail da esaten Alberdania etxeko Zerberri saileko lanildoetan –lekukotza, dibulgazioa, elkarrizketa/erreportaia,

gogoeta, gaurkotasuna— zein dagokien Saizarbitoria eta Lertxundiren liburuei. Funtsa duten obra guztiak bezala, generoen eta sailkapenen konbentzioetatik haratago daude biak hala biak ere. Obraren funtsa, berriz, esan gabe doanez, ez dago orrialde kopuruaren baitan, obrakegiten duen ekarpenean baizik.

Elkarren oso bestelakoak dira Lertxundiren eta Saizarbitoriaren obrak, eta, hala ere, elkarren osagarri. Azalean dira, batez ere, elkarren bestelako. Sortzeko erak berak eragindako aldea izan daiteke hori: UEUko hitzaldi bat dago Saizarbitoriarenaren jatorrian; lanketa pausatua go bat, aldiz, Lertxundirenean. Lertxundirenak euskararen inguruko eztabaida ordenatzeko plana, gidoia, ezartzen digu, eta euskara zehar-lerro erabatekoa da gure gizartean, liburuan ongi frogatzen denez. Saizarbitoria-rena, berriz, eskarmentu pertsonalari lotuago dago, eta intuizio aberasgarri (gauzak ikusteko modua aldarazten diguten intuizioak dira, nire hiztegian, aberasgarri). Zein bere aldetik, ordea, azken aspaldion euskararen inguruan egin den ekarpenik aipagarriena osatzen dute bi liburu-txook. Are gehiago biak batera hartuz gero.

Zerberri sailaren asmoa liburuak saltzea dela ezin ukatuko dugu, bestalde. Alde horretatik, beraz, nahiko pozik agertu behar genuke bi liburuokin. Sailak badu, ordea, beste —eta bestelako— helbururik ere. Euskarazko liburugintza gehiena bezala, herrigintzaren atal ere bada, batetik. Bestetik, berriz, gogoeta eta eztabaida suspertzea du, hasiera-hasieratik, xede (ez lan-ildo guztietan, baina bai hauetan), eta, alde horretatik, emaitzak ez dira pozez txoratzeko modukoak izan.

Egia da liburuak dezente laudatu direla, bere oihartzuntzua izan dutela hedabideetan. Prest nago liburu moduan merezi zuten adinako oihartzuna izan dutela onartzeko ere. Hedabideek, ordea, den-dena berdintzen dute, dena euforikoki enfatizatu behar ero horren bidez.

Hamabost egunetan dibertimentu gisa idatzitako liburu inora ez doana eta mendeko proposamenik tajuzkoena dakarrena, “liburu” dira biak hedabideetan. Deskuidatuz gero (alegia, aurkezpenean irudi egokia eskainiz gero), jolas hutsa baino ez denari toki zabalagoa emango diote, gainera hedabideek. Hedabideek? Ez, noski. Kazetariak.

Eta horretan ez dakit asmatu dugun. Ze formato behar du gizarte honek usteltzen ari zaion arazori behingoz adarretatik heltzeko proposamena aintzat hartzeko? Erret dekretua? Lehendakariaren gutuna? Alguazilaren bandoa?

Zakurraren bibolina! Hor daude Lertxundiren eta Saizarbitoriaren liburuak, gure hizkuntza zaharraren arazo zahar eta berriei bestela begiratzeko proposamenez beteak. Ez naiz liburuak saltzen ari. Aspaldi aurkeztu ziren, eta liburuek gaur egun duten bizi-esperantza gero eta laburragoa kontuan izanik (hamabost egun? hilabete?) ezin esan bi liburuok gazterik hil zirenik. Beude hildako liburuen bake-atsedenean.

Liburuok eragin zuen kezka eragin zuten arrazoiek, ordea, lehenean diraute. Beude liburuak hilik, baina ekar ditzagun Lertxundiren eta Saizarbitoriaren proposamenak bizira. Ez dauden-daudenean onartu eta aplikatzeko, hil edo biziko zaigun eztabaidari behingoz ekiteko baizik.

2000/urria

ANA URKIZA

“Zoriona helduezina den bitartean gara zoriontsuak”

Ana Urkizaren *Desira izoztuak* ipuina izan dugu hizpide. Idazle gisa, berriki emana bada ere ezagutzera, literaturgintzan aritua eta komunikazio alorrean aditua da ondarrutar hau. Komunikatzeko iaioa izanik, desirak ondo hausnartu dituela erakutsi digu.

Enpresari egokitutako komunikazio alorrean ari zara. Komunikazioan aditua izanagatik ez duzu bedabideen munduan zure profesioa gauzatu.

Informazio zientziak ikasi ahala idatzizko kazetaritza landu nuen. Irratian eta telebistan, berriz, EITBn aritzeko aukera izan nuen beka baten bitartez. Bai irratia bai telebista zuzeneko medioak diren aldetik bizkorre-
giak eta azalekoak iruditu zitzaizkidan. Niri, adierazi beharrekoa, gehiago lantzea gustatzen zait.

Karrera ikasten ari ginela, lagun talde batek geure enpresa propioa sortu genuen. Bertan, eskaintzen genuen zerbitzua bezeroari helarazteaz gain, informazioa jaso eta eratu, eta komunikatzera nola heldu beharko genukeen aztertu genuen. Enpresa proiektuaren azalpena une bakoitzean eta pertsona bakoitzari nola egokitu behar zaion jakitea eta hala izan zedin lortzea, oso zaila zela kontu-

ratu ginen. Esperientzia hark zeharo liluratu ninduen eta enpresari zuzendutako komunikazioan aritu nahi nuela erabaki nuen. Frantziara joan nintzen arlo horretan espezializatzen eta horixe bihurtu dut nire profesioa. Gaur egun, Danobat taldean dihardut lanean, komunikazio arduradun bezala.

Desira izoztuak *bildumako* Sikieran orain badaki *ipuina aipu iradokigarri batekin hasten da*: “Kazetaritzatik bizitzerik ez dago”.

Ez da nik sentitu edo bizi izan dudana, bai ordea, inguruan nire ikaslagunek bizitako zerbait. Nire ikaskideak, lagunak, denok hasten garen bezala hasi ziren, ahal den lekuan proba eginez, eta esaldi hori guztiona zen, ikusten zelako oso zaila zela, hasieran behintzat, kazetaritzatik bizitzea. Enpresaren inguruan murgiltzen hasi nintzenez, oraindik esplotatzeke zegoen alor bat zela ikusi nuen, eta beraz, irtenbide gehiago eskaintzen zituela.

Euskal Emakume Idazleen Lantaldeko (EEIL) partaide zara. Nola ikusten duzu emakumeen zeregina literaturan?

Emakumezkoek idatzitako literatura argitara eta ezagutzera emateko zailtasunak bizi genituela iruditzen zitzaigulako eta, batez ere, elkar ezagutu eta babesteko sortu genuen talde hau. Bigarren mailako argitalpenetan mugitzen ginen sentsazioa genuen eta beraz, aukera bat eman nahi genion geure buruari eta literatura irakurleri, euskal idazle emakumeak betiko lau edo bostez gain, gehiago ere badirela esateko eta ezagutzera emateko. Ildo honetan, gure lehen emaitza, “Gutiziak” ipuin bilduma da, hil honetan argitaratuko dena. Proiektu honetan 29 emakumek parte hartu dugu.

Beharren bat izan al duzu desiraz eta gutiziaz idazteko?

Ez da beharra izan. Ez bederen, kontzienteki sentitu dudana behar bati emandako erantzuna. Baina atzerantz

begiraten dudanean, oinarrian badagoela ikusten dut, betidanik kolpatu izan nauen ideia bat.

Abiapunturen bat izan al zenuen?

Atzerantz begiratze horretan, Aladinoren ipuina datorkit burura; gogoratzen dut, ipuin hartan, jeinuak hiru desio eskaintzen zizkiola Aladinori, eta orduantxe gelditu nintzela estrainekoz zeharo liluratuta, ni neu, pertsonaiaren lekuan jarrita, ez nintzelako gai hiru desio formulatzeko. Uste dut, harrezkero, liburuan agertzen diren desirak biltzen hasi nintzela.

Pertsonak ditugun desira guztiak bildu al dituzu?

Liburua atondu aurretik sailkapen bat egin nuen: zenbat desira ote dauden eta abar. Noski, hamalau desira baino gehiago daude mundu honetan, eta pertsona bakoitzak hamalau baino gehiago bizi, ezagutu edo sufritzen ditu, baina aukeratu beharra zegoen, eta oraingoan bai, kontzienteki egin nuen desiren gaineko hausnarketa eta aukeraketa: desira bakoitza zer den eta desira bakoitzaren aurrean nola jokatzeko dugun, zer-nolako portaerak izaten ditugun hausnartu nuen. Aztertu eta ulertu asmo nituen jokamolde horiek azaltzeko asmatu nituen ipuinak.

Denborak ezabatutako memorian *lehen ipuina ezberdina da besteekiko. Zergatik?*

Lehenengo ipuin hau errealitatetik hartutako istorio bat da; hamalau ipuinetatik erreala den bakarra. Aran ize-neko protagonista egiazkoa da. Honek egun batez kontatu zidan bizitza nobelatu egin dut, baina ardatza benetakoa da. Berak uste zuen, bere bizitza oso ederra eta arranditsua izan zela. Nik oster, berak kontaturiko istorioari beste irakurketa bat egin nion, eta horixe da azaltzen dudana. Hau da, lortu ezin izan zuen desira izan zen niri, kontatu zidan guztitik, interesatu zitzaidana eta hortik atera nuen ipuina.

Ipuina bi partetan emana duzu. Arrazoiren bat?

Bi partetan idatzia bada ere, ez dut erlatibizatze asmorik izan. Istorioak bi momentu eta bi leku izan zituen eta halaxe kontatu dut. Dena dela, irakurleari lehenengo zatia aberasgarriagoa iruditu dakioke, bigarren zatiak ez daukan irakurketa bikoitzaren aukera eskaintzen duelako.

Lehenetik hasita, barne mintzo bat nabari da ipuinen pertsonaietan.

Hitz egiten dugunean beti dugu gure aurrean ispiluak ematen digun beste aurpegi edo argazki bat. Geurea den baina sarritan etsai gisa agertzen zaigun beste aurpegi horrekin edo horren kontra dihardugu, gau eta egun, egin behar dugunaz edo egindakoaz erabakitzen. Gure mintzoarekin ados jartzen garenean pozik gaude, eta jartzen ez garen bitartean, arazoak izaten ditugu. Ordea, gure barne-mintzoa hizketan jartzen badugu bidea egiten edota bidean ikasten goaz. Liburua bera ere, ikaste prozesu bat bezala ulertzen dut eta ezinbestekotzat jotzen dut liburu honetan behintzat, mintzo salatzaile eta sesiozalearen aurkezpena, ia ipuin gehienetan azaltzen dena.

Ipuin batzuk eskutitz modura paratu dituzu. Zergatik?

Narratzailea isilarazi eta pertsonaiak beraiek hizketan jartzeko premia sentitu nuen. Askatasun pixka bat nahi nuen horien ahotan eta bereziki hautatu nuen idazkera estilo ezberdin hori. Akatsak egin behar bazituzten ere, akats egileak pertsonaiak izan zitezen nahi nuen. Batez ere, liburuak eskatuko lukeen seriotasun horretatik ihes egitea nahi nuen. Gutunetan uste dut lortzen dela, oso arinak gelditu direlako irakurtzerakoan.

... desira izoztuak?

Beno, horixe da liburuaren mezua. Hau da, lortu nahi duguna bidean dugun bitartean, desirak oso ederrak dira; behin lortu ditugunean, ostera, izoztu egiten direla

esaten dut, halako frustrazio antzeko bat sumatzen dugula. Esaterako, Maitaneri (ipuin bateko protagonista) gertatu zitzaiona horrelako zerbait da. Betidanik desiratu izan zuen gizonezko mota bat eta gizonezko horrek izan behar zituen aberastasun eta ezaugarriak bere egitea. Behin lortzen duenean, bada, ikusten du ez daukala horrenbesteko baliorik. Ipuin guztietan azaltzen da barne borroka hori. Borroka horrek, desira lortu bitartean zein gaizki sentitzen garen edota lortutakoan zelako frustrazioa sentitzen dugun agertzen du. Besteak beste, desirak lortzeko bidea eskaintzen digu liburuak eta zoriona helduezina dela erakutsi. Nik esango nuke, zoriona helduezina den bitartean zoriontsuak garela. Are gehiago, zoriontsuagoak garela, lortu uste dugunean baino. Itxaropena oso gauza ederra da horregatik.

Desiratzen dugun bitartean existitzen du gutiziak. Desira hori bete dugunean desira desagertu eta berarekin hiltzen gara pixka bat.

Azalean datozen gereziak hori esatera datoz amini bat; neuri gertatzen zaidan zerbait da. Gereziak dira gehien gustatzen zaidan fruta. Hamar edo hogegei egon platerean, berdin da, ezin jan gabe utzi. Ostera, oso garrazak eta mingotsak direla iruditzen zait, eta jaten baditut, badakit barnea hoztuta utziko didatela. Baina horretaz, jan ondoren konturatzen naiz. Hau da, jan arte ezin gelditu eta jandakoan galdetzen diot neure buruari, behin eta berriz, zergatik jan ote ditudan, jakinda alde zurretik, eskarmentuz, beti barrua hoztuta uzten didatela. Eta erantzuna ez da erraza. Oraindik ez dut aurkitu.

Patua edota maitasuna desiraren aldagaiak dira. Maitasuna, desira den aldetik, bermaezina da betiko, ezta?

Maitasunaren gainean idatzitakoez irakurketa ezberdinak daude. Baietz esango banu, kontra pentsatzen dutenak haserretuko litzaizkideke, eta ezetz esaten badut,

alderantziz. Maitasuna, bere horretan, betirako dela pentsatzea inozokeria bat dela iruditzen zait. Hori bera esateak ere, maitasuna hil egiten duelako. Kritika horixe egitera datoz maitasunari buruz idatzitako bi gutunak. Era berean eta galdera aprobeztatuz, patua ere ez dagoela idatzita esango nuke, ezer ez dagoela idatzita finean, dena idatzita dagoela dirudien mundu honetan.

2001/apirila

JOAN MARI IRIGOIEN

“Lur bat haratago kausitzen baita askatasuna”

Lur bat haratago Joan Mari Irigoienen azken nobela da. Liburuaren orri kopurua zein edukia dela-eta berriketa zenbait ekarri du euskal literaturaren munduan. Elkarlanean etxeak plazaratua, ezbairik gabe, literatur adituen kritika merezi du literatur obra honek.

Joan Mari Irigoien altzarraren *Lur bat haratago* izan zen iazko Durangoko Azoka gehien inarrosi zuen nobela. 652 orriko liburu honek hainbat esamesa eragin zuen literaturazaleen artean. Eguberri garaian plazaratu zelarik, egileak honela ihardetsi zuen urte berri honetarako desio batez galdetu ziotenean: “Nire eleberriaren zain zeudenei berau irakurtzeko pazientzia izan dezaten desiratzen diet urte berrian”.

*Lur bat haratago*ri buruz denetarikoak entzun dira. Batzuek halako nobela idaztea denboraz kanpo dagoela diote, bestetuek ateporala dela. Hots, datozen mendeetan ere berdin irakurriko dela. Baikortasunez zein mesfidantzaz begiratu zaio nobelari. Zenbatek irakurriko ote du oso-osorik?, galdetu du, halaber, baten batek. Euskal idazleen artean ea nobela potoloena nori idazten duen nolabaiteko norgehiagoka dagoela, esan duenik ere bada.

Literatura gauza serioa

Esamesa horretatik beretik abian gara egilearekin: “Nik ez dut halakorik sumatu; baditut lagun idazleak eta gure artean ez da inolako norgehiagokarik. Literatura hori baino askozaz serioagoa da. Liburu bakoitzak eskatzen du garapen bat eta koordinatu batzuetan mugitzea. Liburu honek honelako koordinatuetan mugitzea eskatzen zidan, Axularren prosa profitatu nahi nuen bai gauzarik xumeena bai gauzarik korapilatsuena esateko”.

Joan Mari Irigoienen literaturaren bidean gibelera egin dugu une batez, *Oilarraren promesa* lehen nobelaren garaira itzuli, eta oilar haren promesak nobela honekin loturarik ote duen jakin aldera.”Ez zait iruditzen lotura dagoenik. Ordea, esan dezaket argi eta garbi, euskara ikasteko eta euskararen sakontzeko xedearekin izkiriatu nuela *Oilarraren promesa*. Lehenago Irungo Literatura saria irabazia nuen *Hutsetik esperantzara* izeneko poema liburuarekin. Euskarari buruz behar nuen ezagutza ez nuela ikusirik, idazteari gogor ekitea erabaki nuen”.

Handik sortu zen *Oilarraren promesa* eta, ondoren, promesa haren nahikaria betetzeko-edo, Axularren *Gero* irakurri zuen. Erabat liluratuta geratu zen. Orain 25 urte gertatu zen hura. Axular irakurtzean, haren prosak dena adierazteko balio zezakeela ohartu zen Irigoien.

“Gogoratzen naiz, gure arteko elkarrizketan, Axularri honelatsu esan niola: ‘Egunen batean itzuliko naiz zuregana’. Hogeita bost urte pasa eta gero gertatu da itzultzea. Axularren prosak gauzarik sinpleena nola konplexuena eskaintzen zizkidala ikusita, bada, arnas luzeko nobela idaztea pentsatu nuen”.

Irigoienen esanetan, euskarak hamaika leiho eskaintzen ditu eta leiho horietatik bat Axularrena da. Axularrengan arnas luzeko esaldia kausitu zuen. Alegia, baze-goela hasieratik bukaeraraino orri bat betez esaldi bat

idaztea, bere gorputz-zatiekin eta junturekin. Baita behin irakurri ondoren ongi ulertu ere. Hots, euskarak edozein gauza adierazteko aukera guztiak zituela ohartzekak liluratu zuen idazle hasiberri hura eta *Lur bat haratagoren* egungo idazle zaildua. “Euskarazko arnas luzeko esaldi horiek trenarekin konparatzen ditut: honek lokomotora eta bagoiak ditu. Axularrek oso ondo lotzen zituen horiek, junturak bere lekuan jarritz: horregatik, behin irakurri ondoren berehala ulertzen zaio. Ordea, batzuetan guk horrelako prosa bat eraiki nahi izaten dugunean, bagoi bat lekutik kanpo jartzen dugu askotan eta trenaren trenbidetik kanpo joaten zaigu: deskarrilatzen zaigu, alegia. Eta ondorio gisa, ez dugula ezer ulertzen esaten dugu, eta euskarak ez duela balio esaldi luzeak egiteko. Alabaina, Axularrek esaten zuen bezala ez da euskararena falta baizik eta euskaldunona, erabiltzen ez dakigulako”.

Nobela hau Axular birsortzeko saioa izan dela adierazi zuen Irigoienek bere aurkezpen egunean: “Esapide hori bere neurrian ulertu behar da. Alde batetik bai, baina beste aldetik, absurdua litzateke haren kopia itsu bat egitea, gaurko irakurlea jokoan kanpo geldituko litzatekeelako. Axular oinarri harturik erabili dudala esan nahi nuen, baina irakurlea XX. eta XXI. mendekoa litzatekeela kontuan edukirik. Zubiak egiten saiatu naiz. Axularrek erabili zituen eta gaur egun gutxi erabiltzen diren hitzak erabiltzen ditut, euskaldun gehientsuentzat ezezagunak direnak, baina horien inguruan hitz sinoni-
moak jartzen ahalegindu naiz, bat gutxienez”.

Libertatea da hobena.

25 urte dira Joan Mari Irigoienek Axular irakurri zuela eta beste horrenbeste Begoña emaztearekin bizi dela. Berari eskaini dio liburua eta hartara justizia egin ere, bere hitzetan. Hiru aipuren bitartez zabaltzen da obra literario hau. Lehenak, Bernat Etxeparerenak, “Libertatea,

nola baita gauzetako hobena” dio: “Liburu hau ezer bada libertateari eginiko kantua da, edo horixe nahi nuke berederen. Gero irakurle bakoitzak bere mundutik juzkatzen du lana, azken hitza bere dela”.

Libertateari eskainitako kantu bat egin nahi izan du, baina ez da ziur hori lortu izanaz. Nobelaren protagonista –Joanes Etxegoien– bizitzaren aurrean nola halaxe agertu zaigu Joan Mari ere liburuaren aurrean, zalantza-tsu liburuari egin dakioken abegiari buruz.

“Erlijioneak oro dira eguzki beraren errainu”, dio bigarren aipuak, autoreak biziki maite duen John Donne poetarena: “Axularrek bere pentsamendu osoa ortodoxia-tik planteatzen du. Nik berriz, heterodoxiaren ikuspuntutik bideratu nahi izan dut nire liburu. Axular katoliko hertsia da eta bere moralean argi ageri da. John Donne-ren esaldiak dioenez, erlijio guztiak dira errainu beraren islada. Protagonistak berak umetan baditu bere zalantzak. Bere osaba bat (Joanikot) protestantea da, eta giro katolikoan bizi izan arren halako haustura bizi du. Joanesek orduan ez daki zer den: katolikoa edo protestantea. Barne eztabaida izugarria bizi du”.

Historia Urbiain herrian garatua dago: “Urbiain nik irudikatutako herria da. Beti gustatu zait, istorioak osatzeko, pertsonaiak ez ezik, etxeak eta herriak ere asmatzea, ez errealitateari ihes egiteko baizik errealitatea aberasteko, eta askatasun handiagoz jokatzeko. Herri ezagun eta erreal batean finkatuz gero, bere eliza eta kaleen artean, mugatuago eta enkortsetatuago sentitzen naiz, eta horregatik irudikatu nuen edo protagonistak irudikatu zuen Urbiain”.

Izan ere, Joanes Etxegoienek berak idazten du istorioa, Nafarroako historia ez ofiziala, ildo horretatik joateak istorioa fikziozko herri batean kokatzeko aukera ematen du, XVII. mendean. Joanesek, berriz, bere izkribua Andre Larralderi eskaintzen dio:”Zuri, jaun Andre

Larralde, giristino ez-katoliko ez-protestant onest horri, ene liburu honen irakurle bakarrari”.

Bere irakasle izandako Andre Larralde bidarraitarrari zuzentzen zaio. Salamancan irakasle izana, berezia, katolikoan eta protestanteen garaian bizitakoa. Eskarmentu handikoa. Katoliko eta protestanteen arteko liskarren ezagulea. Funtsean, Larraldek ez protestante ez katoliko baina giristinotzat du bere burua. Bidarrai herria, dakigunez, bi estatuen arteko muga dago. Galderak jalgitzen dira hartara: “Zer da espainola edo frantsesa?”.

Historia errealean Azpilkueta teologo ezagunarekin (Doctor Navarrus) gertatu zen bezala, espainolek frantsesa zela baitzioten eta frantsesek alderantziz. Andre Larralderen antzera, Azpilkuetak ere bere burua nafar soiltzat jotzen zuen.

Jakitatez jantzi

Joxe Azurmendi filosofoak esana duenez, Irigoienek XVII. mendearen berreskuratze linguistikoa eta historikoa egin du, baina egoera horiek gaurko kezketatik sortuak dira. “Batzuetan nobela historikoez mespretxuz hitz egiten da. Ordea, hau nobela historikoa baino historian kokatuta dagoela esango nuke”, dio autoreak. Bere ustez, Santxo Azkarraren bizitza nobelatu egin zezakeen, historiari fidela izaki, baina, askatasunari kantu bat eskaini nahi izan dio eta askatasunez jokatu. Askatasun bila doana jakitatez jantzi beharra dago.

Joanesez jakintza lantzen du askatasunera bidean eta osaba Joanikot du gogaide: “Joanikot gizon atipikoa da, zientzilaria. Collège de France-n ikasia, Pierre Gassendi filosofoarekin harremanak izan zituen. Filosofo hau, bestalde, errealitatean, Galileoaren jarraitzailea izan zen, eta Galileo ere berreskuratzen nahi izan dut istorioan”.

Osaba Joanikotek arlo hori islatzen du. Protagonistaren baitan pertsona batek bil dezakeen kasik guztia

biltzen da. Une batean ortodoxoa izan zen; gero munduan barrena abiatu-rik, bizitzaren ezagutza sakona esperimentatzen du.

Mundu berriak, abenturak, sexualitatea. Joanesek epikari eta lirikari leku egiten die bere bizitzan, liburuaren hirugarren aipuak gaztigatzen digunez; aipu hau gaztelaniaz paratua da: “Porque ese cielo azul que todos vemos ni es cielo ni es azul... –Y es menos grande por no ser realidad tanta belleza?”

Bartolomé Leonardo de Argensolarena da. Nobelan, Arnaud Oihenarten moldeko soneto bat ere azaltzen da, lirikotasunaren agerpide. “Lur bat haratago” irakaspen eruditu bat ote den galdetu diogu, autoreari liburuak dakarren “Oro nahi eta oro gal” maxima gogora ekarri diogularik: “Liburuan dagoen informazio ugaria onerako edo txarrerako izan daiteke. Bere arriskua ere badu horrek. Haatik, Axularren molde hertsian idatzi gabe, kutsu moderno bat eman nahi izan diot, egungo irakurleentzako moduko estiloan, informazio guztia kontakizunaren enborrean ongi txertatzen ahaleginduz”. Joxe Azurmendik naturaltasuna galdu gabeko artifizialtasun apropos eta elegantea asmatu duela dio. Euskal Herrian bizi izan zen modernitatea egungo modernitatearen isla izan daiteke:

”Esaterako, garai hartan inkisizioa izan zen indarrean. Gaurko ‘pentsamendu bakarra’ orduko inkisizioaren modukoa da. Halako traslazioak eginez gero orduko eta gaurko puntu komunak aurkitu ditzakegu”.

Lur bat haratago libertatearen sinboloa da, baina Irigoienek –edo Joanes Etxegoienek– dioenez askotan ez dugu gure burua ezagutzen eta gure buruaren esklabo bihurtzen gara. Irakurleak jakin behar du lur bat haratago doala, utopiaren bila zabal-zabalik. Eta irakurraldi bidaian jasotzen duen eragina bizi duen egoeraren araberako izanen dela:

“Finean, geure ‘humoreen’ menpe bizi baikara eta horren menpe baitago ere gure libertatea azken finean. Atzo lur bat haratago sentitzen ginen eta gaur lur bat honatago. Askatasuna, hots, utopia, kausitu nahi dugun lur hori *Lur bat haratago* kausitzen da beti ere.

IRITZIA

JUAN KRUZ IGERABIDE

“*Lur bat haratago*, eta hala ere hemen”

Beti ere nobela historiko bat urrun samar gertatzen zaigu gaurko irakurleoi, definizioz; badirudi gaurko kezka eta interesetatik urrun gera litekeela honelako liburu bat. Gainera, idazleak erabili duen prosa zaharkituak are gehiago urruntzen du liburua gure errealitatetik. Hala ere, irakurtzen ari nintzela, hemen, oso hemen sentitzen nituen narratzailearen hitzak, eta oso hemen sentitzen nuen ustez liburu hori irakurtzen ari zen barne-irakurlea. Han izanik, hona nintzen.

Gure tragedia historikoaren harietako bat tenkatu du egileak, eta, arrabitararen sokari bezala, makilatxoaz (lumaz, alegia) negarra eta antsia atera dio, erritmo etengabea. Irakurtzen ari nintzela, *Otto Pette* zetorkidan gogora, gure egoera historiko absurdu bezain krudelaren metafora “unibertsal” eta global hura, honako honetan hari luze amaigabe bihurtua. Han biribil eta osotasun zena, hari da hemen, hari amaigabea, ez metafora, erreferentea bera baizik; haritik tiraka eta tiraka inoiz amaitu gabe jarrai genezake, eta liburuak beste seiehun orrialde izan ditzake, eta, hala ere, amaierarik ez. Agian gizakia- ren absurduak ez du amaierarik; hor goaz Ariadnaren hariari tira eta tira, Minotaurorik aurkitu gabe, aurrera, beti

aurrera, oraintxe hari horren zertarakoa ere absurdu iruditzen zaigula, ezen bai baitakigu ez garela inoiz itzuliko.

Lur bat haratago izanik, hona naiz; eta are harago naiz, aldi berean. Liburuaren historian sartu ahala, denboran atzerago ikusten ditugu etengabe erroak: zaharrak dira lur honetako minbiziaren sustraiak; era berean, kontakizuna irakurri ahala, hariak gaurko egoerara seinatzen digu bidea, etengabe. Ikuspuntua ez da nostalgikoa, ez utopikoa; inbentario bat da, azken buruan; sentipenek, sentsazioek, balioespenek, epaiek, iritziek eta subjektibotasunaren eta objektibotasunaren arteko joakoak gidatzen badu ere narrazioa, finean jarrera eta jokabide batzuen inbentarioa da; zenbait aieru sinboliko ukaezinak izanik ere, nik uste inbentarioak duela indarra liburuan. Historia den epailearen aurrean berebiziko txostena aurkezten du egileak, eta joan egiten da, epaiketan parte hartu gabe.

Badakit hitz hauek itsas bazterrean botatako harri koxkorrak besterik ez direla; lehen inpresio batzuk ematera mugatu naiz. Idazkerak txundituta utzi nau; neurgailuz egina ematen du, ezin ukatuko dotorezia axularzaleaz; baina ez da idazkera soilik; narrazioa bera dago neurgailuz eraikia, hala material historiko nola jakintzazkoa, hala denbora narratiboa nola ekintzen bilakaera, zehaztasun harrigarritz emanez.

Hasi besterik ez naiz egin, baina ni ez nago ohitua liburuaren kritika egiten, eta ez dut ohitu nahi.

Honenbestez, isil bedi ahoa, mintza bitez belarriak.

2001/ekaina

LAURA MINTEGI

“Maitemina emozio guztien nahasmendu
lehergarria da”

Denok maitemindu gara noizbait eta badakigu maitasunak erotu egiten gaituela. Maitasuna eta maitemina ezberdinu behar dira, ordea. Jakinminak bazara, literaturak lagun zaitzake. Laura Mintegiren *Sisifo maite minez* (Txalaparta) eleberriak, kasu.

Eleberriak funtsezkoak dira Laura Mintegiren ibilbide literarioan. Saiakerek ere berebiziko lekua dute. Psikologiaren doktoretzarako *Subjektibitatea nobelagintzan*: Stephen Craneren *The Red Badge of Courage*, –1999an argitaratua–, *Sisifo maite minez* eleberriaren gauzapenean berebiziko saiakera eta lana izan da.

Hasteko eta behin, zergatik Sisifo?

Jainkoek ezarritako zigorra jaso zuen Sisifok. Hau da, harritzarra hartuta mendira behin eta berriz igotzearen zigorra. Hamabost urte nituela harrapatu ninduen Sisifok; Albert Camusen *El mito de Sisifo* liburua irakurri. Burua eta bihotzaren barnean gelditu zitzaidan nonbait. Nobelarako titulu baten bila ari nintzela, maitemintzea azken finean harria bera hartzea eta behin eta berriz gora eramatea dela ohartu nintzen. Hau da, jakinik maitasunak berriz ere ihes egingo digula, ez diogu

maitasunari uko egiten. Hala ere, maitasuna ez dut zigortzat hartzen. Erabakia da balio duena, hau da, maitasuna –edo harria– hartuta mendira igotzea eta gero haren bila berriz jaistea.

Nobela fikziozkoa eta aldi berean egiazkoa dela adierazi izan duzu.

Izan ere, ez ditut bereizten egia eta fikzioa. Eta ez naiz zorutzen ari, ez guztiz behinik behin. Ez ditut bereizten, fikzioa bizi egiten dudalako, nire imajinarioan. Bizi egiten dudan momentutik erreala da. Hor dagoen guztia egiazkoa da. Hau da, fikzioa ez da gezurra, ez da simulakroa, ez da nigandik aparte dagoen zerbait, nire buruari eta gogoari lotuta dago guztiz.

Maitasun eta maitemin kasuak agertu dituzu liburuan. Zer da maitemina?

Maitemina emozio guztien nahasmendu lehegarria da. Pertsona bat maitemindurik ikusten dugunean kanpokoentzat pertsona horrek zoroa ematen du, ez du jaten ez lorik egiten, eta kapaz da hamar ordutan euripean egoteko leiho bati begira. Zoramenetik hurbil dago kanpoan dagoenarentzat, kanpotik begiratzen dionarentzat. Barruan dagoenarentzat, ordea, sentimendu kontrolaezina da. Bere senean daudenek inoiz baldin badute zoramen puntua, eskizofrenia moduko bat, maitemintze prozesuetan izaten da.

Zein neurrian laguntzen digu literaturak sentimenduak ezagutzen?

Sentimenduak non hasten eta non amaitzen diren ez dakigu, baina literaturak laguntzen digu hori ulertzen, neurri handi batean behintzat. Bestela ez dago ulertzerik nola identifikatzen garen honenbeste nobeletako pertsonaiekin. Gure bizitzaz ez badihardu eta gure familiako kide ez bada, ez da erraz ulertzen nola identifikatu gaitetz-

keen fikziozko pertsonaiekin, beraiekin batera negar eta barre egiteraino.

Fikzioa eta errealitatea. Nobelako protagonistak eta narratzaileak daramate nobelaren kontakizunaren haria. Zein neurrian zaude zu narratzailearen baitan?

Batetik narratzailea orojakile gisa agertu dut, egia da. Nobelan agertzen den psikiatraren *alter egoa* ematen du narratzaileak, psikiatra bera dela ematen du. Baina ez dut psikiatraren paperean mugatu nahi izan. Hirugarren pertsonaren rol urruna hartu dut, ahots hori sartu eta ateratzen da berak nahi duen moduan. Tranpa da. Edo bestera esanda, nire bururako hartu izan dudana lizentzia literarioa.

Politika, zientzia, artea eta maitasuna dira pertsonen bizitzako berealdiko arloak. Zein da gakoa?

Maitasuna gakoa da bizitzan, zalantzarik gabe. Tesia gauzatzeko irakurri nituen egileen arabera, lau arlo horiek berebizikoak dira subjektua aurkitzeko. Neronek, nire apaltasunean eta maisu handien kontra joan nahi izan gabe, ezetz uste dut. Maitasuna, aurretik, geroztik eta guztiaren gainetik dagoela uste dut. Beste guztiaren elementu ekidinezina dela. Hiru arlo horietan –zientzia, artea edo politika arloan– azken muturreraino joateko, maitasuna funtsezkoa baita.

Liburuaren sarreran Blaise Pascalen aipu hau ipini duzu: “Le coeur a ses raisons, que la raison ne connaît point: on le sait en mille choses”.

Alegia, bihotzak baditu arrazoiak buruak ezagutzen ez dituenak. Hala da, horren esperientzia guztiok dugu. Gauza da, erabakitze gaudenean arrazionalki mila argudio ipini ditzakegula alde edo kontra, baina azkenean bihotzak agindutakoa egiten dugu.

Iragana gakoa da pertsonaren bilakabidean. Nobelan ere bai, ezta?

Nobelan bertan esaten da iragana beldurgarria dela, batez ere, aldaezina delako, eta horrek egiten du ikaragarri, aldatzerik ez dagoela. Oraina eta geroa gure esku daude nolabait eta, egitear daudenez, aldatu daitezke. Iragana ezin da aldatu. Mozorrotu daiteke, bizitza haren gainean fantasiar antolatu, disimulatu baina aldatu, ez. Psikoanalisian ere, batez ere lehen garaietako psikoanalisian, iraganaren garrantzia funtsezkoa eta erabatekoa da. Hala ere, eta subjektibitatearen ikuspuntutik, gizaki guztiok daukagu horren gainean oraina egiteko ahalmena. Orainean, nork bere erabakiak har ditzake. Beraz, psikologoek diotena egia izanik ere, filosofoek diotenari eutsiko nioke.

Burutu duzun ahalegin afektiboak itzela ematen du.

Eta arriskutsua eta beharrezkoa... Niretzat ezinbestekoa da, onerako edo txarrerako. Hausnarketarako joera dut, ez naiz konformatzen gauza sinpleekin. Gainera, liburu bat sinesgarri egin nahi baduzu, norberak sinetsi behar du aurretik. Oso exijentea naiz idazten dudana-rekin. Denbora pasa ondo dago, baina ni ez nago horretarako.

Maitasuna gakoa da bizitzan. Berarekin batera malenkonia agertzen da. Malenkonia berriz bakardadean.

Bakardadea zeharka agertzen da nobelan, baina horri buruz hausnarketa gehiago egin behar dut. Bakardadea aho biko ezpata da, komunikatzeko oso zaila. Hitzez transmitiezina da eta, gainera, berataz hitz eginez ezin da uxatu. Izan ere, malenkonia dakar, literarioki emankorra eta goxoa den sentimendua, baina sentimendu antzua da finean. Malenkoniak ez du ezer sortzen, ez du ezer aldatzen, ezer iraultzeko ez du balio. Norberaren fluidoetan

ito egiten du gizakia. Niri, aldiz, beste bakardade mota bat gustatzen zait, norberaren burua kuestionatzeko balio duen bakardadea, interpelazioa egiten duena. Erantzuna norberaren baitan baitago beti. Bakardadeak erantzunak bilatzeko baliabidea izan behar du.

“Elbarri emozionalak gara” finean?

Denok gara elbarri emozionalak. Azken finean maitasun mota gehienak gabezia edo karentzia batetik datoz. Indigente edo txiro afektiboak gara denok, maitasuna behar dugu lehenik eta gero ipintzen diogu aurpegia, begiak, sudurrak, baina lehenago maitatu behar dugu. Nerabeek “maite zaitut” esaten dutenean ez dute objekturik. Ez dakite nori esaten dioten, behar duten bakarra da “maite zaitut” esatea. Hainbat kantutan entzuten dugu “maite zaitut” objekturik gabe. Lehenengo eta behin afektibitate hori behar dugu, behar dugu sentitu, maitatu. Askotan ez dago inguruan objekturik, ezerk ez digu atentziorik deitzen, hori gerora dator. Indigentzia edo txirotasun afektiboa agertzen da lehenik, horregatik, maitasun mota gehienak nahiko pobreak dira, gosetiak dira, gabeziatik sortzen dira. Bestelako maitasuna da interesgarria, ordea. Hau da, ez gabeziatik sortutakoa baizik poztasun batetik sortu dena, emaitza batetik. Maitasunak bizipoza eta bizinahia izan behar du, eta hori gutxitan ikusten da.

KOADROA

“Burua, tripa eta bihotzarekin idazten dut,
idaztean nire baitako zerbait uzten dut,
strip-tease emozionala da”

Zure ibilbide literarioari begira Ilusioaren ordaina (1983) lehen liburuan erreparatu dugu. Sisifo maite minez ilusioaren ordaina ote?

Teorian bi lanen artean ez dago zer ikusirik, baina funtsean biziminaz, ilusioaz eta maiteminaz aritu naiz beti. Gai latzak izan arren elementu positiboak bezala landu ditut. Finean gizakiaz ari naiz, eta gizaki horiek ezbeharren kontra edota oldeen gainetik aurrera egiten ahalegintzen dira.

Maitemina eta maitasuna. Maitasunez edo maiteminez idatzi al duzu nobela hau?

Maitasuna eta maitemina bereizi beharra dago. Maitemintzea une batez obsesioa bihurtu den zerbait da. Oso puntuala da, 18 hilabetez irauten duen pasioa, “adituen” ustez. Pasioa, sukarra edo kalentura bezalakoa da, ezin da denbora luzez mantendu. Nik, nolabait, maitemintzeari buruzko jakinmina asetu egin dut nobela honekin. Maitasuna hori baino gehiago da, maitasuna motorra da, egiten dugun guztiaren azpian dagoena, ez da ulertzen ekintza bat maitasuna ez badago. Berdin da, familian, militantzian edo lanean izan.

Nobela baten gauzatze bidean lanketa dago. Zer dago nobela honen atzean?

Nobela baten atzean *tempus* asko dago. Idazketaren *tempusa*, narrazioaren *tempusa*, eta batez ere norberaren esperientzia, curriculum afektiboa dago nobela baten atzean. Horregatik egiten zaizkit gero eta interesgarria-

goak idazle helduen lanak. Zenbat eta nagusiago izan hainbat eta curriculum sendoagoa dute. Gainera, exijenteak badira, eta egin dutena berriz egiteko prest ez badaude, are eta interesgarriago. Nobela bat bizitzan zehar sortzen dela konturatzen naiz, eta hau ere halaxe sortu da.

Nobela ernatze luze baten erditze modukotzat jo behar da, orduan.

Jakina. Nik ez dut ulertzen idazkera automatikoa. Ez dut planteamendu hotza egiten, beti dago antolamendu bat, hari bat. Nobela idaztean zer egin nahi duzun badakizu, baina idaztaldi bakoitzean zehatz-mehatz zer aterako den ez dakizu. Nik honela ulertzen dut idaztea. Burua, tripa eta bihotzarekin idazten dut, idaztean nire baitako zerbait uzten dut, strip-tease emozionala da. Jakina, gauza puntualak, gertaera zehatzak eta nortasunak aldatu egiten dira, ni ez naiz nire pertsonaia, eta ez dut izan nahi gainera. Baina egia da, hor dauden sentimendu guztiak sentitu izan ditudala, errealitatean edo fikzioan.

Lortu duzu nahi zenuena idaztea?

Nobela honek hainbat irakurketa ditu, eta bi modutara irakurri daiteke: maitasun istorio bat bezala eta maitasunezko istorio bat baino gehiago ikusiz. Anekdotetan gelditu gabe hausnarketarako beta ematen du. Lortu dut nahi nuena, bai. Hau da, irakurlea gelditu egiten bada une batean sabaiari edo zerura begira, berak nahi duelako izango da, bere buruaz mintzatzeko, ez irakurketak oztopatu egin duelako.

“Jakin aditza jokatu ezina da maitasunean” esaldia agertzen da liburuan. Esaldi gakoa al da?

Joxerra Garziak oso ondo jakin zuen esaldia aukeratzten. Joxerrak nobelaren ibilbidea ezagutu du hasieratik bukaera arte, eta nobelaren aurkezpen polita egin zuen.

Maitasuna ez dago jakiterik, sentitzea bakarrik dago. Aitortu behar dut, eta hau da esaten dudan lehen aldia, itzelezko beldurra nioela nobela argitaratzeari, ez nekielako nola aurkeztu jendearen aurrean. Nire beldurra zen jendeak pentsatzea nobela hau maitasunezko nobela hutsa zela, Corin Tellado hutsa; “emakume bat maitasunaz idazten!”. Zorionez, nobela hori baino gehiago dela transmititzea lortu dugu, bai aurkezpena egin zuten Gari Berasaluze eta Joxerra Garziak, bai nik, eta baita zuek ere, kazetariak.

2001/abendua

MARIASUN LANDA

“Inozentzia galdu dut baina ofizioan irabazi”

Aurten hogei urte bete dira Mariasun Landak euskarazko lehen ipuin bilduma argitaratu zuenetik: *Ametz uhinak* izenekoa. Bere azken ipuinak berriz, *Galtzerdi suizida* izena du. Haur eta gazte literaturan bide propioa emaro osatu duen idazlearekin solastatu gara.

Hogei urte joan dira zure lehenengo ipuin liburua argitaratu zenuenetik. Nola hasi zinen idazten? Zergatik?

Erantzun hori nire bizitzaren nondik norakoarekin lotu behar dut. 1973. urtean –Parisen lau urte filosofia ikasten aritu ondoren– Euskal Herrian finkatu nintzen, artean ez nuen euskaraz egiten. Euskara ikasi eta hemen-go kulturaren alde egingo nuela agindu nion nire buruari. 1974an Zarauzko ikastolan sartu nintzen. Lehena-gotik ipuinak gaztelaniaz eta frantsesez ere idatziak nituen baina ez argitaratuak; 18 urte inguru nituela ipuin lehiaketa bat edo beste irabaziak nituen. Ez nuen zalan-tzarik idazle izan nahi nuela, baina euskaraz idazteko beharra ikusi nuen ikastolan, orduko ikasleek ez baitzuten apenas euskarazko literatur libururik. Garai haietan irakasleek denetarik egin behar izaten genuen eta horre-gatik hasi nintzen haur literatura lantzen.

Haurtzaroa, berez, beti iruditu zait oso gai literarioa, mundua haur ikuspuntutik begiratzearena, alegia, eta hori nire ipuingintzan islatzen da.

Nire euskarazko lehenengo ipuin bilduma 1981ean argitaratu zen: *Amets uhinak*, Elkar argitaletxea sortu zen unean. Ipuin freskoak dira, fantasiako ipuinak ziren gehienak; ikastolako klaseetan nik erabilitako ipuinez osatua. Orain, normala den bezala, ez nuke horrelako ipuinik idatziko, garai bateko emaitzak dira.

Idazle ibilbide honetan garaiak edo zikloak bizitakoa izango zara?

Amets uhinak idatzi nuenetik *Txan fantasma* idatzi nuen arte garai bat bizi izan nuen. 1984an, *Txan fantasma* ipuina mugarri bat izan zen nire ipuingintzan. Errealismo kritikoa zenik ere ez nekien, baina ipuina horrela izendatua izan zen. Literatura modernoa bezala joa izan zen. Haurrari eguneroko problematika azaltzen zitzaion ipuinaren bitartez. Gainera, Bartzelonako La galera argitaletxeak ipuina gogo biziz hartu eta katalanez nahiz gaztelaniaz argitaratu zuen. *Txan fantasma* rekin haurraren barne mundua arakatzen hasten dela –edo euskal haur literatura modernoa hasten dela–, esan du zenbait adituk.

Txan fantasma, *Maria eta aterkia* eta antzeko ipuinek hemendik kanpo ezagutarazi ninduten. Beste mugarri bat Asun Balzolaren lana topatzea izan zen. Nirea bezalako estetika bat aurkitu nuen, handik aurrera adiskidetasun mina bihurtu dena. *Iholdi*, *Izeba Txikia* edota *Alex* izeneko ipuinak sortu ziren harrezkero. Euskadi Saria eta Nazioarteko Aipamen berezia jaso nituen; beste literatur mota bat sortzen hasi nintzen.

Espainiako beste hiru hizkuntzez gain, frantses, ingeles, aleman eta grekora itzuliak dira zure zenbait ipuin. Nola lortzen da hori?

Nire kasuan, nik neronek pertsonekin izan ditudan harremanen bidez gauzatu dira itzulpenok. Ez dut itzulpen

bat lortu ez argialetxeen, ez Eusko Jaurlaritzaren ez inongo instituzioren bidez. Liburu bakoitzaren itzulpena abentura bat izan da. Ipuin bakoitzak pertsona baten barnea hunkitu du. Euskal idazle batzuek egin dugun bidea da, ez nirea bakarrik. Badirudi, zorionez, hau aldatzen ari dela.

Zure ipuinen arrakasta, samurtasun, xumetasun eta ironian omen datza.

Ez naiz inor hori esateko, hori besteek esan behar dute. Literaturaren egitekoa –barne mundu propio bat izaki– ideia eta sentimenduen bidez bideratzea da. Desafio literarioa modu apal baina sakonean idaztean datza niretzat; hitz neurtu eta baliabide estilistiko murriztekin egitea, norberaren barruko imajinarioa gauzatzea. Nire literaturan samurtasuna dagoen ez dakit, baina nire ipuina ez dira beti samurrak, ironia ia beti dago. Gauza serioez hitz egiteko umoretsuki jokatu behar duzu. Sentimenduen mundua gustatu izan zait beti, baina izendapenei beldur handia diet, klixeei beldurra diet. Orain gutxi arte klixe batean sailkatua izan naiz: neska-mutilen arteko dialektikak edo harremanak tratatu ditudan idazle bezala. Horrek amorru pixka bat ematen dit. Hala egin badut ere, ez dut propio egin. Esate baterako, feminista bezala idatzi dudala? Horiek klixeak dira, idazleentzako sentazio txarrak uzten dituenak. Gauza bat da norberaren ideologia, eta ni feminista naiz, egia da, eta beste gauza bat da ipuin feministak idaztea. Ezagutzen nautenek badakite ez nagoela horrekin ados.

Idazle gisa aldatu al zara hasi zinetik gaur egunera?

Hasierako ipuin haiek zuten freskotasuna galdu dut eta inozentzia ere bai. Poza eta jolas giro hori galdu dut eta autoexigentzia irabazi. Nolabaiteko inozentzia galdu dut eta ofizioan irabazi.

Zerbaitek baldintzatzen zaitu egun?

Exigentziak. Duela hogei urte baino exigenteagoa naiz nire buruarekin eta besteekin, baina irakurtzen dutenak ere bai. Gaur egun ezin da edozer gauza argitara eman. Garai militante haietan bai, haurrei eskaintzeko besterik ez baitzegoen. Ofizioak nolabaiteko sufrimendua dakar eta ezin duzu atzera jo, ezin duzu lehen bezala idatzi, gero eta hobeto idatzi behar duzu. “Galtzerdi suizida”, kasu, orduan ezin imajinatu genezakeen ipuina da.

Norentzat idazten duzu erosoen haur edo gazteentzat?

Idazteko zereginen bi fase bereizten ditut. Nire buruarentzat idazten hasten naiz. Hau da, istorio bat bururatzeko zait eta istorioak ni eramanez nizan uzten dut. Ez dakit ipuina noraino joango den, ez ideiak, berez, ipuina izateari eutsi egingo ote dion. Hori da idaztearen alde laketgarriena. Adibidez, “idatzi ezazu ezaugarri hauek dituen zortzi urtekoentzako zortzi orrialdetako ipuin bat” esango balidate, idaztea eskribau lana bihurtuko litzaidake. Eta horretarako Unibertsitateko lana daukat; nomina eta beste. Orduan, literaturan libertatea bilatzen saiatzen naiz, nahi dudana egiteko libertatea.

Bigarren fasea irakurleei begira egiten dudana da, egin beharrekoa nik uste. Orduan, ezaugarrien arabera, ipuina zortzi edo hamabi urtekoentzat argitaratu daitekeela eta zenbait aldaketa, zuzenketa edota egokitzapen egiten hasten naiz.

Lehenengo fasea da atseginena, hala ere. “Galtzerdi suizida”ren kasua, esaterako, non hasten dudana galtzerdi batek bere burua botatzen duela kontatuz. Hortik aurrera istorioa galtzerdi baten ikuspuntutik osatzen doa. Ipuinak berak ziurgabetasun batean eramaten zaitu. Jakina, horregatik gelditzen dira ipuin asko mahaiko kaxoian eta ez dira ipuin izatera iristen. Nik eginbide hau mantendu nahi nuke, bestela literatura zeregin benetan lehorra bihurtzen da, ez zeregin laketgarria behintzat.

Zein osagai behar ditu ipuin batek?

Ipuin batean, bi alde lantzen dira: literarioa eta linguistikoa. Eskolan lantzen dena gaitasun linguistikoa izan ohi da. Egun, hizkuntza aldetik ondo idazten da, erabiltzen diren egiturak onak dira; denok irabazi dugu horretan. Bestea, gaitasun literarioa, askoz zailagoa da lantzen. Hau da, literatur irakurleak liburu bat preziazteko lehenago beste liburu batzuk irakurri behar izan ditu; katea bat da, denok bizi izan edo bizi behar dugun katea. Nik *Madame Bovary* maitatzeko, aurretik beste liburu batzuk irakurri behar izan ditut.

Gaitasun linguistikoa eskolan osatzen da. Gurean landu behar dena gaitasun literarioa da. Zer da literatura? Zer da literatura ona eta zer ez da hain ona? Haurrei gustatzen ote zaie irakurtzea? Behartuta irakurtzen ote dute? Literaturaren koska gaitasun literario horren barruan dago.

Zuk nola ulertzen duzu gaitasun literario hori?

Literatura esperientzia bat bezala transmitituz; esperientzia hori topaketa bat bezala ulertua izaki. Hau da, literatura liburua eta irakurlearen arteko elkarrizketa isila da, batzutan baino ematen ez dena. Haurra eta gazte nintzela topaketa hori bizi izan nuen, emozio bat, liburuarekin bat egite hori, esperimintatze hori; liburu batzuekin bederen. Literaturan esperimintatzen den harreman hori da literaturzale bihurtzen zaituena.

Harreman hori ematen da egungo gazteen artean?

Ez naiz ziur. Eskolan burutzen den irakurketaren bidez baliteke haurrek dezente irakurtzea, baina inoiz ez ezagutzea zer den esperientzia literarioa. Liburu guztiek ez dute esperientzia hori eskaintzen eta irakurle bakoitzak liburu ezberdinetan aurkitzen du berea. Batzuek *Harry Potter*ekin aurkitzen dute, beste batzuek *Zekale artean harrapaka*, Salingerren liburu zoragarriarekin. Kontua emozio hori aurkitzea da.

Harry Potter *fenomenoaz zer iritzi duzu?*

*Harry Potter*en lehen liburua besterik ez dut irakurri, beraz, nire iritzia erlatiboa da. Batetik, duina iruditu zait, baina genero hori ez da nire gustu literariokoa. Tradizio anglosaxoikoa da, Charles Dickensekin lotu daitekeena: protagonista umezurtza, osaba-izeba gaiztoak, lehengusu nazkantea eta abar... Hasiera hori, adibidez, ez nuke nik inoiz idatziko, klixe bat iruditzen zait. Baina ulertzen dut haurren gustuko izatea. *Bostak* eta antzeko liburuek ere izugarritzko arrakasta izan dute haurren artean eta aditu guztiek oso literatura txartzat tratatzen dute Ingalaterran. Bestalde, alderdi on bat ikusten diot hau guztiari: irakurleak sortzearena. Beste alderdi bat, marketinarena, askoz kezagarriagoa iruditzen zait. Liburu mota hauen bitartez irakurleak lortzen ditugu, eta hori ona da. Pena eta arriskua da, ordea, irakurlea maila horretan gelditzea. Literaturak hortik aurrera eraman beharko luke haurra, eta ez bakarrik liburuaren pelikula ikustera. Irakurtzeko ohitura horrek literaturaren klabeak ezagutzea ekarri beharko luke, literatur gaitasuna sortzea. Beno, hau nire iritzi apala da, beste iritzi desberdinak badaude, ezta?

KOADROA

“Fantasiatzko ipuin soil-soilak edo hutsean idatziak ez zaizkit gustatzen”

Elefante txori-bihotza eta Galtzerdi suizida ipuinak argitaratu berri dituzu. Lehena, maistra batek bere ilobari idazten dion gutunarekin hasten da, *Elefanteneu*s egunkarian irakurritako berriarekin...

Hasiera hori anekdota da. Ipuinean garrantzitsuena da maistra horrek –denak berdina diruditen elefante

multzo batean— nola aurkitzen dituen tigre bihotza duen elefantea, xinaurri-bihotz edo tximu-bihotza dutenak, alegia, oso bihotz diferenteko elefanteak. Badaude elefante agresiboak, hiper langileak, inozentziaren paradigma direnak eta besteentzako tontoak direnak ere bai, baita idealistak, poetak eta sentsibilitate berezikoak. Ez dira arrakasta sozial handikoak. Batzuek besteei barre egiten dieten pertsonaiak dira.

Norentzat idatzi duzu ipuin hau?

Sei-zazpi urtekoentzat, bere argumentua xumea da. Kikunga, elefante txori-bihotza duena, lainoetan dago, adin horretako haurrak bezalatsu. Argumentua erraza du baina barru poetikoa du eta umoretsua izaten saiatu naiz. Alegia, itxuraz denok berdinak gara, baina gure baitan dugun animalia oso ezberdina izaten da. Istorio hau estilo berri baten bidez kontatu nahi izan dut, irakurleak haurrak izanik, ahalik eta modu orijinalenean.

Galtzerdi suizidan berriz, pertsonaia arras aldatu da.

Pertsonifikazioa da baliabide estilistiko erabiliena haur ipuingintzan. Nik haurrak, animaliak eta hutsalak diren pertsonaiak erabili izan ditut. Kasu honetan galtzerdi bat hartu dut pertsonifikazioa egiteko, pertsonifikazioa mutur bateraino eraman dut: objektu gris zulatua, ezdeusa, arrunta, marginatua eta batere enkanturik gabekoa. Agian, euskal literaturan dagoen lehen galtzerdi literarioa da.

Nolakoa da galtzerdi pertsonifikatu hau?

Xume eta atormentatua, inkorformista, erromantikoa, modaz kanpoko protagonista bat da. Guretako edonork bere burua aurki dezake bere baitan. Anaia ere hor dago. Bi eredu dira, anaia konformatu egiten da galtzerdi bizitza arrunta eramatearekin, ez dio bere buruari besterik eskatzen. Suizida delakoak, berriz, beste intentsitate

bat eskatzen dio bizitzari. Badaki arriskuz jokatu behar duela, heriotza arriskatzen du, ipuin guztian heriotza gertu-gertu dauka, gorabehera guztietan herioaren hurbiltasuna sentitzen du.

Bukaera zoriontsua dauka...

Narrazioa galtzerdiaren ikuspuntutik gauzatzea ez zait erraza izan. Kaxoian egon da luzez, eta urteetan landu dut. Bukaera, dezente hausnartu behar izan dut, ez zaizkit gustatzen bukaera zoriontsu borobil horiek. Hala ere, bukaerarekin oso lasai gelditu naiz, nire filosofia-rekin doa. Alegia: atzokoa joan zen eta biharkoa ez dakigu nola joango den. Estoizismoarekin lotzen dut ipuina, nire beste ipuinetan bezala ezin izan dut saihestu niretzat balio duten hainbat ideia tartekatzea, etika bat. Horregatik fantasiako ipuin soil-soilak edo hutsean idatziak ez zaizkit gustatzen, ez orain, ez hasi nintzenean. Bizitzaren sentimendu tragikoa islatzen dut, agian ikasketaz ere filosofia ikasia naizelako.

2002/ martxoa

PATZIKU PERURENA

“Literatura funtsean bizio pertsonala da”

Patziku Perurena idazleak *Euskaldunon Egunkariako Nafarkarian* 1997ko irailetik 2000ko urrira bitarte argitaratutako artikuluak bildu ditu *Trapuan Pupua* liburuan. Argitaratzeko gorabehera franko ibili ostean, Erein argitaletxeak argitaratu dio azkenean.

Hedabideetatik urrun bizi den pertsona antzo agertu digu Patziku Perurenak *Trapuan Pupua* liburuaren azala. Azalean leizezulo bat azaltzen da. Begiratua kobazuloaren barrendik kanporantz doa: “Begiratu hori gustatzen zait: barrendik kanporakoa, orain dena axaletik begiratzuz bizi bada ere jendea. Koadroaren ezker aldean, gizaki ttiki batzuk ageri dira, eskuineko ezkil hotsaren bila larrituak, erdiko malkorrean amiltzera doazela. Ezkilak, gaur egungo inbasio mediatikoa adieraz lezake”.

Trapuan pupua *izenburuak zer adierazten digu?*

Gizakiak berak ematen diola minik handiena bere buruari. Gizakia bera bezain zaharra den gaitz horrek, euskal giro gaitzatu honetara ekarrita ere, berdin balio du. Min guztia kanpotik badator, edo ez dugu zinezko oinazetik edo oinaze faltsua sortzen ari gara. Hori da, batez ere, tituluaren mezua. Nik ttikitatik aditua dut etxean, eta ez Madrilen: “Bi sosen pupua eta lauen trapua”.

Minez bizi ote da Patziku Perurena?

Mina behar beharrezkoa da; bizitzeko bizimina behar da. Mina bizia da eta bizitasuna mina. Baina ez inondik ere, inperio demokratiko mainontzi honek saltzen diguna, hori ez da mina. Niri min bizia gustatzen zait, biziari darion mina; gaurko gizarte antsikabe honen dunduri tristeari, ordea, negar zuriaren kiratsa dario alde guztietatik.

Liburu hau erdiminez sortu ote?

Hasieran Txalapartan argitaratzekoa zen. Gari Berasaluzerekin, ustez, bideratua neukan dena. Bien bitartean, *Nafarkarian* idazten segitzen nuen. Tarte horretan, Eduardo Gil Berak idatzi zidan gutun bat, *Egunkari*koek idazteko eskatu eta argitaratzen ez zioten artikululu baten berri emanez. Irakurri nuen, eta kasik bat nentorren artikuluekin. Ez nion inolako grabedaderik harrapatu, ez publikatzeko. Neure artean pentsatu nuen: “Hau ezin diat hola utzi, hau keinu ttiki bat bezala duk”. Eta *Nafarkariara* bidali nuen bi puskatan. Aurrenekoa atera zidaten, tranpatxo batekin, baina, bigarrean, “et! et!...” esan nien, eta segituan isiltasuna adoratzera bidali ninduten.

Eta?

Txalapartako Gariri esan nion, *Nafarkariatik* bota nindutenez gero, falta ziren artikululu pizarrak sartu, eta denak ateratzea zela egokiena. Baiezkoan gelditu ginen. Baina, liburuaren *Apologoa* zela-eta, laster iritsi zitzaidan zentsura kontua Durangotik bueltan, atzera botatzeko agindu eman ziotela *Egunkariatik*. Hura nire amorrizioa, lehenaz gain. Orduan egin nuen erregu: “Ospa pistolapeko esklabo tarte honetatik!”.

Urtebete luzean horrela, eta gero Erein argitalexean zentsura arazoak berriz ere: huskeria batzuk, baina min-

garriak. Garbi esanen dut, txiripa bategatik atera da liburu hau Ereinen, eta Iñaki Aldekoaren botoagatik balitz, oraindik zokoan zegokeen. Gainera, nik uste nuen Iñaki Aldekoa literaturaz gustu puska bazuen editorea zela, eta, batez ere, horretarako zegoela Ereinen, baina, ohartu naiz azkenean diruzain hutsa dela. Putreak baino okerragoa da euskal literaturaren itzalpean dabilen jendaje hau dena, eta zoztorrik ez zaio inporta literatura. Pamiela da nik inoiz sosik eskatu eta kobratu ez dudana etxe bakarra, eta inolako istilurik izan ez dudana, eta beti poztuko naiz horretaz.

Gaitzetsia sentitzen zara orduan?

Ez, ez, lasai. Ni ez naiz auzora negar kontari abiatuko. Horixe da neure urguilu tonto bakarra: “euskañol txulotuok” baino euskaldun zintzoagotzat daukadala nire burua. Liburuan zehar, tarteka, eta azkeneko *Apologoan* bereziki, azaltzen da erresumin hori. Gordeko banu, txoil aberastu eta miserabletuko bainintzake ni ere.

Hitzaurrea Mikel Olanok egin dizu.

Bai, Mikel donostiarra da, filologoa; eta ni filologoen aurkaria. Ni herri hizkera bizitik natorrena, eta Mikel paper politetik. Elkarrekiko espak ageri dira hor, donostiar baten estilora disimulatuak. Nik konprenitzen dut, baina Mikelek ez nau sekula konprenituko ni. Goizuetatik Donostia ikusten baita; Donostiatik Goizueta ez. Hori da zinezko euskaldunon bentajatako bat. Den dena ere ez dugu kontra, ez pentsa!

Voltaire, Bitoriano Gandiaga eta Joseba Sarrionandiaren aipuak paratu dituzu liburuaren sarreran.

Aipuak, artikulua bakoitzaren sarreran ere sartu ditut franko, irakurle motelentzako ziztagarri gisan edo. Liburuarekin hasi eta argitaratu arterainoko bide luzean leitu ditudan gustuko idazle batzuen pasarteak dira. Badira,

Montaigne, Herodoto, Horazio, Hölderlin, Nietzsche, Baroja, Orixe, Andima eta beste askoren aipuak ere, tarteka. Beste asko Gil Berarenak eta Sarrirenak dira. Tunel luze honetan, inork ez bezalako kategoria erakutsi baitit Sarrik. Hori eta gehiago ere zor nion.

Nola atzeman duzu Lagun Izoztua bere lehen eleberria?

Betiko Sarri dago liburu horretan. *Izuen gordelekue-tan barrena* hasi eta geroko bere poesigintza guzian narmentzen diren arantzak ageri dira tarteka. Maitemin ezin haragitua: hori da Sarri, eta hori da nonahiko eta betiko poeta. Nobela edo narrazio, berdin dio, barrenbarrengo poeta ateratzen zaio beti Sarriri. Honetan ere baditu pasarte zoragarriak, asko; nola esaten du bada...: “Flotean dagoen guztiak antinaturala dirudi. Kortxoak, egurrak, botila hutsak, naturalki dena hondora jausten baita”. Zer metaforaren ederra, euskal demokrazia ustel honetan flotean dabilen edozeinentzako. Edo psikologo-en antzutasuna salatzen dueneko hura:”Izen bat eman nahi diozu, izen hutsarekin gaitza sendatuko duzulakoan”. Edo mapei buruzkoa, edo beste mila pasarte zoragarri.

Behinola, Bernardo Atxaga, literaturaren monarkikotzat jo zuten, literaturarekin duen konpromisoa kritikatu. Berak, berriz, literaturaren esparruan betiere, Sarri aristokrata-gotzat jotzen zuen.

Alfer alferrik da elkarren teman ibiltzea, interes politiko-komertzialen gaintik gustu kontua dago, izaera kontua. Literatura funtsean bizio pertsonala da. Eta Atxaga eta Sarri, izaeraz eta esperientziaz guztiz desberdinak dira. Niretzako Sarriren bizimina, askoz nobleagoa da, finagoa. Atxagak askoz artifizio gehiago du, eta hori nabaritu egiten da. Koldo Izagirrek ere Sarrik baino askoz artifizio gehiago du, eta konpromiso sozial nabarian, inor izatekotan, Izagirre dabil, Aitzolen diszipulu gisan edo.

Bertsolariekin ere zorrotz segitzen duzu. Andoni Egañarekin eta, funtzionarioak direla-eta...

Andoni Egañaren posea bertsolaritzan, Bernardo Atxagarena literaturan bezalatsu ikusten dut. Zinez harritu egin nintzen “funtzionario kontu” hura, zeinek eta Egañak gaizki hartzea. Horrek erakusten du ederki, gure artean zentzu kritikoa zenbat moteldu den. Galdera oso sinplea da: “Zein bertsolari ari da gaurko merkatuan, bere grinez libreki bertsotan?”. Inor ez. Denak aurretik antolatua dagoen sare ofizial baten zerbitzuan ari dira. Gizonaren bihotza ez zen merkatuan saltzeko egin: edo zaintzen duzu edo publikoari saltzen diozu. Ez dago beste biderik.

Nietzsche gugana ezinean artikuluan Joxe Azurmendiri kritika zorrotzak egiten dizkiozu. Bakarrik Gil Bera salbatzen al da?

Zarpail samar bai, baina, nahi duenak ulertzeko moduan. Ez dut deus Joxeren kontra. Gehienak okerra-goak dira gure artean. Baina, euskal apaiz laikotu iraultzaileok badute halako zera bat. Esate bateko, askoz meritu handiagoa du niretzako, Orixek jesuiten barren-go hierarkiaren aurka erakutsi zuen tinkotasunak. Eta nork edertu du Miranderen mina, Gil Berak egin duen indar biziarekin? Gure artean inork ezin izan du sortu *La Ahijada (Haur besoetakoa)* ikaragarri hori. Itsua behar du, hori ez ikusteko, edo miserablea ez ikusiarena egiteko. Eta hor ari da Txomin Peillen bera, argazkia dela, traizioa dela, isildu gabe. Ez genuke nahasi behar ordea, gorputz desegin batekiko erruki zikinetik bizi dena, eta haren arima bizia erakutsi nahian galtzen dena

KOADROA

**“Lurra da niretzat lehenbiziko liburua,
beti hankapean zabalik dugun liburua”**

Goizuetarra zara izatez. Nerabezaroaz geroztik, berriz, Leitzan bizi zara. “Trapuan pupua” liburuan petxero eta hidalgo kontuak aipatzen dituzu bi herriak nahastuz. Petxero ote dugu Patziku?

Leitza kalea da, hiriaren sinbologia du niretzat. Goizuetak berriz, basoaren sinbologia, eta ni erabat basoaren aldekoa naiz, Leitzan ere, kalean baino gehiago basoan bizitua. Nire bihotza basokoa dela uste dut, han gozatzen baita beste inon ez bezala. Leitza hidalgo konplexu izugarria duen zuri-herria da, bere tamainatsuko gehienak bezala; hagitz entretenituak izaten dira Iruñea eta Donostia aldetik “leitzarrismoa” egitera etortzen diren burges ttikion ibilerak eta espak, eta horien arrimura biltzen direnen artekoak. Goizuetari beste inozentzia bat nabari zaio oraindik: larrejende sinesgaitz horren bizitasun sano eta argia, baina, zorigaitzez, han ere asko ari da galtzen.

Lurrari buruzko aipamen asko ageri da liburuan.

Lurrarekiko harremana ez dut egundo galdu. Lurra da nire lehenbiziko liburua, beti hankapean daukagun libururik zaharrena eta zintzoena. Orain oso modan dago “*ciudadano del mundo*” izate hori, baina herrixka batean jaio izateak bihotzari halako erro sakon batzuk ematen dizkio, eta erro horiek galtzen dituenak, esan liteke abereak baino beherago bukatzen duela azkenean.

Uraren soinua aditzen ere segitzen duzu?

Uraren eta haizearen sinfonia dira nik inoiz entzun ditudan sinfoniarik guztizkoenak, horiek ez dizkizu inork plagiatuko. Zorionez, Leitzan ni bizi naizen etxea

joaz pasatzen da Gorriztaran erreka, eta negu minean ezin dut leihorik ireki, baina hotzik handienak pasatzean, leihoa irekita, uraren sinfonia adituz hartzen nau loak.

Zer berri da "harripilatan ezkututzen zeneko apo tipi" hartaz?

Oraindik ere, edozeinekin hizketan hasi eta ohar-tzen naiz, burutik bihotzera dabilzkidan ideiak mingainean galdu egiten zaizkidala. Frustrazio horregatik hasi nintzen idazten. Neure burua engainatu nuen orduan, hitza letra bihurtuz neure sentiera arrotz hura adieraztera iritsiko nintzelakoan, baina, ezina gero eta nabariago sumatzen dut. Literatura horixe da: minaren esan ezina, ezin esanaren mina, Orixek hain ederki esan bezala.

2002/maiatza

JON ALONSO

“Literatura arkeologia izateko bidean
egon daiteke”

Liburu bat ezean, bi ditugu hizpide oraingoan. *Agur, Darwin, eta beste arkeologia batzuk* saioa eta *Euskal Karma* eleberria, Jon Alonso idazlearenak. Saioa 2001eko Juan Zelaia Sariaren irabazlea izan zen, Pamielak argitaratua. Eleberria, berriz, Susak kaleratua da.

Berandu plazaratutako idazle ote den bota diogu supituki Jon Alonso iruindarrari:”Hogeita hamazazpi urte nituen lehendabiziko liburua argitaratu nuenean, ez dakit berandu ote den. Niri beste idazle batzuek goizegi argitaratu dutela iruditzen zait. Badago jende oso gazteari liburuak eta liburuak eskatzeko joera. Ez dago gaizki ere, baldin gazte horrek liburua zinez idatzi nahi badu. Baina, bestela, nire adina ez dut txarra zenik uste ere”.

Saiakerak eta eleberriak tartekatzen dira Jon Alonsoren literatur ibilbidean. “Idiaren eraman handia” saioa eta *Katebegi galdua* nobela, baita genero hibrido gisara paratua ere, *Camembert helburu* saio nobelatua, kasu. Iazko amaieran, garai berean, *Agur, Darwin, eta beste arkeologia batzuk* saioa, eta, *Euskal Karma* eleberriak plazaratu zituen.

Genero bakoitzak liburu bat, baina liburu biak osagarriak.

Elkarren osagarriak direla esaten dut nik ere bai. Azken urte hauetan eduki ditudan kezka eta egindako gogoetak paratu ditut. Nahiz tratamendu diferentea izan duten, bi liburuek gai komuna-edo agertzen dute.

Saiakera generoak aurreiritziak jaso ohi ditu: genero aspergarria dela, "roiloa" dela-edo.

Alde batetik, egia da, ongi irabazitako fama hori du saiakerak. Izan ere, idazle batzuek nolabait, espezialisten arteko dialogo gisa erabiltzen dute saiakera, edo munduari erakusteko zein jakintsuak diren. Beraz, alde horretatik merezi du fama txar hori. Horregatik, nire gusturako, saiakera izanda ere, ahaleginak egin behar ditugu atsegina izan dadin.

Bi liburuetan, bi eratara, literatura duzu gaia eta abiapuntu. Zein xedetan?

Euskal literaturari buruzko gogoeta bat egitea izan dut helburu. Azkeneko urteotan literaturari buruzko hainbat iritzi zabaldu da gure eremuan, eta orduan, nik, neure apalean, nirea egin dut. Euskal literaturari buruzkoa bada ere, ez da bakarrik euskal literaturari buruzkoa, literaturari berari buruzkoa baizik. Hori azpimarratu nahi dut. Beste batzuek gogoeta hori egin izan dutenean euskal literaturari bakarrik begiratu baitiote. Eta ez da hori bakarrik begiratu behar nire ustez, baizik literatura orokorrean.

Arkeologia al da literatura?

Liburuan dagoen gakoetako bat hori da. Literatura gaur egun arkeologia dela esatea oso gogorra egiten zait, baina horren gogor esan gabe, badugu nahiko datu arkeologia bihurtzen ari ote den susmatzen hasteko, edo laster bihurtuko ez ote den, bederen. Hori da nire gogoeta. Hain zuzen ere, euskal literatura ona edo txarra

den eztabaida izan denez, nik hortik abiatu nahi izan dut gogoeta. Horretarako jakin behar dugu zein diren literatura onaren ezaugarriak. Kanon esaten zaion horren barruko liburua izateko, bi ezaugarri aurkitzen ditugu batez ere: batetik, orijinala izatea, eta unibertsala bestetik. Orijinaltasunaz nahiko eztabaidatu da joan deneko urteetan. Eztabaidaren aitzindaria Atxagaren *Obabakoak* obraren inguruan sortutakoa izan zen, plagioari buruzkoa. Harrezkero, ordea, orijinaltasunaren kontzeptu hori nahiko erlatiboa bilakatu da, ez da uste genuen bezain erabatekoa, nolabait esanda, kili-kolo gelditu ote den irudipena daukat.

Bigarren ezaugarria, unibertsaltasunari buruzkoa, kolokan jartzeko moduko balore bat dela diozu?

Unibertsaltasuna esaten denean, ideologiaz aritzen da gehienbat, eta batez ere, alderdi humanoaz aritzen da, baina genetikaren aldetik datozen aldakuntzak direla-eta, poliki-poliki ikusten ari gara, humano izate hori posible dela beste modu batekoa izatea, garai hori uste baino lehenago irits litekeela, alegia.

Horren ondoren, literatura onaren ezaugarri nagusiak orijinaltasuna eta unibertsaltasuna izanik, biak kolokan izanda ere, benetan kolokan dagoena literatura bera da, eta ez soilik euskal literatura, baizik literatura bera.

Literatura betidanik izan dituen funtzio batzuk galtzen ari dela esan genezake, eta galtzen ari da, literaturak lehia handia duelako beste komunikabideekin edo beste eragileekin. Orduan, poliki-poliki, geratzen ari zaion funtzioa lekukotasuna ematearena da, alde horretatik diot, arkeologia izateko bidean egon daitekeela. Alegia, liburu bat idazten ari zara eta harrizko aizkora bat lurperatzen ari ote zaren inpresioa izan dezakezu, edo nik halakoa izaten dut behintzat.

Euskal hitzen formez baino euskal hitzen esanahi zehatzez arduratuta zaude, bestalde.

Bai, horixe da kontua. Literatura arkeologia denaren ondoriora iritsi bagara, “eszenatoki” (modaz dagoen hitz hori erabiliz) hori onartuz gero, hauxe da galdera: “Euskal literatura zein kondiziotan iristen da “eszenatoki horretara?”. Erantzuna da euskal literatura literatur hizkuntza normaldu gabe iristen dela literatura izatera, dagoeneko, arkeologia den “eszenatoki” horretara.

Literatur hizkuntza normalduta ez egote horren zantzuak askotxo izan daitezke, baina nik bat aipatzen dut: hiztegi baten falta. Gaur egun dugun gaitzik larriena. Niri hitzen esanahia ezagutzea interesatzen zait, eta ez hainbeste “tz”z, “h”z edo “j”z idatzi behar ote den. Ni hitzen esanahi zehatza jakin beharrean bainago. Horrek eragiten dio irakurketa prozesuari nire ustez. Jendeak ez duela euskaraz irakurtzen kexatzen gara, baina, batzutan, baldin eta ez badakizu benetan hitz batek zer esan nahi duen, oso zaila da irakurtzea.

Hitzen ondoeza bizi dugu.

Hori da. Hiztegi arau emailerik ez dugu, eta oraindik ere funtzionatzen ari gara duela 50 urte eta 100 urteko hiztegiekin, Plazido Mujika eta Azkueren hiztegiarekin, kasu. Nahiz aspaldikoak izan, operatiboak dira, erabiltzen ditugu, hori da gure arazo handienetako bat.

Bestalde, Euskal Karma nobelari Rapsodia ipini diozu azpian. Zergatik?

Titulutik beretik asmo ironiko bat agertu nahi izan dut. Literaturan beti ibiltzen gara generoen arteko bereizketa egiten eta eztabaidatzen, hau da, liburu bakoitza zein generotakoa den, bere definizioa eman nahian, bere ezaugarriak zein diren bilatu nahian... Badago, joera kritiko eta teoriko bat, biak bereizi aldera, eta bestalde,

badago generoa bereiztea zentzurik ez duela dioen beste joera bat. Nik broma bat egin dut horrekin. Rapsodia –hiztegiak dioenez– beste idatziekin egiten den pastichea da. Liburu honi azpтитulu hori egokitu zaio, halako ukitu bat duelakoan.

Agur Darwin saiak eraren gaia nobelatua al da, ausaz?

Agur Darwin en dauden arazoak edo gogoetak egiten nituelarik, serio itxuran-edo, bere lehorrean, aldi berean horri guztiari bazegoela beste forma bat ematea pentsatu nuen, arrazoitu gabe, elementu narratiboak sortuz eta sartuz, liburu esperpentikoa edo parodia bat sornezakeela bururatu zitzaidan.

Berean ere kanonaren gaia erabiltzen duzu.

Kanona, narrazioa edo akzioa abiarazteko aitzakia besterik ez da. Kanona behar ote den baino, nik orijinaltasunari buruzko eztabaida neukan buruan. Euskal literaturaren barruan eztabaida horretan parte hartu badugu ere –arestian esan bezala–, anar-tean, AEBetan ere sortuzen eztabaida hori. Euskaraz ez dut aztarnarik aurkitu eztabaida berari buruz, ordea. Eztabaida hori gaztelaniaz eza-gutu dut. Hori aitzakiatzat hartuta abiatu nuen eleberria, baina kanonaren –behar den edo ez– gaian sartu gabe.

Euskal Karma irakurri ondoren, euskaldunok euskararekin patologia moduko bat bizi ote dugun nago.

Patologia hitza sobera fuertea da. Euskararen alor guztietan hori bizi dugula esatea gehiegitxo da, baina literaturaren eremuan badago patologia moduko bat, arazo bat. Adibidez, hizkuntza literarioa ez dela erabat normalizatua diogu, eta hori fenomeno honen adierazgarria da. Esate baterako, liburu baten elkarrizketak hartzen ditugunean, hizkuntza sendoek dialogo-en akotazioetan aditz jakin batzuk erabiltzen dituzte, modu jakin batean erabiltzen diren aditz lokuzio batzuk, kasu, badute

dialogoak akotatzeko sistema oso bat. Hizkuntza jakin horietako irakurleak batere zalantzan jarri gabe irakurtzen ditu elkarrizketa horiek, dialogoak akotatzeko modu horiek, ohituraren poderioz funtzio bat dutelako, nahiz eta irakurleak, beharbada, horretaz ez diren horren kontziente.

Adibidez?

Gaztelaniazko irakurleak *musitó, mascullo, prorrumpió, inquirió*, hitzak ez ditu erabiltzen eguneroko jardun normal batean, sekula ez edo oso gutxitan erabiliko ditu, baina liburu baten dialogo batean normal irakurtzen ditu. Bestalde, adibidez, *fruncir el ceño* edo *encogerse de hombros* bezalako lokuzioak barra-barra erabiltzen ditu idazleak inolako arazorik gabe. Euskarara pasatzen zara, eta holakoak erabiltzen badituzu dena problemak dira. Adibidez, otutzen zaizu “ihardetsi” erabiltzea “erantzun” hitzaren partez, eta bat hasiko da bere baitan: “Hau ez dut ezagutzen”. Beste bat, berriz: “Hitz hori nola da, ‘h-z’ edo ‘j-z?’ Zergatik ‘h-z’ eta ez ‘j-z?’ Ihardun hitzetik badator, zergatik ez ‘h-z’”. Beste batek esango dizu: “Nola arraio idatz dezakegu ‘ihardetsi’ Gipuzkoako Goierri gertatzen den nobela batean? Goierri ez da sekula horrela esan”. Beste hizkuntza batean ez da hori gertatzen, euskaraz baina, gertatzen da. Patologia den edo ez den, ez dakit, baina hori traba bat da liburua egiteko eta irakurtzeko

KOADROA

“Irakurketa egitean osatzen da literatur ekimena,
bestela ez dago literaturarik”

Nafarroako administrazioan ari zara itzultzaile lanetan. Idazle gisa, berriz, zure tokia egiten ari zara euskal literaturan. Idazle gisara aritzeak zertan laguntzen dizu?

Bizitzen laguntzen didala esan ohi dut. Ez dut uste idatzi gabe burutik larri ibiliko nintzenik –edo batek daki zer den gaizki egotea– baina horixe laguntzen didala bizitzen, nire burua argitzen, nik neuk ikasten... Itzultzaile gisa lan sistematiko baten barruan ari naiz, eta idaztean, berriz, buruan izaten ditudan kezka lasaitzen ditut nire baitan.

Eleberria rapsodia gisara idaztean zer bilatu duzu?

Gerrikoa askatuta idatzi nahi nuen alde batetik, eta aldi berean, posible den neurrian, irri egitea, irakurlearen konplizitatearekin, jakina. Ni irakurlea naiz, eta literatur jarduna irakurleak irakurtzen duenean osatzen da. Irakurketa egitean osatzen da literatur ekimena, bestela ez dago literaturarik.

Pergutada edota afrusa hitzak, kasu, erabili dituzu.

Asisko Urmenetaren liburuxketan agertzen dira –Asisko laguna dut eta lagundu diot liburua egiten– eta lotsagabe tartekatu ditut eleberrian. Belaunaldi berria hitz horiek askatasunez erabil ditzaten gonbidatu nahi dugu, hizkuntza honetan irri egin dezaten, ahal bada metaforak sortuz. Lokuzioak asmatzen eta memento jakin batean erabiltzen badira, arrakastatsuak izan daitezke. Euskarak aurrera egiteko metaforak eta testuinguruak behar ditu, bestela galduz joango da.

Koldo Mitxoleta, Guebokinder Artximandrita edota Bribon Parasola pertsonaien izenak direla-eta, haserretu al zaizu inor?

Ez dut uste inor haserretu denik. Broma inozoak dira, ez da inoren kontra joatea, ez amorruez ez minik egin nahian, Badago ironia puntu bat, eztenkada moduan, eztenkadak onartzen ikasi behar dugu.

Polemika pixka bat behar ote du euskal literaturak?

Polemika behar da, baina ez gaiztoa, herra edo odol gaiztoa sortu dezakeen polemika. Hitz egitea eta eztabai-datzea ona da, tonu polemikoan ere bai, baina garraztasunik gabe, askotan sortzen den garraztasunik gabe.

2002/maiatza

ANJEL LERTXUNDI

“Idazle baten konpromisoa bere obra da”

Zarautzen bizi den idazle honen obran, narrazioak gailentzen dira azken hamar urteetan. Literatur emaitza hauek gauzatu bitartean baina, literaturaz hausnartzeko pausatu da idazlea. *Mentura dugun artean* saiakera (Alberdania) pausaleku horren emaria da.

Mentura dugun artean” liburua Claudio Rodríguez *in memoriam* eskaintzarekin hasten da. 1999an zendu zen Zamorako Claudio Rodríguez poeta. Urte asko dira Orioko idazleak poeta zamorarra ezagutu zuela. Adis-kidantza polita landu zuen berarekin: literaturaz, ardoaz edota, oro har, bizitzari buruzko solasaldi asko izan omen zuten elkarrekin: “Poeta eta lagun handia izan zen niretzat. Sarrerako eskaintza omenaldi txiki bat da, ez bakarrik nik ezagutu nuelako, baizik eta Euskal Herriko beste hainbat idazlerekin ere harremanak izan zituelako; Mikel Lasarekin, kasu. Claudiok, aukera zuen bakoitzean, Espainiako Hizkuntza Akademian edota bere kasa parte hartzen zuen ekimenetan, euskal literaturaren eta euskal poeten alde ahalegintzen zen”. Anjel Lertxundi, berriz, literaturaz hausnarketa egiten ahalegindu da bere azken liburuan.

Non edo nola kokatzen duzu liburu hau zure ibilbide literarioan? Zer da berau?

Aurre kalkulu handirik gabeko liburu bat da. Irakurritako, pentsatutako eta idatzitako gauzez ohar askotxo nuen. Inoiz sorkuntza lanetan ari zara, eta behin batean, halako egunkari batean, horretaz idatzi zenuela gogoratzen zara. Orduan, idazki haren erabilera egiten duzu. Hala izanik ere, niri ez zaizkit gustatzen kazetaritzan argitaratutako lanak eta bildumak, besterik gabe, liburu literario gisan agertzea. Liburu batek lanketa berezi bat eskatzen duela pentsatzen dut, kazeta batek ematen ez duen lana exijitzen du. Hau da, formatu bakoitzak bere legeak ditu. Orduan, kasu honetan, pixkanaka-pixkanaka, bilduak nituen materialak eta esku artean nituen argitaratu gabeko oharrak eta testuak taxutzen eta osatzen eta lotzen joan nintzen –niretzat, literatura muturreko hainbat gauza lotzeko eta erlazionatzeko abilitatea ere bai baita– eta ia-ia, berez osatuz joan den emaitza bat da. “Mentura dugun artean” saiakera, azken hamar urteotako nire esperientzia literarioaren hausnarketaren zati handi bat dela esan daiteke.

Kazetaritza eta literatur hizkuntzak gero eta hurbilago omen daude elkarrengandik. Biak bereiztearen beharra aipatzen da. Iritzi horretakoa al zara?

Bi kontu ezberdinak daude hor: idazkera eta generoa. Sarritan, idazkeraren aldetik, eleberri bat irakurtzen ari gara eta ez dakigu erreportaje luze bat irakurtzen ari ote garen. Generoarena beste gauza bat da. Alegia, prentsarako iritzi artikulua bat eta saio literario bat bi gauza desberdin dira. Hori azpimarratu nahi dut. Nik saio literarioa egin nahi nuen, eta saio literarioak prentsak ematen ez dituen baldintza batzuk eskatu dizkit. Hori da lehenbiziko ezaugarria, prentsak askoz lehenago agortzen eta azkarrago erretzen baititu material horiek,

saio literario batek suntsigarritasun horri eutsi egin behar dio, nolabait.

Zentzu hertsian harturik, haurtzarora bidaiatu duzu, baita geografikoki ere. Saioa izanagatik literatura egin duzu, xarma literario bat eskaini duzu.

Askotan, entsegua eta pentsamendua eleberrian integratzeaz hitz egiten dugu; horrelako eleberri mordo bat egin da. Alderantzizko bidaia gutxiago egin da, ordea, narrazioa saiora ekartzea, alegia. Nik halako saio bat egin dut, narratiba entseguan integratzeko saio bat burutu dut, entseguren lagungarri eta entseguren literaturtasunaren alde desberdinak erakuste aldera, nolabait. Uste dut, kasu honetan behintzat, ekarpen horrek mesede egiten diola liburuari.

Literaturarako eremu konkretu bat aldarrikatzen duzu. Letren errepublikaren eremu horretan maxima bat gailentzen da: munduaz pentsatu mundua pentsatzeko?

Sorkuntza lan orok inguratzen gaituen mundua bereganatu behar du; idazleak, inguratzen gaituen errealtate hori hartu eta dituen armekin –bere baliabideak, ahalmenak, jakinduria eta ezagutzak– bere artegintzan murgildu eta mundu hori azaltzen ahalegindu behar du. Mundu hori esplikatzen ahalegintzen den neurrian, mundu ulergarriago edo eskuragarriago bat eskainiko du. Hori da idazle batek duen konpromiso nagusia, idazle baten konpromisoa bere obra da.

Horrek ez du esan nahi, idazle horrek, hiritar den aldetik, beste konpromiso batzuk ez dituenik, eta ez du esan nahi ezta ere bere obrarekin duen konpromisoa medio gizartearekin konprometitzen ez denik. Baina konprometituko da bera bere obrarekin konprometitzen den neurrian. Haratago joan daitekeen beste konpromiso batzuetara iritsiko da, bere lana ahalik eta serioen egiten duen neurrian.

Aurreko maxima horrekin batera topiko bat: “dena esana dago”.

“Dena esana dago” hori egia balitz, alferrik ariko ginbateke guztiok, beti ari gara zerbait berria esatearen esperantzan. Horrek ez du esan nahi beti zerbait berria esaten asmatuko dugunik, baina esperantza horretan ari gara. Adibidez: Auschwitzten ondoren ez zela posible poesia egitea zioen Adornok. Lehenago ere, Boccaccio hil zenean, halaxe esaten zen. Antzeko zerbait esan zuen Hölderlinek. Gorabehera berdinak azaltzen zaizkigu betiere, baina poesiak iraun egin du eta poesia eder asko egin da, bai Boccaccio hil ondoren baita Auschwitzten ondoren ere.

Maxima eta topiko baten ostean, gomendio bat: Har dezagun hitza zuhurtziaz...

...edo beste modu batez esanda, hitza bilakatu daiteke traidore. Baina, hori esaten dudanean ez dut hainbeste horregatik esaten, hau da, hitzak traizionatu gaitza-keelako, aitzitik, guk hitza traizionatu egiten dugulako baizik.

Non edo nola kokatuko zenuke liburua hau euskal literaturan?

Nire ibilbide literarioaren barruko hausnarketa bat bezala kokatzen dut, baita euskal literaturako alderdi batzuek egindako hausnarketa bat bezala ere. Liburuan agerturiko hainbat hausnarketen premian gaude, ez hainbeste obra baten hausnarketa baten premian, baizik eta literaturaren beraren hausnarketa orokor batenaz. Esaterako, aurrera goaz, baina gera gaitezen paisaiaz gozatzeko edo paisaia badagoen ikusteko, eta gera gaitezen hausnarketa pixka bat egin dezagun.

Alderdi horretatik, liburua pausaleku baten moduan ikusten dut euskal literaturaren barnean, hortxe kokatzen dut. Hau da, idazle jakin bat, kasu honetan ni, niri

interesatzen zaizkidan hainbat gauzei buruzko hausnarketa egiteko gelditu egin naiz bide ertzean, sosegu pixka bat hartze aldera.

Hausnarketa horretan, besteak beste, lanaldia eta aisia aipatzen dituzu, modernitatearen erronka. Nola bizi dituzu zuk zeuk berauek?

Gogoratzen dut, txikitan, irakurtzea denbora galdutzat jotzen zela gure gizartean, eta nik neuk denbora gehiegi ematen nuenean irakurtzen, etxeko norbaitek esaten zidan: “Ea mugi, zerbait egin behar duzu”. Irakurtzea ez zen “zerbait egitea”. Heziketa horrek eraginda, oraintsu arte ere, egun osoa pasatzen banuen irakurtzen, ezertxo egin ez izanaren sentsazioarekin bukatzen nuen eguna, zerbait praktikoago egin ez izanaren sentsazioarekin, nolabait.

Horren kontra-edo, denbora erre beharra dagoela ematen du: orduak eta orduak jardun zerbaitetan, lanetik irten eta footing egiten jardun beharra, eta, horren ondoren, Interneten orduak pasatu beharra. Alegia, inolako tarterik edo betarik gabe jardun, bost segundo gelditu gabe esateko: zertan ari naiz? Gure gizarteak kontenplaziorako dohain hori erabat galdu du –edo galdua dugu– eta beharbada, irakurketa da gelditzen zaigun alor gutxienetakoa bat kontenplaziorako. Irakurleak gutxienez liburuaren bidez –poema baten bidez, esaterako– bere espiritua prestatu egiten du kontenplaziorako, eta zorabiozko gure mundu moderno honetan, niri behintzat, inportantea iruditzen zait, kontenplaziorako gaitasun minimo bat gordetzen ahalegintzea.

Literatura burtsa bailitzan ere irudikatu duzu. Zaila al da, hartara, literatura bere horretan ekimen askatzaile izatea?

Literatura gutxi batzuen ekimena da, idazleak gutxi gara, gutxi dira irakurleak. Finean, gu idazleok zerbait baldin gara horixe gara, irakurle amorratuak, eta honek,

nolabait, irakurtzen ditugun idazleen antzeko zerbait idazteko gai garen edo ez garen erakustera eraman gaitu. Eta, neurri batean behintzat, lan horretan jarri garelako gara idazle; honek dena esplikatzen ez badu ere. Beraz, idazlearen jokabidea muga horietan kokatu beharra dago, eta ez dut uste onik egiten dionik idazlearen jokabideari muga horietatik bere ekintza estrapolatzea. Literaturak eragin baldin badezake, maila pertsonalean eragin dezake, literaturak eragin badezake irakurlearen barne muinetan eragin dezake, baina eragiten duenean, eragiten duen bakarra galdera da. Literaturak nekez ematen ditu erantzunak, eta zerbaitetan askatzailea izatekotan, horretantxe da, galderak egiteko gaitasunean.

Azkenik, arestian aipaturiko “haratago joan daitekeen konpromisoaren bidean”, askatasuna helmuga eta abiapuntu gisara errebindikatzen duzu, menturaz.

Gizarte bat solidaritatea, justizia eta askatasuna errebindikatzen ari denean, baina solidaritatea, justizia eta askatasunik praktikatu gabe, ez dut uste errebindikapen horiek lortzerik daukanik. Abiapuntua eta helmuga bera dira justizia, solidaritatea eta askatasuna. Abiapuntuak eta helmugak biek bat egiten dute baloreen gorabeheretan, nire ustez, abiapuntua eta helmuga ezin dira bereizi. Askatasuna askatasunez sortzen da.

KOADROA

“Idazle profesionala naiz, idaztea
profesioa izan gabe”

Irudika dezagun, une batez, euskal literatura pintura baten gisara. Nola ikusten du Anjel Lertxundi idazleak bere burua margo horren barnean?

Galdera zail samarra da, erantzuteko poesia egin beharko bainuke. Demagun, egunero itsas aurretik ibiltzen naizelako eta itsasoaz gozatzeko aukera dudalako, itsasoak dituen urdin ugari horiek, urdinaren ugaritasun horretan –urdin-berde-gris-urre– dagoen aberastasun eta aniztasun hori, ikusten ditudala: horiek nahi nituzke agertu euskal literaturan, eta halaxe irudikatu nahi nuke neure burua ere bertan.

Poesia idatzi gabe bere poetika erdietsi duen idazlea zara, agian?

Zeuk diozu: agian. Ahalegin handia egin dut, behintzat, neure poetika bat sortzen edo itxuratzen. Memento honetan, irakurle batek nire liburu bat zabaltzen duenerako –nahiz eta liburuak arras ezberdinak izan– nire estiloa, nire jarduteko modua berehala identifikatzen duela uste dut. Nire azken liburuetan batez ere badaude, nolabait, poetika baten zantzuak. Eta hori inportantea iruditzen zait.

Zergatik ez duzu poesia idatzi, ordea?

Ziur asko, nire temperamentu kognitiboa eta nire prozedura mentalak narratiboak direlako poetikoak baino. Eta jokabide horietan edozein ideia bururatzen zaidanean, ideiak literarioki abian jartzen ditudanean, berehala espazio eta denbora batean kokatzen ditut, hau da, narratzen hasten naiz. Zer egingo diogu, bada? Nire pertzepzio literarioa, nolabait, gehiago da narratiboa poetikoa baino, nahiz eta poetika bat lantzen ahalegintzen naizen.

Nola idazten du Anjel Lertxundik, errito gisara, apika?

Nik esan ohi dut, idazle bat bere lanetik biziko ez baldin bada ere –eta euskal literaturan gehienok ez gara lan honetatik bizi– lan honetatik biziko balitz bezala lan egin behar duela, seriotasun guztiz. Orduan, nire idazteko

modua, nolabait, modu diziplinatu bat da, ordu dezente eskatzen duena. Nik neronek ordu asko eskaintzen diot idazteari, nahiz eta ordu horiek askotan etekin handirik ematen ez duten. Nire idazle lanaren ezaugarrietako bat diziplina dela esango nuke. Idazle profesionala naiz, idaztea profesioa izan gabe.

2002/iraila

JOXE MANUEL ODRIOZOLA

“Euskal auzia erabat unibertsa da”

Joxe Manuel Odriozolak euskal intelektualen iritziak eta euskaltasunari buruzko auzia aztertu ditu *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak* liburuan. Saio honek 2001eko Juan Zelaia Sariaren aipamen berezia jaso zuen. Pamielak argitaratua da.

Joxe Manuel Odriozola Altzon jaio zen 1948an, eta Pasaiako Udal euskaltegiko irakaslea da egun. Saiogile eta artikulugile ezaguna da euskaltzaleen artean, izan ere, sari ugari irabazi du dagoeneko. Gizarte, kultura eta hizkuntz gaiak jorratu ditu bereziki. Oraingoan, “Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak” hizpide izan ditu. “Intelligentsia” hitza zehaztetik abiatu gara:”Lehenik ere erabilia izan da hitz hau, Paulo Iztuetak badu liburu bat euskal intelligentsiaren inguruan. Paulok baina, Orixe eta beste garai bateko intelektualak izan zituen gogoan, nik, berriz, oraingoak izan ditut hizpide. Kontzeptu hau oso zabala da, eta ez du, nahitaez, intelektuala zentzu hertsian hartzen, euskalgintzan diharduten eragile guztiak bildu daitezke berean, andereñoak edota irakasleak, besteak beste. Ideologian, kulturari nahiz gainerako jardueretan ari diren eragileak barneratzen dira kontzeptu honetan”, argitu digu Odriozolak.

Zergatik Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak *liburua?*

Azken urteetan euskalgintzan diharduten intelektual hauen pentsaera edo ideologia aztertzeko materiala bildu dut handik eta hemendik, beren iritzi artikulua edo elkarrizketak, kasu. Intelektual hauetako batzuek beren berezko jardun kulturaletik aparte badute oihartzun handia, eta banuen berauek aurrez aurre jartzeko interesa zenbait gai polemiko alderatzeko edo kontrastatzeko, baita, aldi berean, nire aletxo ere jartzeko.

Hainbat intelektualen erredukzionismoa kritikatzeko duzu liburua. Zuri ere horixe leporatu zaizu. Erdaraz ari diren pentsalariak alboratu izana, kasu.

Egia da, kritika hori jaso dut. Hala ere, nik aukeratu ditudan denek ez dute euskaraz jarduten. Badira erdaraz diharduten batzuk ere, Javier Sadaba kasu. Euskal pentsamendua erdaraz ere sor daiteke, eta euskal pentsamendua den neurrian interesatzen zait. Hau da, Euskal Herriaren problematika konplexua da oso eta erdaraz ekoizten den pentsamendua ere konplexutasun hori interpretatzeko interesatzen zait, neurri horretan hartzen dut. Ez zait horregatik, ideologia dominatzailearen eskutik datorren pentsamendua interesatzen, niretzat ez baita euskal pentsamendua, nahiz hemen sortua izan, ideologia dominatzaile horren sorrera gunea edo izaera ez zait euskalduna iruditzen, ez zait interesatzen halaber, eguneroko jangaia dugulako. Euskal ikuspegia interesatzen zait eta bereziki euskaraz landua.

Saioa zazpi ataletan murriztu duzu: Espainia, estatu-nazioa, nazionalismoa, globalizazioa, euskal estatua, identitate eta euskara. Batek pentsa lezake indarkeria gaiak leku beharko lukeela.

Hori ere egia da. Baina liburua lehiaketa batean aurkeztu nuen eta 75 orrialde onartzen ziren gehienez.

Beraz, horren barruan justu eta larri ibili nintzen eta hainbat auzi kanpo utzi behar izan nuen.

Iritziak bi joeretan bereizten dituzu: euskal nortasuna sustatzeko kulturaren bidea jorratuz, egitura politikorik beharrezkotzat jotzen ez dutenenak eta euskal estatuaren beharra aldarrikatzen dutenenak.

Oso eztabaidagarria da nik ezarri dudan mugarri hori, baina, bestalde, ez da hain zaila intelektual hauen iritzietan hori hautematea. Alegia, batzuek kultur alorrari ematen diote lehentasuna eta horiek euskal kultura eta identitatearen sorkuntzan, Euskal Herriaren eraikuntzan autonomia kulturala lehenetsi dute nolabait. Ez dute politikarako marko bat arbuiatzen, baina, kulturari ez dagokiola berez marko politiko bat pentsatzen dute, nolabaiteko egitura politiko bat, alegia.

Alabaina, mundua estatuka banatua dago egun. Munduan dauden 6.000 hizkuntzak, kulturak edota nortasunak 200 estatutan banatuta daude, eta Euskal Herriaren arazoa horren barruan dago. Hau da, gaur egun 6.000 hizkuntza hiltorian baldin badaude, besteak beste, 200 estatu daudelako da. Beraz, botere gune nagusia eta bakarra estatua da, eta kultura hauen zoria eta hiltoria –zehatzago esanda– politikarik ezaren ondorioa da. Politikarik gabeko kultura folklorea dela esan izan da eta ez da gaizki esana, estaldurarik ez duen kultura etnikoak bere garapenerako ikaragarritzko mugak dituelako. Gainerakoan, beren garapen kulturalerako estaldura politikoa duten besteek aterpe bat dute, gaur gaurkoz estatu gisara antolatua.

Guk ezagutzen dugun estatu-nazioaren eredia totalitarioa da, Frantzia nahiz Espainia. Zu zeu ez zaude estatu-nazioa ereduaren aurka, ordea. Zehaztu iezaguzu zure jarrera?

Beno, estatu kontzeptuaren inguruan nahasmen handia dago gaur egun. Ez dakit guk euskaldun gisa termino

hau erabili beharko genukeen, beharbada ez! Estatu-nazioa edo nazio-estatu, beharbada, nazio anitza terminoaz osatu eta zehaztu beharko genuke. Bai Frantzia bai Espainia, berez, estatu anitzak dira, beren menpeko lurraldean nazio asko daudelako. Baina totalitarioak dira gainontzeko herri nortasun horiek ukatu eta hil dituztelako; Britainia eta Okzitaniaren kasuak lekuko. Frantzia estatu-nazioaren eredua eta paradigma izan zen, pentsa! Paradigma sortu zuen estatuan hori gertatu da –zentzu nazionalean esan nahi dut totalitarioa–, hots, ez dute beste hizkuntzarik, beste historiarik, beste lurralderik eta beste identitaterik onartzen. Alabaina, Portugal edota orain sortu berriak diren estatu txikiak –Eslovenia, Estonia, Lituania, kasu– totalitarioak al dira? Inondik inora ere ez. Maila nazionalean ari naiz beti, ez auzi sozio-ekonomikoaz.

Alabaina...

... Alabaina eta zoritxarrez gaur egungo estatu gehienak totalitarioak dira. Estatuak herrian herriko nortasun kulturala eta linguistikoa zaintzeko eta garatzeko estatu demokratikoa izan behar luke, gai hauetan behintzat. Alegia, 200 estatu eta 6.000 kultura badira munduan, kultura eta nazio estatuen banaketa edo konbinazioa ez da logikoa eta eredugarria. Banaketa honen ondorioz izugarrizko genozidioa eta etnozidioa dago. Hori da araua. Eta gurea ez da salbuespena. Euskal arazoa ere unibertsala da, asteen hizkuntza bat hiltzen baldin bada, kultura eta nazio bat hiltzen da neurri batean. Euskaldunok, beharbada, ez dugu behar beste gure unibertsaltasuna aldarrikatzen.

Estatu-nazioaren eredua anakronikotzat jotzen da egun. Anakronismo egoera hori gaindituko balitz, zer proposatuko zenuke, hemen nazio-jatorri askotako jendea bizi garen ez, beraz Euskal Herrirako “eredua” izan dadin?

Iparraldeko egoerarekin ez naiz batere itxaropentsu, baina eman dezagun Hegoaldean nolabaiteko estatua sortzeko gauza garela. Estatua sortzeko gauza bagina kontuan hartu beharko genuke hemen demografia alde-
tik aldaketa izugarria eman dela estatu hauek erraztu duten inmigrazioaren fenomenoaren bitartez. Estatuak inmigrazioa erabili dute beren nazionalismoa ezartzeko eta Euskal Herria desnazionalizatzeko, eta puntu hau ez da behar hainbat lantzen, beldurra ematen duelako agian, baina inmigrazioaren funtzio hau estatu totalitario horien osagarri bat da dimentsio nazional honi dagokionez.

Hizkuntzalari gisa, Erribera edota Enkarterriak hizpide. Erdara euskal hizkuntza ote da euskaldunen ahotan?

Koldo Mitxelenak euskal literatura euskaraz egindakoa dela zioen. Galderari irizpide hori aplikaturik, ez dirudi erdara inoren ahotan euskara izan daitekeenik. Baina goazen lehenengora. Hemen erdararen –nahiz eta Mitxelenak esan erdara betikoa dela gurean, eta hori ere oso eztabaidagarria den– erroak Erdi Arokoak dira. Nahi hainbat atzera daiteke historian, baina funtsean aipatu estatu erduek Erdi Aroaren hondarrean ezarri zituzten bi erdaren oinarriak nazio-hizkuntza gisa. Bertako hizkuntza, jatorrizko hizkuntza, euskara dugu ordea. Munduko beste edozein herri bezain elebakar izan da gurea bere jatorrian. Ezin dute beste horrenbeste esan espainolek eta frantsesek, herri-nortasun hiltegi direnez. Hizkuntza hegemoniko bakarra euskara izan da ahozko kulturaren. Herri bakoitzak bere hizkuntza du munduan, neurri batean prozesu natural eta etniko-kultural baten ondorioz. Erdarak, ordea, prozesu politiko baten ondorioz bihurtu dira hemengo hizkuntzak, baina ez prozesu demokratiko baten ondorioz. Berez ez dira hemengoak, prozesu inositibo edota asimilazio baten ondoren bertaratuak baizik.

Euskara sustatzeko euskal identitatearen osagarri-edukiak falta direla diozu. Egungo egoeran euskaldunaren nortasunak iraun dezake beste hizkuntz edo kultur nortasunekin batera?

Elebitasuna, kultur bitasuna, kultur aniztasuna, kultura artekotasuna... oso hitz politak dira, baina, Belgikan ikusi dugunez, kultura bakoitzak bere unibertsitatea erai ki zuen, eta, orduan, oso ondo konturatu ziren lurralde printzipioa aplikatu behar zutela eta elebitasunak ez zuela funtzionatzen. Zergatik? Beti dominazio bat dagoelako. Estatu demokratikoak balira, harremanak modu demokratiko batez arautuak izango balira, komunitate bakoitzak –bere identitateari eutsiz– bizitzeko modurik izango luke. Oraingoz baina, ez dugu asmatu estatu demokratiko hori, lurraldetasunaren printzipioa aplikatu gabe behintzat. Bestalde, euskarak euskaltasunaren gainerako osagarriak behar ditu aterpe eta elkarrekiko eragile: euskal kultura, historia, sentiera... Bakarka ez dauka zereginik euskarak. Orobat, esan behar da gurean nagusi eta menderatzaile diren gainerako bi nazio-identitate horiek Estatu totalitario horiekin eskuz esku dabilzan bitartean, euskaldunaren herri-nortasunak ez daukala zereginik

KOADROA

Izan edo ez izan

“Subjektu izan beharrean azpisubjektutzat gauzkatela esango nuke”

Idazleak izendatzean, literatura eta pentsamenduaren idazleak bereizten dituzu. Areago, zuk zeuk ez duzu zure burua idazletzat jotzen. Argitu iezaguzu jarrera hau...

Beno, bi idazle mota bereizi beharko liratekeela uste dut, ni ez bainaiz idazle, ez naiz behintzat idazle ulertzen den zentzuan. Pentsamenduaren joslea gehiago naiz bes-telakorik baino. Idazleak fikziozko mundu bat sortzen du, bere irudimenean oinarriturik. Geurea –nirea behintzat– sormena baino gehiago pentsamenduaren ehungintza da, hamaika iturritatik edanaz buruturiko idazketa.

Saiakera ez bide da bere onenean. Gure ahuldade intelektualaren seinale al da hori?

Saiakerak bere une ona ere izan zuen Frankismoaren azken aldean. Testuinguru ideologikoa eta politikoa bes-telakoa zelako-edo, pentsamendu politikoak oihartzun handiagoa izan zuen orduan. Egun pentsamendu ahularen aroan bizi garela dio zenbaitek, eta Euskal Herrian horrek ere eragina baduela dirudi. Izan ere, kultura ikus-kizuna bihurtu bazaigu, kultura kontsumorako produktu estetiko bihurtu bazaigu, baliteke horrexegatik pentsamenduaren jarduera egoera txarrean izatea, ez Euskal Herrian soilik, nazioartean ere bai. Ikuspegi teoriko eta kontzeptual zabalago bat eskatzen duen jarduera izaki, ez da gaurko kulturen gehien erakartzen duen literatur generoa, antza.

Nola hautematen dituzu euskal intelektualak?

Euskal intelektual munduak badu bere unibertso txikia, alabaina, Euskal Herriari beti ukatu egin zaio bere izaera, edozein gauza dela ere, beti kategoriatan mailan gabiltza, beste zerbaiten kategoriatan gara. Subjektu izan beharrean azpisubjektutzat gauzkatela esango genuke. Badugu ordea pentsamendu propioa. *Bost idazle Hasier Etxeberriarekin berbetan* liburua honen adibidea da. Literaturgintzan nahiz pentsamenduan intelektualak badi-tugu, puntakoak gainera, eta berriak sortzen ari dira.

Euskal Herriak intelektualen esparru hori behar du, kategoriatik unibertsora doan bidea osatuz joan behar dugu euskaldunok.

2002/azaroa

UNAI ELORRIAGA

“Mundua iraultzeko agindu diet nire
pertsonaiei”

Algortar gisara azaldu zaigu *SPrako tranbia* eleberriaren egilea, ez getxotar gisa. Unai Elorriagari, 1973an jaioa, Espainiako Narratiba saria irabazteak zorabio apur bat eragin dio eta egoera honekin amaitzeko irrikitan dago. Bere bigarren eleberria, *Van't Hoffen ilea*, martxo aldean plazaratuko du. Labayru ikastegiko itzultzaile lana otsailera arte utzia du eta geroa beharren arabera antolatuko duela esan digu. Bitartean, argitaletxeen proposamenei eta hedabideen deiei erantzutearekin nahikoa eta sobera lan dauka.

Bizi duen egoeraz egin dugu berba hasieran, hedabideen eta argitaletxeen zurrunbiloak sorrarazi dioen giroa ez dela oso literarioa izango aipatu diogu: “Ez pentsa! Literaturarako jokoa eman dezake. Quim Monzó idazleak idatzia du egoera honi buruz. Bere ipuin bateko protagonistari sari handi bat ematen diote bere lehen liburuagatik. Ostean elkarrizketak, hitzaldiak, topaketak eta itzelezko lanak burutu behar ditu. Artean, bizitza osoa joaten zaio bigarren liburua idatzi gabe. Azkenean, dena konplot bat izan dela esaten diote. Lagunek kontuz ibiltzeko esan didate, niri ere halako zerbaite gertatzen ari ote zaidan...”. (Irriak).

Joseba Sarrionandiak iazko azaroan Argian honela esan zuen: "... Unai edota Kirmen izeneko jendeak oso ondo idazten dute...". Zure liburua irakurria zuen, antza.

Eskertzekoak dira bere hitzak, gainera, liburua sari-tua izan baino lehenago esandako hitzak dira. Gazte batzuek berak baino hobeto idazten dugula ere esan zuen, nik ez dut sinesten, baina eskertzekoa da.

Nola ikusten zenuen zure burua orduan, idazle bezala, eta orain, Narratiba Saria irabazi ondoren?

Liburu bat plazaratu dut, eta hori ez da ezer literaturan. Idazle bat ibilbide eta literatur obra batekin egiten da. Liburu bat egin dut, baina ez dut ibilbiderik, lehen eta orain idazle bera naiz. Denborak esango du zer naizen eta zer ez naizen, denborak eta liburuek.

Orduan idazle izan nahi zenuen?

Bai. Baina idazle izatea zer den ez dakit. Idazle izatea ogibidez idazle izatea bada, oso zaila da.

Suertean sinesten al duzu? Hau da, SPrako Tranbia zure bizitzako trena izan daitekeela jabetu al zara?

Argi eta garbi dago suertea izan badela, suertean sinesten dut. Esate baterako, Ramon Saizarbitoriaren "Gorde nazazu lurpean" 2001eko Sari Nazionalen finalista izan zen, baina ez zuen irabazi. Nik *SPrako Tranbia* joan den urtean publikatu izan banu, nire liburua ez zen joan ere egingo Sari Nazionalera, seguru dakit. Saizarbitoriarena joango zen, ez nirea. Berak ez zuen irabazi, eta bere liburua nirea baino hobea da. Beraz, egoeren menpe gaude guztiz, suertea eduki dut, begi bistako suertea.

Idazleen artean inbidia izaten dela aipatu du inoiz idazleren batek. Sari hau irabazi izanagatik sentitu al duzu inbidiarik inorengandik?

Ez dut honelakorik sentitu, orain arte behintzat. Ezagutzen ditudan idazleengandik poza sentitu dut,

niregatik poztu dira. Besterik egongo den, ez dakit. Beharbada bai. Nik, berriz, inbidia badut beste idazle batzuekiko. Hau da, niri gustatuko litzaidake beste idazle batzuek dakitena jakitea, nik ez dakidana. Nik inbidia sano hori eduki dut, badut. Inbidia sanoa niretzat, beste batzuek idatzi duten bezala idazten jakitea da, esaterako.

Idazlearen konpromiso soziala delakoak beldurra ematen al dizu? Elkarrizketak, hitzaldiak, enkarguzko lanak... presio sozialaren eragina, alegia.

Beldurrik ez. Presio sozialik ez daukat, ez naiz Atxaga, Lertxundi, Izagirre edo beren mailako beste inor. Jakina, interesgarria da jendeak zer esaten duen jakitea, gizarte batean bizi naiz, ez mendiko punta batean. Presio delako hori jakin beharko dut bereizten edo galbahea ezartzen, jakiten nondik datorren, norik esaten duen, horrek zer sinesgarritasun daukan. Ez zaio denari kasu egin behar, merezi duenari baino ez.

Epe laburrean ikusten duzu zure burua idazlearen rola betetzen?

Hitzaldiak eman izan ditut, baina nik zerbaitetaz hitz egin beharko banu, interesatzen zaidan literaturaz hitz egingo nuke, ez beste ezertaz. Interesatzen zaidan literatura interesgarria izan daiteke beste batentzat edo ez, baina nik ez dut literaturaz orokorrean hitz egingo edo mugimendu literarioaz. Nik horretaz ez dakit, beno badakizkit gauza batzuk, baina ez naiz sistematizatzeke gauza. Orduan, hitz egingo dut interesatzen zaidan literaturaz, egiten dudana literaturaz, azken finean horretaz dakit. Eta bateren bati gustatzen bazaio ondo, bestela ez nazala kontuan har.

Zer da zentzu honetan literatura zuretzat? Artifizio...

... edo jolas bat. Bakoitzarentzat nahi duena izan dadila, ezta? Nik ez dut esango literatura jolasa edo arti-

fizioa denik, edota mundua ulertzeko modu bat. Bakoi-tzarentzat gauza bat izango da eta hori da literaturak duen gauzarik handiena.

Zuretzat konkretuki zer da?

Neurri batean jolasa da, beste neurri batean munda ikusteko gauza bat, gauza asko da niretzat.

Intelektualtzat jotzen al duzu zure burua?

Ez. Hasteko intelektuala zer den definitu beharko genuke. Nire ustez, esate baterako, Afrikako tribu batean bizi den pertsona batek idatz dezake munduko libururik hoberena. Eta inork ez luke pertsona hori intelektuala denik esango.

Idazle batzuek arazoak aitortzen dituzte literatura egite-rakoan: hiztegi baten falta dagoela edota euskara herdoil-dua dagoela. Zuk zer harreman duzu hizkuntzarekin?

Ni herdoildua dagoen hizkuntza desherdoiltzen ahalegintzen naiz. Halako likido bat botatzen saiatzen naiz askatasun bat emateko eta askatasun horretatik lite-ratura egiteko. Literaturaz hitz egitean, sarritan, euskara herdoildua dagoela esaten dugu. Agian, ez dugu errepa-ratzen jendeak nola hitz egiten duen, esate baterako, baserrian bizi den pertsona batek izan dezake guk bila-tzen dugun formula, eta guk, berriz, Axularrengan edo Leizarragarengan bilatzen dugu, baina, ziur aski, hur-bilagoa daukagu erabili behar dugun hizkuntza.

Hizkuntza honek behar duzun guztia ematen dizu nahi duzun guztia idatzi ahal izateko?

Problema daude, baina problema ere gaztelaniaz daude, edozein hizkuntzatan. Nire nobelaren itzulpena egin dudanean problema izan ditut, diferenteak, baina inork ez dizkit konpondu problema horiek.

Gaztelaniaz maila ona duzu, antza.

Uste dut baietz, baina ez da apartekoa, nirea da, euskaraz bezala. Gauza batzuk errazago idazten ditut euskaraz eta beste batzuk erdaraz. Problema handirik ez daukat ez batean ez bestean.

Darabilzun estilorako nahikoa.

Nire prosa sinpletasunean oinarritzen da, hein handi batean. Nire ustez, hori da literaturarako bidea. XIX. mendean hizkuntzarekin prosa landu bat egiten zen, baina orain hori ez da bidea. Nire bidea sinpletasuna eta zuzentasuna da. Hala ere, beste batek oso prosa landua egin nahi badu, itzelezko artifizioa egin nahi badu, ziur aski idazle ona izango da, bejondeiola, gustura irakurriko dut

Bote lasterrean

Heriotza: Dena. Mundu guztia harrapatzen gaituena, nahiz horretaz pentsatu ez. Heriotzaren gainean gogoeta gehiago egin behar da.

Bizitza: Gauza bera. Bizitzak heriotzan du muga.

Jainkoa: Gauza kurioa da. Ez dakigu zer den, existitzen ote den, baina, oso erakargarria da.

Aita: 9 urterekin ezagutu nuen aitaren heriotza, agian horregatik umetatik gogoetatzen dut heriotzaz.

Ama: Dena. Aurrera eraman eta eramaten gaituena.

Neskalaguna: Oso inportantea da. Aurrerantzean bizitza berarekin egingo dut, Jainkoak nahi badu.

Sinestuna al zara?: Ez dakit naizen edo ez, izan nahi nuke. Jainkoaren ideia gustatzen zait eta fedea izan nahi nuke, baina ez dakit daukadan.

Bilbo: Niretzat ez da ezer. Badakit oso erromantikoa dela esatea Bilbo modernitatearen zeinua dela, literarioa eta nahi duzuna. Niretzat lan egiteko hiria da, besterik ez.

Rugbya: Nire kirolik maiteena. Gozaten dut ikusten.

Futbola: Ibili nintzen rugbyan baina lehenago, baina gero eta gutxiago gustatzen zait. Gehiago da dirua kirola baino, gehiegi azaltzen da eta garrantzi gehiegi ematen zaio.

Kafea: Ez dut ezer kafearen aurka, enpresetan kafearen inguruan dagoen “mamoneoa”ren aurka baizik. Elkar topo egiten duzunean, kafe bat hartu behar hori erromantizismo txepel bat da. Nik nahiago dut paseo bat ematea edo parke bateko banku batean eserita egotea taberna zulo batean baino. Filosofo intelektualen zirkulu hori ez zait gustatzen nonbait, arraroa da, baina...

Topiko bat: Gaur egun egiten den literatura, gehien nagusitzen dena esan nahi dut.

Gizartea edo herria: pertsona.

Pertsona eta...: pertsona.

Idazle eta...: ez naiz idazlea.

KOADROA

“Ongian sinesten dut”

Pertsona ona izan nahiko zenukeela irakurri dut egunkari batean. Ongia eta gaizkiaren gainean eraikitako gizartean sinesten al duzu?

Ongian sinesten dut. Hau esaldi titularra da, eh! (irriak). Nik ongian sinesten dut, azken batean elkarri laguntzen ez badiogu eta batak bestearen alde ez badugu egiten, ez goaz inora. Esaterako, aurrera egiteko modurik hoberena inoiz ez da gerra izan. Gerrak ez du egin aurrerako biderik. Aurrera egin nahi badugu, ongiaren bidea hartu behar dugu, bestea samintasunaren bidea da.

Koherentzia aipatu duzu inoiz, zeri erantzuten dio koherentziak?

Segun eta non koherentzia ongi dago. Adiskidetasunean inportantea da, edo politikan, baina beste lekuetan, agian ez. Esaterako, literaturan inkoherentzia ere polita da. Ni ez naiz sekula gauza baten aldekoa edo aurkakoa izan guztiz, ez nago sekula ertzetan. Halaber, koherentzia munduko inportanteena dela esaten da batzutan. Bada ez, koherentzia pertsonen arabera da baita ere, hurkoa inkoherentea bada zurekin, zuk ez duzu zertan koherente izan behar harekin.

KOADROA

Literaturaren gustua eta subjektibitatea

“Atxagari kritika egin zioten, niri ez.
Kritikatu nahi badute, kritikatu dezatela”

Zure eleberriak zenbait eztabaida sorrarazi du euskal literaturaren munduan. Hasteko, Igartza Beka sarira aurkeztu zenuen, baina ez zuten aukeratu.

Jasone Osororen *Korapiloak* eta Xabier Etxeberriaren *Egun denak ez dira berdin* liburuekin batera hautatua izan zen, boto berberekin. Beka bakarra zegoen ordea. Asko jota, beka bitan banatzea pentsatu zuten. Nirea kanpo gelditu zen baina publikatzeko aukerarekin. Dirurik ez nuen jaso, baina publikatzeko nuen helburua bete zen.

Kritika Sarian aipamenik ez, Euskadiko Sarien finalisten artean ez da agertu, eta orain berriz, Sari Nazionala.

Kritika Sarian finalista izan zen –baina orain arte ez da jakin izan– Joseba Sarrionandiaren *Lagun izoztua* nobelarekin batera; 6 eta 4 botoen aldean. Ondo. “Lagun

izoztua” itzelezko liburua da eta merezita irabazi zuen. Euskadi Sariak, berriz... beno, literatura gustu kontua da, subjektiboa da. Bestalde, orain ematen du liburuak kritika onak baino ez dituela izan, baina kritika txarrak ere jaso ditu.

Txarrak edo zorrotzak?

Zorrotzak ez, txarrak. Nobelak ez duela ezer kontatzen, ez duela pisurik, irakurri dut. Hor ez dago zorrotasunik, kritikari ez zaio gustatu, besterik ez. Kritika txarrak izan ditu, baina ez da ezer gertatzen.

Bernardo Atxagak Espainiako Literatur Sari Nazionala onartzeagatik kritikak jaso zituen. Hamahiru urteren ostean horrelakorik ez, antza. Zer adierazten du horrek?

Garai hartako politika giroa ez nuen ezagutu eta orain ere, oso gutxi. Politikaz ez naiz enteratzen, beno ez naiz *martetar* bat, politika soziologia eta psikologiaren aldetik interesatzen zait. Atxagari kritika egin zioten, niri ez. Zergatik? Ez dakit. Kritikatu nahi badute, kritikatu dezatela.

Bigarren liburua idatzia duzu jada, Van't Hoffen ilea ize-nekoa. Beharrik saria jaso aurretik idatzia zenuela.

Bai. Eskerrak bukatua nuela, zeren sariak erdian harrapatuz gero, desastrea izango zen niretzat eta liburua-rentzat.

SPrako Tranbiaren mailan ikusten duzu?

Nire gustuko hau liburu sendoagoa da.

Honek ez du Sari Nazionala irabaziko?

Ez. Hau bizitzan behin jasotzen den sari bat da, inork ez du birritan irabazi, eta ez dut nik irabaziko (irriak). Azken batean saria bultzada bat da, nik bultzada hori jaso dut, bigarren sari hori ez dut behar, onerako edo txarrerako. Hau bezalako beste sari batek ez lidake

bultzada gehiagorik emango. Hemendik aurrera, jaso dudan bultzada honekin idazten dudana ona bada, aurrera

Gauzak imajinatzeko proposamena

Aurreko orrialdeetan Unai Elorriaga saritu ostean bildutako hitzak paratu ditugu. Gu geu ordea, liburua plazaratu eta aste batera jardun ginen *SPrako tranbiaren* egilearekin. Sariak sorrarazi duen zurrunbiloa ezagutu gabe, literaturaz berba egin genuen.

Honela mintzatu zitzaigun Unai Elorriaga bere lehen eleberriaz: “Jatorrizko liburuan, aipuak eta oharrak idatzi nituen, orrialdeen oinetan paratuak. Azkenean erabaki nuen kentzea. Halakoak ipiniz gero, agian, literatura asko irakurri dudala adieraziko nukeelako. Haien artean kantu batzuen izenak azaltzen ziren, hala nola Joaquin Sabinaren *Calle melancolia* izenekoa.

Malenkonia sorraraten ote du *SPrako tranbia* eleberriak?: “Ez dut uste halako sentsaziorik uzten duenik. Gauza ederrak esan dizkidate horren gainean. Adineko pertsonak agertzen diren nobelek halako kutsu tristea izaten dutela beti, eta hemen ez dela hori gertatzen. Lucas protagonistak, esaterako, mundua ikusteko ikuspegi guztiz umoretsua dauka. Alde horretatik nahi nuena lortu dudala uste dut”.

Azaleko argazkia bitxia da: trenbide bat; hotza edo beroa sorraraz diezaguke argazkiak. Badago beste bat barruan: Juan Rulfo idazlea agertzen da bertan, mendi baten tontorrean, pipa ahoan duela: “Oso erretratu ederra da. Hau ere azalerako pentsatu genuen, baina ez zen horren argia. Rulfo nobelan azaltzen da, bai estiloari nahiz pentsaerari dagokionean. Mendiak ere protagonistak dira eta Rulfo kasualitatez mendi puntan dago eta pipa erretzen ari da. Lucas bera izan liteke”.

Liburua kontakizun nagusi batez nahiz kontakizun solteez osatua da. Egilearen hitzetan, idazteko molde hau ez da berria, XX. mendeko literaturan agertzen da edonon. Kontakizun solteak lehen pertsonan eginak dira, hirugarren pertsonaren bitartez lortzen ez dena lortu aldera: “Gogoetekin beste ikuspuntu bat ematen da, hirugarren pertsonan kontatuta inondik inora egingo ez zenukeena. Guztia kontatzeko nahi horretan kokatuko nuke hori, ikuspuntu ezberdin guztiak emateko asmoan”.

Julio Cortazar irakurri zuenean jabetu zen idatzi nahi zuenaz. Literaturaren maisuetako bat da berarentzat: “Cortazar irakurtzen hasi nintzenean zerbait berezia zegoela ohartu nintzen, eta uste dut, azpimarratu egiten dut, uste dut, ondo ulertu nuela berak zer egiten zuen. Nik ere idazteko tankera hau landu nahi nuke, ez dakit lortuko dudan edo ez, baina hor dago”.

Harkaitz Canok Unai Elorriagak “ezarritako ordena hankaz gora jartzen duen era” azpimarratu zuen liburua-
ren aurkezpen egunean: “Horrek ilusio handia egin zidan. Sarritan mundu honetan dagoena ez da niri gus-
tatzten zaidana, orduan, zelan edo hala, aldatu ez –ni oso pasiboa naiz horretarako– baina munduaz beste ikuspegi bat eman behar dela uste dut, hori egin nahi izan dut liburu honetan, pertsonaiei hori egiteko agindua eman izan diet. Esan diet, “mundu hau irauli behar duzue” Ez dakit lortu dudan, baina asmoa hori zen”.

Utopiak bizitza mugitzen duela esan duzu inoiz: “Bai. Lucas utopikoa izanen da, baina bizitzen laguntzen du. Lucasek ez dauka mugikortasunik, baina, hala ere, inork baino gehiago bidaiatzen du, bere irudimenarekin inor baino leku askotara doa eta inor baino hobeto dar-
matza bere penak, eta hori da azken finean bizitza. Bi-
zitzaren baikortasunez hartzeko eta munduko gauzak imaji-
natzeko proposamena da liburua.

2003/otsaila

KOLDO IZAGIRRE

**“Mundutar izateko ez da ezinbestekoa
paristar izatea”**

Iaz hitzartu genuen hitzordua Koldo Izagirrerekin. Urte zaharra eta berriaren mugan zertu genuen solasaldia. Aurten ez duela elkarrizketarik emango gaztigatu digu, prentsan sobera agertzen dela esan ere. Ez da samurra berarekin ezer hitzartzea, behin hitzartutakoan oso da emankorra ordea. Emankorra, pertsona nahiz idazle modura. Berak ukatu egiten du. Badirela bera baino idazle emankorragoak esaten du. Alabaina, bere txikian –idazleaz ari naiz– idazle entziklopedikoa da Koldo Izagirre. XIX. mendeko poesia ulertzeko egin duen lana erraldoia da. Victor Hugok Euskal Herriaz utzi zuen lekukotasuna maisuki egokitu du. Agirre'tar Nikola *Metxa* pertsonaiaren ibilerak, berriz, Koldoren beraren ibilera konformagaitzaren isla dira.

Pasaian bildu gara Koldo Izagirrerekin, Victor Hugok, behiala, Donostiatik ihesi-edo, ostatu hartu zuen herrian. Gure solasaldiaren aurreneko pasarte batean paisaia izan dugu hizketa gai. Orain, berriz, iragana dugu gogoan. Anartean, paisaia hitzak eta Pasaia herriak erri-matzen dutela gogoratu diogu Koldori. Paisaia nahiz pasaia hitzen gáinean jardun dugu:”Niretzat paisaia ez

dago lotua Pasaiarekin, Altzarekin baizik, ni sortu nintzen herri harekin. Nik Pasaia pertsonekin daukat lotua, lehen lagunekin, oso inguru berezian. Paisaia baino gehiago, paisaia industrial bat. Pasaia gogoan pertsonak datozkit gehiago burura paisaia baino”. Pasaia herria leku berezia, zentzu onean esanda... “bai berezia, hasteko ez delako herri bat, lau herri bateratuta baizik –Donibane, San Pedro, Antxo eta Trintxerpe–, itsasoa da lotzen dituen, elkarren hurrean bizi dira, baina ez daude sobera hurbil ere, horregatik-edo konpontzen dira ongi pasaia-tarrak. Edonola ere, oso ezberdinak dira laurak”.

Victor Hugo idazlea ekarri dugu gogora segidan, idazle frantziar erromantiko handiak Euskal Herrian aurkitu zuen mundua agertu baitigu Koldok *Idi orgaren karranka (Euskal Herrian gaindi, 1843)* liburuan (Elkar). Hugoren idazlanen nolabaiteko bertsio osatua da Izagirrerena.

Idi orgaren karranka, Les Pyrénées liburuen itzulpena ote? Egokitzapena agian?

Edizio bat da. Hain zuzen ere, Victor Hugo bizi zela ez zen sekula argitaratu liburu hori. Liburu hori bere oharretatik osatutako zerbait da, Hugo hil eta gero bere editoreak argitaratu zituenak biltzen dira *Les Pyrénées* liburuan. Titulua editoreak berak jarri zion: *Alpes-Pyrénées*. Nik beste edizio bat egin dut, Victor Hugoren memoriaren baimenarekin. Bere apunteetan eta oharretan arakatu dut, handik eta hemendik materiala bildu eta edizio berri bat egin dut, ez da itzulpen hutsa edo ez da itzulpena bakarrik.

Askatasunez aritu bide zara, arazoak eta mugak planteatu al dizkizu horrek?

Bai, materiala bildu behar da, egituratu, hori ere egin dut kapituluka, ohar historikoak egin ditut, baina, dena dela, Joxe Azurmendik egin dio sarrera, eta horrek

argitzen ditu garaia eta Hugoren portaera eta pentsamendua, baita idazteko bere modua. Nik esaten dut Victor Hugok paisaia ikusten erakusten digula eta Joxe Azurmendik aldiz Victor Hugo irakurtzen irakasten digula.

“Birkreazioa eginez baina leial jokatu” esan du Joxe Azurmendik. Idi orgaren karranka izenburua bera horren lekuko. Pasaiatar zaren aldetik lehendik ere ezagutuko zenuen Hugo. Zein da zure harremana Hugorekin?

Idazle monstro batekin harremanak zailak dira. Idazle frantsesek, galdetzen dietenean zein den haien ustez Frantziak eman duen idazlerik handiena, beti esaten dute: “Victor Hugo, tamalez”. Idazle monstro bat...

Zergatik?

Denetarik egin zuen, eta dena ongi. Ez da samurra Victor Hugorengana hurbiltzea... Entziklopedikoa da nolabait esatearren, eta horrek nekatu ere egiten du. Gero, genero guztietan asko eta luzaz idatzi zuen, ia XIX. mende osoa hartzen duela. Halako gotortasun bat dauka, ikara ematen duena.

Idi Orgaren karranka, *zure edizioaren izenburu nagusia, Hugok Euskal Herrian egindako ibilalditxoaren adierazlea da nolabait.*

Hala uste dut. Euskaldunekiko izan zuen harremanaren adierazlea da behintzat. Victor Hugoren pasadizo honek argitzen digu esan nahi dudana: bera baino lehen hemen barrena pasatako bidaiari guztiek esaten zuten idi orgen karranka ezin zela pairatu, ezin eramana zela, belarriak zulatzen zituela. Théophile Gautierrek ahapaldi antologiko batean izugarriak eta bi esaten ditu gure idi orgaren karrankaren kontra: “Orgaren ardatza leuntzeko erabili beharrean, bere zopan botatzen du itzainak koi-pea”. Hori topiko bihurtu zen. Badakizu, hainbat idazlek bere kabinetetik atera gabe idatzi izan zituztela bidaiaria

liburuak, eta topiko hori behin eta berriz errepikatu izan da, hau da, “idi orgaren karranka pairaezina”. Victor Hugok, berriz, topiko horri kontra-topiko bat egiten dio, eta orduan idi orga entzuten duenean esaten du: “Ah! Mozartek berak ez dit halako plazera ematen” (irriak).

Autorea turismo egitera jin omen zen eta gogoeta filosofikoa utzi zigun. Joxe Azurmendik sarreran dioenez, topiko hau ere hautsi zuen: “liberalak progresistak, karlistak erreakzionarioak”. Bat al zatoz?

Bai, jakina, egia hori gure historialari askok baino zorrotzago adierazi zuen Victor Hugok, eta hori II. Gerra Karlista pasa gabe zegoela. Hugok lehen altxamenduan ikusi zuen zer zegoen atzean, oso ikuspuntu librea eta hurbila zeukan, bera ez baitzen paristarra, bera Frantzia sakonekoa zen. Etorri orduko Euskal Herria ezagutzen zuen, zerbait ezagutzen zuen, bazeukan euskal historia-ren ezagutza sakon samarra.

Azpititulu gisa berriz, “Euskal Herrian gaindi, 1843” ipini diozu liburuari. Humboldt, kasu, Euskal Herrian gaindi ibili zen. Hugok eta berak ez zuten irakurketa bera egin.

Interesgarria da Humboldt-en bidaia eta Hugorena alderatzea. Alemana bisitari bezala etorri zen, bisita konkretu batzuk egitera, pertsona jakintsuekin egotera etorri zen. Hugo ez. Hugo herriarekin mintzatzera dator, bere kasa, eta *incognito*. Ez du inork hemen barruan dabilela jakitea nahi, ordurako akademikoa zen, eta izugarrizko fama zeukan. Baina ez zuen halako deus nahi, eta beste edozein bidaiari arrunt bat bezala ibili zen hemen barrena. Hemen zebilela inork ez zekien nor zen.

Euskal Herrian gaindi, baina Espainiaz ari da.

Bai. Bidaiari guztiek Baionara iritsi orduko, frijitu oliotuen usaina aditzen zuten, “fritanga española” aditzen edo usnatzen hasten dira ere gaur egun Baionan:

koloreak, piperrak, zezenak eta horrelako gauzak. Finean, topiko guztiak. Beharbada, garai hartan horretatik edukiko zuen gure Euskal Herriak, guk uste duguna baino espainolagoa izango zen Hego Euskal Herria, baina ez dago dudarik hori ere exajerazio bat dela.

Euskal Herrian gaindi ibili zen, eta bereziki Pasaian. Berak deskribatu zuen Pasaia horretatik aurkitu al duzu zuk zer edo zer?

Orduko Pasaia eta gaurkoa oso bestelakoak dira, noski. Inozentzia aspaldi galdu genuen (irriak), eta liburuan agertzen diren batelera horietatik deus gutxi gelditzen da. Baina, herri xehearekiko maitasun hori beti liluragarria egiten zaigu, jatorri popularrekoa garenontzat oso maitagarria egiten zaigu Victor Hugo.

Dena dela, esan dizudan moduan, Victor Hugok ikusten irakasten digu, egin liteke ariketa bat gaur egun ere: Victor Hugok deskribatu pasarteak hartu eta mendian barrena joan, Jaizkibel mendiaren arroka horietatik barrena, eta uste duguna baino gehiago deskubrituko dugu. Benetako eskulturak eta berak aipatzen dituen munstro horiek, haizeak harrian higatutako irudi horiek topatuko ditugu.

Donostia utzi zuen Pasaian finkatzeko. 150 urte pasa ondoren, oraindik ere, Donostiaren aldean hor dago Pasaia. Herri xehe eta naturalaren deskubrimendua egin zuen nonbait. Hugoren Pasaia simbolo bat da.

Alegia, mundutar izateko ez dela ezinbestekoa paristar izatea. Uste dut hori dela Victor Hugoren ikaspena. Miarritzen gauza bera gertatzen zaio, eta miarriztarrei esaten die :”Zertarako nahi duzue Paris izan, itsasoa edukita?” Pasaian, berriz, itsasoa eta mendia zeuzkan, herri naturala, langilea, edertasunaren kontzientzia handirik gabe pozik bizi zena. Alabaina, donostiarrak izutu egiten dira Pasaiara joango dela esaten dienean. Donostia,

Miarritze bezala, Paris txiki bat zen: ezin zuen bete Paristik ihesi datorrena.

“Basa herri horretara joango zara?” aditzera ematen diote nolabait. Eta hain da barrura joaten, Lezo herrira hurbiltzen dela. Lezo are basatiagoa ote? Pasaiatarrentzat, esan nahi dut.

Beno, badakizu auzo herriek beti liskarretan bizi behar izaten dute, eta Lezo eta Donibane horrela ibiliko ziren. Dena dela testuinguru batean ulertu behar dira kontu horiek, Hugo II. Gerra Karlistaren ondo-ondoan dator eta dena hondatua aurkitu zuen, hondamendi handia zegoen, bazterrak utziak. Eta hau donostiarren alde esan beharra dago, donostiarren izua horregatik ere bada, Donostia libratu zen bonbardatua izatetik, lehenago esperientzia zuten, hiria erre zutenekoa. Beraz, nahiko ongi geratu zen hiria Karlistadan, baina probintzia txikitua zegoen, eta probintzian barrena joatea arriskutsua edo zorakeria ikusiko zuten.

Euskal Herrian neska alaiak, politikak aurkitzen ditu. Baina, nekazaritzak emakumeak higatu egiten ditu. Natura eta zibilizazioaren meditazio edo gogoeta egitea xede zuen. Krisi pertsonal batean iritsi omen zen, Euskal Herria eta Europa ere horrela ziren. Mende bat eta erdi luze joan da, eta egoerak pareka daitezkeela dirudi.

Bai, alde horretatik liburu hau oso modernoa da. Hugoren gogoeta eskaintzen du, ez da bidaia liburu bat, ez da oporretako kontuak kontatzen dituen liburu bat, hori ere bada, noski, baina beste zer edo zer ere bada. Pentsalari handi baten gogoeta da, eta gogoeta horretan fatalista samarra den arren, herri naturala ikusten du, Euskal Herria herri naturalen arketipoa da berarentzat. Euskal Herrian badagoela indar positibo bat, iraultzek eta printzipio handiek kontuan hartzen ez dutena.

Aitzindaria zen, tradizioa gustukoa zuen. Tradizioaren eta modernitatearen gogoeta kritikoa bat gauzatu ote zuen Victor Hugok?

Ez zen iraultzailea, baina, herriarenganako lilura hori zeukan, jeneral baten semea zen eta askotan aristokratek salto egiten dute herriarengana, begiramen handiagoa diote burgesek baino. Telesforo Monzonen kasua izan dugu ere gurean, aristokrata bat herriak liluratua. Alde horretatik uste dut Victor Hugok pozik ikusiko lukeela Euskal Herria gaur egun, borrokan, tradizioa kondenuatu duten horiengandik ihesean, tradizioan hil eta ito nahi ez duela eta moderno izan nahian ari den Euskal Herria.

Kontakizun literarioa, gure herriaren historiaren lekukotasuna... Zer utzi zigun oroz gain idazle frantziar honek?

Biak azpimarratuko nituzke, dudarik gabe. Fikzioa zer den ongi dakien idazle batek idatzia dago liburua, baliabide literarioz betea, bai pertsonaien aurkezpenean, bai elkarrizketetan. Beharbada, bizi zelarik ez zuen sekula argitaratuko, eta pasarte horiek erabiliko zituen bere nobeletarako, auskalo! Kontuan hartu beharko genuke bere nobeletan askotan azaltzen dela pertsonaia euskalduna, euskal pertsonaia han eta hemen azaltzen da, *L'homme qui rit* edota *Notre-Dame de Paris*-en ageri dira euskaldunak eta beti era positiboan

KOADROA

LITERATURA SURREALISTAREN ZALE

“Gure literatura, gure paisaia bezalaxe,
gailurrez eta ordokiez osatua dago”

Hasier Etxeberriarekin berbetan, Bost Idazle izeneko liburuan, idazle frantses surrealista aipatzen dituzu, Guillaume Apollinaire, besteak beste. Apollinaire idazle kuttuna duzu...

Guillaume Apollinaire, nire gusturako, literaturaren Pablo Picasso da. Piccasok pinturan ekarri iraultza ekarri baitzuen literaturan, poesian bereziki. Bere surrealismoa maite dut, umorea eta transgresioa ekarri zituen poesiara, forman nahiz mezuan. Bai, biziki maite dut.

Irudika dezagun literatura margo baten gisara. Nola ikusten duzu euskal literaturaren paisaia?

Ni neroni paisaia horren parte izaki, nire erantzuna oso baldintzatuta dago, ez naiz orojakilea, ez nago gailur batetik besteek zer egiten duten begira, ni ere langintza horretan inplikaturik sentitzen naiz. Dena dela ere, esan dezagun gure literatura, gure paisaia bezalaxe, gailurrez eta ordokiez osatua dagoela.

Alegia, denetik izan duela gure literaturak.

Bai. Margoa hizpide hartuta ari garenez, bada, batzuetan natura hila izan da eta beste batzuetan etxebarne bizia, Xabier Lizardik esaten zuen moduan. Beste zenbaitetan marinak izan dira, abstraktuak izan dira, denetik daukagu. XX. Mendeko Poesia Kaiarak lana go-goan, XX. mendeko poesia gure kontzientzia dela esaten dut, XIX. mendean bertsolaritza izan zen bezala, hau da, euskalduntasuna bertsoen bitartez islatu zuena. XX. mendean, poesiaren bitartez, gure premia nagusiaren

erantzun bila aritu izan ginen euskaldunok. Ez da gutxi. Gure literaturak badu corpus interesgarri bat.

Paisaiak paisaia, nola ikusten duzu zure burua paisaia horretan?

Txiki!

XX. mendeko 40 poetaren antologiak bildu dituzu, eta Koldo Izagirre ez dago. Nolatan?

Konfiantzak bidea emanda, beste galdera batekin erantzungo dizut: nire burua antologatu, hitzaurrea ipini, neuk idatzi eta abar egin eta argitaratu izan banu?, galde-tuko zenidake zergatik antologatzaile eta antologatua aldi berean. Beno, tira, kontuan hartu behar duzu ni berrogei horietan nagoela. Alegia, ale bakoitzean nago, eta hori izugarritzko saria da niretzat eta hau ez dut zuri-keriaz esaten, benetan diotsut.

Burutu duzun lanarekin kontent orduan.

Berrogei poeta handiren hitzaurrea egin dut, eta haiek antologiarekin ados daude, hainbat gauzari buruz idazteko parada izan dut eta onartu egiten dute nik eging-dako sarrera. Hori izugarritzko saria da, ni ere hor nago, haien artean. Nik uste dut poesiatxo lerroren bat ere egin dudala, haien poesiaren goratze horretan... Tira, ez dut nire burua horren eskasian sentitzen.

Idazle polemista fama egotzi zaizu.

Ez naiz polemika zale. Baina uste dut gauza batzuk ezin direla isildu, esan behar direla, mingarriak baldin badira ere. Gure buruari begira beti gozo, euskararen onerako, edo zer esango duten dela-eta, halako estakuruak hartuta oso komodoa da isiltzea, baina uste dut luzera kalte egiten digula

IRITZIA

JOSU LANDA

“Idazle bat deskubritzear”

Ez dut esango Koldo Izagirre promesa horietakoa denik, jakina (denok gara promesa, edo konforme gaude idazten dugunarekin?). Bai, ordea, bere literatur obraren on eta oparoak kontuan hartuta merezi duen neurrian baloratuta izan ez den idazlea dela.

Euskal literaturaren berrikusle lanetan (modu oke-
rean antologatzaile deitua) itzelezkoak egin ditu Iza-
girrek azken urteotan; XX. mendeko poesia kaierak di-
tugu horren erakusle bat. Antologatu lez, ordea, harri-
garrria izan da jaso duen begiramena. Eskasa, alegia. Adi-
bidez, azken hamabost urteetan egin izan diren antolo-
gietan, poesiazkoak zein narratibazkoak, ez da aintzat
hartua izan batzuetan, agertu ere ez dute egin maiz.

Kasuren batean gustu arazoa izango da, zertan du-
darik egin. Baina kasu gehienetan sektarismo hutsagatik
izan dela da nire ustea. Eta horrek egoera bitxi batera era-
man gaitu, goiburuaren mezuarekin lotzera naramana:
oraindik ere Koldo Izagirre deskubritzeko dagoen idazlea
da.

Badakit Koldo bera ez dagoela nirekin konforme,
hiperbaloratuta dagoela uste du berak. Nik arrapostu
ematen diot berak aipatzen duen balorazio hori norma-
lean ez dela poeta edo narradore moduan izaten, baizik
eta itzultzaile eta aparatu kritiko sortzaile gisa: hitzaldiak,
idazle ezagutu gabekoen argitaratzeak, antologiak, arti-
kuluak, hitzaurreak. Askok eta askok desio luke Koldok
egindako hitzaurrea norbere libururako.

Jirabuelta ugari eman izan zaizkio arrakastaren arra-
zoiari. Euskal letretan, esango nuke –komu-

nikabideen indar guztiahaldunaren gainetik— irakaskuntza dela giltzarria; neurri apalean (zirkuitu komertzial gatibu gisa) euskal literatura ia osoa ikastetxeen bitartez saltzen delako; neurri handiagoan, zirkuitu horretan zer sartzen den erabakitzen duten pope-en irizpideengatik. Irizpide horiek ezartzen dute, zer den transzendentea eta zer ez, zer goi mailakoa eta zer B seriekoa. Eta unibertsitatego jakintsuek ere sortzen dute, puxka handi batean, jendarteko iritzia.

Harrigarria da, halaber, amorrugarria esango nuke, Koldo Izagirreraren obrari buruz hitz egiten denean, jendeak zein erraz jotzen duen, obrari berari izkin eginda, bestelako zertzelada, nola edo hala esatearren, pertsonaletara: bere zakartasunera edo purrustalari izaerara, politikoki idazle konprometitua omen delakora... Gaitz berberaren beste sintoma bat besterik ez da, horrelako “argudioak” obra deskalifikatzearen erabiltzearena.

Sekula ez dut oso ondo ulertu zein diren Koldok egindako bekatuak, sozialki eta literatur egile den aldetik halako estimu baxuan egoteko. Euskal literaturako jendeek noizbait aitortu behar lituzkete erabili ohi diren irizpide makartisten ajeak

2003/martxoa

ALBERTO LADRON ARANA

“Bere lana baino famatuagoa den artistak mesfidantza sortzen dit”

2002ko otsailean irabazi zuen Alberto Ladron Arana idazleak I. Augustin Zubikarai literatur lehiaketa. *Xake Mate* bere bigarren eleberria izan zen saritua. Urtebete igaro ostean, eleberri hau eta bere ibilbidea oro har hizpide izan ditugu idazle berri honekin.

Alberto Ladron Arana iruindarra da, 1967an bertan sortua. Maisu eta psikologia ikasketak egin zituen eta gaur egun Nafarroako Unibertsitate Publikoan lan egiten du, ordenantza gisa. Orain bost bat urte hasi zen idazten eta azkeneko bizpahiru urteetan eman da ezagutzera: 1999an eta 2000n, Iruñeko Udalaren egile berrientzako saria eskuratu zuen, eta 2001ean eta 2000an, berriz, EHUren fantasia ipuinena. Kontakizun laburrak idatzi ditu: hala nola *Zurumurruaren estrategia*, *Traidorea* eta *Udazken sargori bat*. Bi nobela plazaratu ditu dagoeneko: *Itzalaren baitan*, Irun Hiria Saria eman ziona, eta *Xake Mate*. Honekin, iaz, I. Augustin Zubikarai nobela laburren saria irabazi zuen.

II. Augustin Zubikarai nobela lehiaketa, aurten, hutsik geratu dela komentatu dugu gure solasaldiaren abia-

buruan: “Sorpresa hartu dut, ustekabeko desatsegina. Tristeia da II. lehiaketa hau hutsik geratzea. Ondo antolatuta den lehiaketa da, nire gustukoa”, erran digu Albertok.

Euskaldun berria izaki, euskal literatur plazan agertu aurretik gaztelaniaz idatzi ote zenuen?

Ez. Euskara da nire literatur hizkuntza. Euskara hamazortzi urterekin hasi nintzen ikasten eta erran zaharrak dioenez, gustuko tokian aldaparik ez. Motibazio handiarekin hasi nintzen, hori izan da gakoa. Gazte-gaztetan ez nuen poesia ere idatzi, ezta gaztelaniaz ere. Olerkigintzara ez naiz hurbildu ere egin, eta ez dakit hurbilduko naizen ere! Ipuinak eta nobelak irakurri ditut betidanik, bestetik oso gutxi. Azken batean, irakurtzen dituzun generoak lantzen eta idazten dituzu.

Idazle hasiberri bezala jo izan duzu zure burua. Tenore egokian plazaratu al zara?

Ez dakit zein den idazten hasteko tenorea, tenore egokia behintzat. Baina hobe berandu eta ondo hastea eta ez goizegi eta molde kaskarrean. Baina honekin ere ez dut esan nahi ni egoki hasi naizenik. Finean idazleak irakurlea kontuan hartu behar du, eta ez du inporta adina edo arraza. Inportanteena idazlearentzat eta irakurlearentzat, jakina, obra da. Nire ustez, garrantzi handiegia ematen zaie egileei, bai idazle bai musikariei, oro har artista guztiei, eta gutxiegi erreparatzen zaie haien obrei. Bere lana baino ospetsuagoa den artista batek mesfidantza sortzen dit.

Bi eleberri plazaratu dituzu: Itzalaren baitan luzea eta Xake Mate laburra. Zein alde dago bien prestatze eta ta-xutzeko eran?

Itzalaren baitan eleberriarekin idazten ikasi egin nuen, eta alde horretatik izugarri zaila egin zitzaidan berau idaztea. Horren luzea izanik, luzerak berak halako

zailtasun berezi bat gainjartzen dio berezko zailtasunari. Adibidez, ñabardura edo xehetasun ttipi bat aldatuz gero, horrek oihartzuna izaten du liburu osoan eta lan handia ematen dizu. *Xake Maten*, adibidez, trama edo egitura asmatzea ez da *Itzalaren baitan*-en baino errazagoa izan, baina egitura kontrolatzea bai.

Xake Mate II. Mundu Gerra ondorengo garaian kokatua dago, Alemaniako hiri batean. 11 urteko mutiko elbarria da protagonista. Zerk bultzatu zintuen nobela hau idaztera?

Hasieran ideia xume bat izan nuen, ideia bakarra. Gero, etorri ziren naziak eta gerra. Ideia izaki ahul baten mendeku gupidagabea gauzatzea zen, mendeku latza adieraztea. Hasierako ideia horretatik etorri zen beste guztia. Nire asmoa gizaki ahul batek izugarrikeria bat nola burutu zezakeen islatzea zen, halako mendeku gupidagabea.

Gerra gaia izaki, xake jokoa baliatu duzu eleberria erakitzeko. Ezagutzen duzu xake jokoa? Jokatu ohi duzu?

Garai batean bai, orain jokalaria kaskarra naiz edo txarra naizela uste dut behintzat. Dena dela, nire koadrilako lagun batzuk xake talde batean aritzen dira eta mundu hori ez zait batere arrotza. Bestalde, xakearen elementua sartu nuen nobelan kolore eta ñabardura berezi bat emateko. Hala ere, xakea, batez ere literaturan, jolas hutsa baino zerbait gehiago da, elementu interesgarria da. Liburuaren sarreran R. Aguileraren aipu bat paratu dut: “Onartu behar dugu xakea borroka dela eta alde horretatik bizitzaren isla”.

Literaturan heriotza osagai funtsezko izaten da eta heriotza gerran gailentzen da. Zuk II. Mundu Gerra aukeratu duzu. Arrazoi berezirik?

II. Mundu Gerraren historia interesatzen zait, gerra honetako historia eta istorio txikiak. Gure mundua

ulertzeko gertaera eta istorio anitz gertatu ziren urte haie-
tan. Istorioak testuinguru berezi horretan kokatzeak
nobelari sakontasun apur bat emango ziola pentsatu nuen,
baita nolabaiteko erakargarritasun bat emango ziola ere.

Liburuan agertzen den benetako izen bakarra Ma-
ximilian plaza da, Berlingo plaza bat da. Baina nobelan
ez da inolako hiririk aipatzen. Nahita egindako kontua
da. Nik II. Mundu Gerraren ondoko giroa jaso nahi izan
dut eta testuingurua antzoki batean balego bezala eraiki
dut. Ez dut dokumentazio handiko lan bat egin eta
nobela ere ez nuen nobela historiko gisara landu nahi.

*Heriotza eta xake jokoa tarteko, izua nagusitzen da zure
nobelan. Krudela da kontatzen duzuna.*

Nobela xake partida anker baten moduan antolatu
nuen. Hasieran nahiko modu leunean hasten bada ere,
azkenean gertakizunak izugarri okertzen dira.

*Lehen pertsonan idatzia, izenik gabeko protagonista da li-
burukoa, lotsatia, uzkurra. Ez ikusmena ez usaimena, hotsa
da bereziki protagonistaren oroimena biziarratzen duena.
Zergatik hotsa?*

Gerraren hotsak oso presente daude gerra bizi duten
pertsonek gogoan. Protagonistak gerraren esperientzian
entzun zuena hotsez eta ahotsez oroitzea zen normalena,
gerran entzun zuena hotsen bidez eraman nahi izan dut
nobelara.

*Egiteko horretan dohain bat erakutsi duzu: irakurlea harri-
tzea, uste ez duguna gertatzea...*

Hori nahita bilatutako efektua da, jakina. Irakurleari
halako kolpetxoak ematea gustatzen zait, nobelan zehar,
kontatutakoaren eta irakurlearen interesari eusteko.

*Xake barruko elementuak kontuan hartuta: erregea, erregi-
na, mailaz mailako militarrek: protagonista peoia dugu.*

Ondorio bat atera dezakegu: aurrera atera zaitzke baldin eta zure aukerak ongi baliatzen badituzu...

... edo baldin eta mutikoa bezain azkarra baldin bazara behintzat. Nahiz jokoan edo bizitzan peoia izan, nahiz eta peoi gisan ari zaren, modu azkarrez jokatzeko baldin badakizu aurrera egin dezakezu, garaile atera zaitzke. Horixe da jakinduria

KOADROA

IDAZLE ELEBERRIGILEA

*“Hemengo idazleak lurrari atxikiak daude,
ez zaie fantasia gehiegi interesatzen”*

Idazle eleberrigile gisa azaldu zinen euskal literaturaren plazara Itzalaren baitan eleberriarekin. Ia 500 orrialde dituen nobela mardula. Testu moderno eta eleberri magikotzat joa...

Baiki, magia da *Itzalaren baitan* liburuaren gai nagusia. Betidanik gustatu zait nobela fantastikoa. Liburu honekin zerbait berria egin nahi izan nuen fantasiaren nobelaren munduan. Genero honetan topiko berberak agertzen dira ia beti, ezpatak eta dragoiak. Nik zerbait modernoa egin nahi nuen, eta batez ere, beste genero batzuetako elementuak sartu, hala nola, eleberri beltzaren mundukoak, beldurrezko kontakizunetatik ateratako gauzak, gaurkotasuneko gauza bat egin nahi nuen finean. Baina, hori lortu dudan irakurleak esan beharko du, noski.

Nola hartzen da genero hori euskal irakurleen artean?

Badirudi azken aldi honetan modan jarri dela, *Eraztunaren Jauna* eta *Harry Potter*ren liburuak horren

lekuko dira. Magiaren gainean eraikitako fantasiako istorioak dira. Baina, ez dakit euskal literaturaren munduan halako moda sartu den. Nik uste dut hemengo idazleak lurrari atxikiak daudela, ez zaie fantasia gehiegi interesatzen. Baina nire ustez beharrezkoa da.

Zure eleberri hau J.R.R Tolkienen literaturarekin lotu daiteke. Zer iruditzen zaizu Eraztunaren Jauna liburua eta egilea bera?

Itzalaren baitan liburua genero honekin lotzen ahal da, bai. Liburu honek betidanik liluratu nau. Bizpahiru aldiz irakurri dut, baita *The Hobbit* bere liburu ezaguna. Euskarara ere itzulia dago eta berriz ere irakurtzeko parada edo aitzakia ona da. Tolkienek mundu bat asmatu zuen eta, historian zehar, belaunaldiak eta belaunaldiak liluratuko dituen liburua sortu zuen, nire ustez. Badirudi gaur egun modan jarri dela, filmak direla-eta ospetsua egin dela. Baina, nire gustuko, filmak ere ondo daude. Zuzendaria Tolkienen jarraitzailea da eta ongi islatu du berak idatzitako mundua.

Literatur plazan modu onean sartu zinen. Bi sari irabazteko dohaina izan duzu.

Ni bezalako hasiberri batentzat, sariena bide bakarra da, edo bakarrenetarikoa.

Zerk harritu zaitu plazan agertze honetan?

Bada, agian, nire xumean izan dudan arrakastak. Uste baitut mundu honetan sartzea ni sartu naizen moduan sartzea baino zailagoa izan behar duela, hori zen behintzat nik nuen ideia.

Euskal literaturaren plaza edo beste gisa batez erranik, euskal literaturaren paisaia. Nola ikusten duzu berau?

Egia erran ez dut sobera ezagutzen paisaia hori. Ezagutzen dudan apurraren arabera, paisaia nahiko jen-

detsua ikusten dut, gero eta ñabardura handiagoko paisaia da, geroz eta kalitate handiagokoa.

Idazle gisa berriz, paisaia horretan zure burua?

Nik ez dakit paisaia horretan nire burua agertzen den ere, agertzekotan bigarren plano batean agertuko nintzateke.

2003/ ekaina

AINGERU EPALTZA

“Gizonok ez dakigu emakumeekin tratatzen”

Rock'n'Roll nobela Joseba Jaka II. Literatur Bekako sariduna izan zen. 2000ko abuztuan amaitua, Elkarlaneanek argitaratu zuen. Bi urte luzeren ondoren gaztelaniaz ikusi du argia, Tarttalo argitaletxearen eskutik, Aingeru Epaltzak berak itzulia. Egileak “belaunaldi bateko erretratua” eta “bere barne kontuak garbitzeko ahalegin” bat bezala aurkeztu zuen bere lana. Nobelak lanketa prozesu luzea izan zuen. Epaltzak 500 folio idatzi zituen, gerora, 400 bat orrialdeko liburua plazaratzeko. Bi istorio gurutzatu omen zitzaizkion buruan, bere kazetaritza denborak eskaini zion pertsonaia baten harian, batetik: “Kazetari desastrearen pertsonaia eraikitzeko nahia nuen, soslai bereziko kazetari bat”. Era berean, bazuen istorio bat, egiatzat saldu ziotena: opor bidaietan hiltzen eta autoan etxeratzen duten amonena. Hau da, bidaiako geldialdi batean, autobidearen zerbitzuguneko beharrak ase ondoren, familia kideak autora itzuli eta maletategian zegoen guztia ebatsi dieteneko istorioa, amona barne: “Ez dakit ez ote den hiriko legenda gisako bat”, esan digu autoreak. Bi istorioak lotu eta nobela gotorra mamitu zuen idazle iruindarrak. Umore beltzeko narrazio bipila, tragediazko nobela baina egilearen ohiko ironiaz

zipriztindua. Eleberriaz eta euskal literaturaz, oro har, aritu gara Aingeru Epaltzarekin, Iruñean.

Rock'n'Roll nobela hirian girotuta dago, hiria Iruñea izan liteke. Ez duzu kokapena zehaztu nahi izan, ordea.

Bai. Iruñea baino meta-Iruñea litzatekeelako. Hori Iban Zalduari aditu nion eta gustatu zitzaidan. Konparaziorako, hiriaren izena aipatzeak ezaugarri etniko batzuk ematera behartzen zaitu. Badira ezaugarri batzuk, koardilaren zentzu hori adibidez, oso hemengo dena, baina oro har, ezaugarri horiez gabetzen saiatu naiz, ez baitzitzaidan leku zehatz batean kokatzea interesatzen. Hala ere, iruindar batek leku eta giro ezagunak aurkitu ditzake nobelan. Iruindarrendako Iruñea izanen da, eta beharbada, liburuak balio gehitu bat izanen du, baina funtsean, gertatzen dena berdin-berdin gerta zitekeen Mendebalde aberatseko bertze edozein hiri ertainetan: Donostian, Zaragozan, Nantesen edo Birminghamen.

Nobelako pertsonaiak karrikan gurutzatu ditzakegun pertsonak al dira? Pertsonaia estereotipoak al dira?

Batzuk bai. Pertsonaia nagusietan ez dago izena eta abizenarekin izendatu daitekeenik, baina neroni gisa horretako jendearekin topatu naiz. Ez hain putakumeak, beharbada, batzuk, edo ez hain patetikoak bertze batzuk. Estereotipotik hurbil egon daitezke, baina nik horrelako jendea ezagutu dut, auskalo ni ez ote naizen halako bat.

Eduardo Saragueta, protagonista, galtzaile, antiheroia da. Adiskidetasunaren kritika al da nobela?

Adiskidetasunaren kritika egin baino areago, protagonistak nolabaiteko distantzia batetik ikustea zen nire nahia. Maiz, adiskidetasunaren moduko laudorio txoro bat egin ohi dugu gure artean. Nik adiskideak baditut, handiak gainera, baina adiskidetasuna nolabaiteko distantzia eta hoztasun batetik ere ikus daiteke. Adiskideta-

sunaren sakralizazio hori oso lotua egoten da gaztetasunaren laudorioarekin edo gaztetasunaren sakralizazioarekin berarekin eta nik gaztetasuna goratzeko joera ergel horren kontra ere jo nahi nuen. Beharbada, zahartzen ari garenez, autoterapia baizik ez da.

*Lagunen arteko deskripzio krudela, patetikoa, maitekorra, baina ez nostalgikoa egiten duzu. Pertsonaiak gure miseria-
ren isla dira, nolabait.*

Baliteke. Batzuetan lagun arteko egoerak edo bizipenak modu esperentiko batean eman ditut, gu geu ere pixka bat horrelakoak garelako. Finean, protagonista nagusia, Eduardo Saragueta, gizagaixo bat da. Gauzak txukun egiten saiatzen da, badauka kontzientzia eta moralara. Hautu batzuk egiten ditu, senetz eta intuizioz, baina ez daki zehazki zergatik. Eta nahiz eta saiatzen den, oso tipo desastrosoa da. Horretan ere bagara islatuak. Funtsean, pertsonaia horrengandik ez gaude hain urruti.

Iban Zalduak sexuaren gaia aipatzen du liburuari eginiko kritikan. Liburua maskulinoa ote?

Sexu harremanak ikuspegi oso maskulino batetik kontatuak dira, baina ez dut uste liburu matxista denik horregatik. Pertsonaia nagusiak bizi dituen miseria andanaren gainean gaur egungo gizasemearen patua agertzen da. Hau da, gizonok ez dakigu emakumeekin tratatzen. Alde batetik, hezibidez etorri zaigun matxismoa utzi nahi dugu, progresistak sentitzen gara, baina ez dakigu benetan nola jokatu. Hori islatu nahi izan dut.

Belaunaldi baten isla egin duzu baina egoera politikoan sartu gabe. Nekeza al da bizi dugun egoera sozio-politikoaren deskribatzea?

Nahita egin nuen horrela. Donostian ez dakit, baina Iruñean –nik ezagutu nuen jende gehiena behintzat– gehiengo ez zegoen politizaturik, ez deus ere. Politizatu

gutxiengo bat izan da, baina gutxiengo hori da literaturara eraman ohi dena.

Alabaina, memento batean, faktore politikoa ukitzeko tentazioa izan nuen, Iruñean kokatu gabe ere, faktore hori eransteko tentazioa-edo. Nobelako lagun koa-drila, fraide ikastetxeko ikasle ohiak, Ikastolako lehen promozioiko ikasle ohiak lirateke! Pentsa nola aldatuko litzatekeen istorioa! Horrek egitura problema handiak ekarriko lituzke ordea, hizkuntzaren gaineko aipuak egitean, kasu.

Nobela gaztelaniarik ez balego bezala kontatuta dago, istorioa euskaraz bizitakoa da. Bide hori hautatuz gero, bertzalde, ezinbertzekoak izanen ziren politikari buruzko aipuak. Orduan, protagonista nagusi bakoitzari zein etiketa politiko erantsi beharko nioke? Trapitxeroari ezker abertzalearena, enpresari zerriari UPNrena eta lanbide liberala duenari sozialistarena? Zergatik? Hori niretako asotsa edo harrabotsa zen, zarata. Ez zen hori kontatu nahi nuena.

Demagun ausartzen zarela gure giro politikoa, soziala eta gatazkatsua idazten. Ausartuko al zinateke oraingo liburuan azaltzen den belaunaldi hori deskribatzen?

Alde batetik, egina dut honezkero *Ur uherrak* nobelan. Bertzalde, gaiari berriz ekinen banio, saiatuko nintzateke beharbada zeharbideren bat bilatzen. Genero historikoak, konparaziorako, aukerak ematen ditu horretarako.

Nobelaren bilakaera

Liburuak bi urte luze bete ditu karrikan. Harrera epela izan zuela erran duzu inoiz, zarata handirik gabe pasa izan zela.

Neurri batez edo bertzez, idazle guztioi gertatzen zaigu hori. Lana beltz egiten dugu, esperantza handiak

jartzen ditugu liburu berrian, eta emaitzak, gehienetan, ez dira esperantzen heinekoak izaten. Ustekabe atseginak gutxitan izaten dira. *Rock'n'roll* liburuari inoiz baino denbora eta lan gehiago eskaini nion, eta itxaropena ere handiagoa nuen bertzetan baino.

Liburua Bilbon izandako literatur jardunaldietan hizpide izan da berriki. Jarraitzen duzu berdin pentsatzen?

Gaur egun, lasai pentsatuta eta gauzak bere lekura etorriak, ez naiz noski hainbertze kexatzen ahal. Baina salmentak dira, tamalez, liburu baten arrakastaren neurria. Eta liburu honek badauzka oso salgarri egiten ez duten halako ezaugarri batzuk. Batetik, liburu potzoloa da eta izenburua nahasgarria izan zen. Batzuek ez zuten liburua nobelatzat hartu. Badira saiotzat edo musika liburutzat hartu zutenak. Halaber, ez ohiko edizio batean atera zen, garestiago. Horrek nonbait ez zuen lagundu.

Bilbon liburuak zer esana eman du berriz ere. Zer ondorio atera duzu?

Euskal literaturan minoritarioa naizen sentsazioa edo pertzepzioa daukat, ez dut uste oker nagoenik. Liburua Bilboko jardunaldietan kontuan hartu zutenean, pentsatu nuen: “Ez nuen oso garbi hildakoen berpizkundearena. Baina baliteke *Rock'n'roll* nobela berpiztu ahal izatea” (Irriak).

Nobelaren itzulpena

Nobela gaztelania ez balego bezala kontatuta dagoela esan duzu, euskaraz bizitakoa dela. Zer suposatuz dizu horrek itzulpena egitean?

Nire iduriz, ez euskaraz ez erdaraz irakurleak ez dio inolako mementoan bere buruari galdetzen zer hizkuntzatan ari diren, benetan, liburuko protagonistak. Euskal

literatura horrenbertze aitzinatu da azken hogei urteetan! Gero, bigarren plano batean, istorioa niretzat Iruñean edo Iruñea bezalako hiri batean gertatzen denez, ez zait batere zaila gertatu nire pertsonaiak erdaraz imajinatzea.

Beraz, kontu horrek ez dit zailtasunik ekarri alde horretatik, izatekotan alderantziz. Kasu batzuetan neronek ere sumatu dut pertsonaiak beren giro naturalera ekartzea bezala izan dela itzulpena, nolabait ere, nobelak euskaraz fikzio-karga erantsia izan eta, gaztelaniara bihurtuta, horretaz arindu banu bezala.

Bestela, nola moldatu zara liburua itzultzeko?

Memento batzuetan amesgaizto bat izan da. Ia urte eta erdi egin dut liburua itzultzen. Lan honek buruan edo zirriborroetan nituen bertze egitasmoak atzerarazi dizkit eta horrek halako urduritasuna sorrarazi dit hondarrean. Nolanahi ere, gaztelaniaz idazteko ohitura badaukat, itzultzaile bainaiz lanbidez, baina zure burua itzultzea neketsua da batzuetan.

Zergatik?

Zu zara liburuaren egilea, lana zurea da, eskubide-dun sentitzen zara aldaketak egiteko eta, nahigabeen ere, nolabaiteko birsortze lanean hasten zara. Horrek arras puntu nekagarriera eramaten zaitu, inoiz gelditzen ez den zirrikari bueltaka ari bazina bezala. Ez dakit berriz ere eginen nukeen!

KOADROA

Nobelaren luzera auzitan

Nobela hizpide honela esan du orain gutxi Unai Elorriagak: “Nobela luzeak idaztea irakurlea gaizki tratatzea da, nobela luze oso onak daude, baina horiek

orrialde gutxiago izan balute, askoz hobeagoak lirateke”. Epaltza ez dator bat Elorriagarekin.

“Egia da batzuetan nobela luze bat irakurtzean neronek ere izan dudala halako sentsazioa: ‘adreilu honek 100 orrialde soberan ditu’. Unaike errandakoa orokorke-ria bat da, eta ez dut uste nobela luze bat idaztea irakur-lea gaizki tratatzea denik. Ni, irakurle gisa, inoiz baino mimatuagoa sentitzen naiz nobela luzea eta ona denean. Jakina, nobela zenbat eta luzeagoa egin, halaberean uga-ritzen dira kontakizuna behera etortzeko, hanka sartzeko edo zure tranpatxoak agerian uzteko arriskuak, eta horrek hondora eraman dezake nobela bat. Luze eta txarra bada irakurlea are gehiago gogaitzen duzu”.

“Periferiako idazlea sentitzen naiz, baina ez dut gehiago nire burua zigortzen”

Demagun euskal literatura paisaia gisa irudikatzen dugula, hots, liburua margo edo koadro baten gisara so egi-ten dugula. Nola ikusten duzu euskal literaturaren paisaia?

Paisaia izatekotan, koadro puntulista baten gisan iru- dikatzen dut euskal literatura. Hau da, urrutitik begira- tuta kolore masa batzuk ikusten ditut koadroan, kolore grisa izanen litzateke nagusia. Alabaina, koadrorra hurbil- du ahala, puntuak nabaritzen hasten dira eta orduan ko- loreak ikusten dira. Ziur aski, kanpotik ikusten dena baino aise ere kolore gehiago du gure literaturak.

Idazle gisa berriz, nola ikusten duzu zure burua paisaia horretan?

Ni puntu horietako bat izanen nintzake, koadroaren bazterrean-edo. Baina ez nintzateke ausartuko erratera zer koloretakoa den puntu hori. Nik atsegin nuke –han- tustea ere izan daiteke nire aldetik– euskal literaturaren

paisaiaren kolorea biziagotzea eta kanpotik ikusten den kolore gris hori jantziago agertzea.

Bazterrean izate horrek, periferiako idazle izatearekin zerikusirik ba al dauka?

Bai, periferiako idazlea sentitzen naiz, neurri batean. Baina ez dut gehiago nire burua zigortzen horregatik. Nafarra izateak, nolabait, zentro kulturaletik kanpoan ezartzen nau, idatz moldetan ere ez naiz hagitz estandarra eta ez dakit estandarra izateko borondaterik dudan ere. Horrek periferian ezartzen nau gisa batez. Hala ere, bartzuetan, zorrea izan dut, zentroa periferiatik hobeki ikusten delako, zentrotik beretik baino.

Ez zara idazle estandarra. Erabiltzen duzuen estiloa, lexikoa edota erregistroak jende gehiagorengana iristeko muga ote dira?

Baliteke, irakurleak murrizten dizkit behintzat. Alta, bada, gure baitatik ahalik eta gehiena eman behar dugula uste dut. Liburu bakoitzarekin nire buruari galdetzen diot ea nire ezaugarriak aldatu beharko ote nituzkeen. Mementoz nire horretan ari naiz, liburuak epe luzeko perspektiba batekin egin behar direlakoan bainago, epe luzeko apustuak egitea ona da.

Desliluraren isla eta esperantzazko nobela

Nobela krudela izan arren maitasunetik gehiago dauka gorrototik baino. Egilearen aburuz *Rock'n'Roll* deslilura handiaren isla da, baina, esperantzazko nobela ere bada. Lou Reedek hori transmititzen du *Rock'n'Roll* kantuan: "...Badakizu? Rock and rollak bizia salbatu zion. Anputazio guztiengatik ere, dantzatzen ahal zinen rock and roll irrati batekin...". Epaltza oso rock zalea da. Berarentzat Lou Reed bada norbait rock munduan.

Nobelaren izenburua *Rock'n'roll* kantuarien erreferentzia da, Aingeruk eta koadrilako lagunek anitzetan aditzen zutena: “Liburua LP bezala ulertu behar da ordea, mota guztietako kantak biltzen dituen, arinak batzuk, gogorak beste batzuk, baladaren bat ere tartean”. Bilbon kritikari batek esan zuen *Rock'n'roll* baino areago, Lou Reeden *Berlin* diskoa antzeman zuela liburuan. Izenburu horrek ere balio zezakeen, beraz.

Aingeru Epaltzaren *Ur uherrak* nobelak bluesa iradoki zigun, *Tigre ehizanek* folka. Euskal gatazkaz idatzitako nobela batek iradoki beharko ligukeen musikaz galdetu diogu: “Ez dakit! Batzuetan punk edo triki-punk jarri beharko genioke, bertzetan makina hutsez eginiko musika”.

Azal ezberdineko liburua

Euskarazko edizioaren azalean Lou Reed agertzen da, gaztelaniazko bertsioan berriz, Iruñeko karrika bat:”Lou Reed agertzeak irakurle mota bat ez ote zuen nahasi pentsatu izan dugu, atera zen mementoan musikari buruzko liburutzat hartua izan ez ote zen. Horregatik azala ezberdina ezarri diogu. Karrika ilun bat da, ostatu bat agertzen da aitzinean eta gibelean Iruñeko San Zernin elizaren dorrea, baina dena buelta emanda, hau da, irudimenean baizik existitzen ez den perspektiba batetik hartuta, nolabait Iban Zalduak aipatzen zuen meta-Iruñea horren idurira”.

2003/uztaila

HASIER ETXEBERRIA

**“Fikzioak nobelan funtziona dezan,
errealitatearen tratamendua behar du”**

Euskal literaturan nobelaren luzera eztabaidarako gaia da azken aldi honetan. Hasier Etxeberriaren *Eulien bazka* nobela, berriz, Susak argitaratua, di-da batean irakurtzen da. Ezaugarri hau berez, eleberria generoaren aldeko ezaugarria dateke. Haatik, berau irakurtzen baduzu, irakurgarria baino zerbait gehiago dela ohartuko zara. Literatur genero hau gustuko baduzu, eleberriarekin eta orobat literaturarekin maiteminduko zaituen liburua da *Eulien bazka*. Istorioa klabe beltzean harilkatuta dago, istorioaren tramak baina, beste hainbat osagai daramatza berarekin. Irakurleak istorioaren pertsonaiak oso testuinguru zehatz batean aurkituko ditu: Bidasoa eskualdean. Bidasoan eta bere inguruetan fikzio antzean ibili ondoren, errealitatera itzuli eta Hendaiako etxean hartu gaitu nobelaren egileak.

Inesaren balada eta *Bost idazle* liburuak gauzatu bitartean idatzitakoa da *Eulien bazka* eleberria. Literaturan hainbat lan burutzeaz batera, kazetaritza lana egiten duzu egunero. Modu horretara, ez dirudi literatura gauzatzea erraza izan behar duenik...

Jartzea da kontua. Itzaltzen duzu telebista, libratzen zara zabor ikaragarri horretatik, zeure benetako gustuei zintzo behatzen diezu, pizten duzu ordenagailua, eta abiatu egiten zara. Gero gerokoak. Literaturgintzak batzuetan poz ematen du eta besteetan min. Biak dira horiek onak. Txarrena ezer eragiten ez dizunean da.

Zein onura ditu lan egiteko molde horrek?

Hara, niri literatura idaztea asko gustatzen zait, baina panfletoak ere idatziko nituzke, iragarkiak, baita komuneko paperaren zelofanean doazen letrak ere. Zernahi. Gutunak, artikuluak, gidoiak, esketxak, besteentzako diskurtsoak. Idazte kontua baldin bada, dena gusztatzen zait, bakoitza bere neurrian.

Eulien bazka eleberrian genero beltza erabili duzu. Zertan lagundu dizu genero honek nobela idazterakoan?

Genero beltza primerakoa da istorio bati aurrera eragiteko eta, horretaz gain, baita garai eta gizarte bat deskribatzeko tenorean ere. Onura handiak dira horiek idazle batentzat. Nolabait esateko, halako egitura bat onesten ditzunean, arkitektura egina daukazu ia, gutxi edo asko. Igeltserotza bakarrik geratzen da egiteko. Badakizu suspentsea sortu behar duzula hasiera aldean eta gero hari eutsi behar diozula nobelan zehar, ahal bada haziz eta haziz, azken hitzeraino.

Liburuaren hasieran Roland Barthes eta Antonio Lobo Antunes idazleen bi aipu paratu dituzu, zure asmo eta nahiak agertzeko gisan, nolabait: “Le récit le plus réaliste qu'on puisse imaginer se développe selon des voies irréalistes” (Irudika dezakegun kontakizun errealistena, bide irrealistetatik garatzen da) eta “Eta, honek funtzionatzea lortzen badut, honek guztiak funtzionatzea benetan lortzen badut, instantean oso urruti aurkituko zarete, zeuon buruak ez ikusteko adina urrundurik”. Aipu hauen harian, zer eskatzen diozu nobela bati eta honi konkretuki?

Eulien bazkari dagokionean, eta pedantea gertatzeko arriskua kontutan hartuta ere, zera, errealitatea eta fikzioaren jolasa, hainbestetan aipatzen den *leit motiv* hori, erabili nahi izan dut neuk ere. Eta ikasi dut ikasgaia: fikzioak nobelan funtziona dezan, errealitatearen tratamendua behar du, errealitatearenak funtziona dezan fikzioarena behar duen neurri berean.

Zer dago nobela honetan kontzienteki eta inkontzienteki idatzia?

Nobela honetan gutxi dago inkontzientetik. Hitz bakoitza eta guztiak berariaz daude idatzita. Idazten jarri aurretik erabakita neukan zer esan nahi nuen eta zein istorio behar nuen horretarako. Gero, egia da, gauzak beti aldatzen direla apur bat, baina literatur jardunaren alde gozagarrietakoa da hori.

Zein izan da kezka handiena, erritmoa lortzea akaso?

Nire kezka handiena, ni bezalako irakurle batentzako moduko nobela idaztea da. Istorio interesgarri bat, forma berrian ematea. Intentzio horrekin egin dut, bederen. Baina, bai, erritmoa ere izan da beste xedeetako bat. Genero beltzaren beste gauzetako bat da hori. Idazketak ez badio piztutako suspentseari laguntzen, galduta zaude. Belarriak asko lagundu dit niri. Tresna oso ona da belarria, idazteko orduan. Niretzat bederen.

Nobela oso inguru zehatzean eraiki duzu. Erdi-gunea Bidasoa eskualdean kokatu duzu. Ez diozu, esate baterako, jatetxe edota monumentuen izenak aipatzeari uko egiten. Badago aspektu hau kritikatu duena ere bai...

Bai, badakit irakurle bati gutxienez, arrotza egin zaiola leku ezagunen izenak aurkitzea. Ez dakit zergatik. Soroan autopistarik ez daukagulako izango da apika. Tradizio handirik ez daukagulako edo nik ez dakit zergatik. Har ezazu edozein idazle frantses, esaterako, eta *La*

gare de Montparnasse idazten duenean, ez da ezer pasatzen. Estatu Batuetako nobeletan, zenbat aldiz agertzen da Brooklyngo zubia, edo Central Park? Guk zergatik ezin dugu halakorik egin, zergatik ibili behar dugu beti izendatu ezinezko paraje zehaztugabe artean? Laino apur bat ondo egon liteke, eguraldi goibela egiten badu, baina istorio bat San Mamesen gertatzen bada, zergatik ezin dugu aipatu San Mames? Zergatik ezin ditugu erabili inguruko harmailak, taberna, kale eta monumentuen izenak? Ez da normala.

Arte zalea zara, esperimentazioaren aldekoa. Literaturan ere joera hori hobesten al duzu?

Behin elkarrizketa negargarri bat egin nion Alain Robbe-Grillet idazleari. Nouveau Roman delakoaren aitapontekoari. Putakume galanta iruditu zitzaidan gizon hori maila pertsonalean, baina Zesarri berea eman behar zaionez, gauza bat bederen esan zuen interesgarria: “nobela berri bakoitzak berritzaile izan behar duela forman ere, goitik behera. Bestela ez duela merezi”. Andu Lertxundiri gauza bertsua entzun izan diot sarri. Zer egiten dugu XIX.eko kontaera erabiltzen gaur? Kontua da horrelako gauza bat egitea oso zaila dela eta idazleak askotan etsi egiten duela bidean. Zuk esperimentalismoa aipatzen duzu, eta horixe da zinez egin beharrekoa, baina ez hutsaren truke egiten den esperimentalismo antzu eta snob hori, plastikaren eta musikaren munduan bereziki hainbeste gailendu den iruzur lotsamangarri hori. Esperimentalismoa lorpenerako biderik onena da, eta lorpen orok gaititu egin behar du bere atzeko guztia. Bestela kale. Zaila da hori egitea gero. Bai literaturan, bai plastikan, bai sukaldaritzan, baita zientzian ere. Bai, nire ustez, idazleak kezka horrekin idatzi behar du. Idazlea ere artista eta sortzailea da. Aherentzi egiten zaigu maiz. Eta alde horretatik, idazleak bere intimitatean badaki funtzionatzen duen berritasuna dakarrenean soilik egiten duela, bingo!

Nobela beltza, baina ukitu soziala duena. Euskal gatazkari ere erreferentzia egiten dioena. Ironia da zure lanabesetako bat. Ironia arriskutsua ote?

Ironia ez da arriskutsua. Zeren arriskua dago, bada, balizko irakurleren bat galtzekoa? Ironia, esaten dena gustatzen ez zaionarentzat mingarria izan daiteke, agian, baina erreminta ikaragarria da idazlearentzat. Batez ere, gauzen ikuskera hitz zehatz eta luzeen beharrik gabe agertzeko. Sintesi koloretsu bat da ironia, iradokitzailea zeharo. Zabala askotan, poetikoa ere bai zenbaitetan. Eta, batez ere, higienikoa. Oso higienikoa. Bai idazlearentzat eta baita irakurlearentzat ere.

Literatura gai egokia al da literatura egiteko orduan?

Baietz uste dut. Nobelaren krisia aipatzen den ba-koitzean, ohiko nobelaren apurtu beharra eta, finean, berarentzat asmatu behar diren forma berriak aipatzen dira. Nobela heriotzatik salba dezakeen bakarra nobela bera da. Fikzioa kontatzeko era tradizionalari elementu eta bide berriak ezarri behar zaizkio gaur. Askotan literatura eta fikzioari buruzko gogoetak ere bai. Hasita gaude horretan, ikusi bestela, esaterako, Joxean Agirreren azken eleberria: *Romain zen bere izena*.

KOADROA

**“Irakurria izateko esperantzaz idatzi dut.
Bekatua dirudi hori aitortzeak”**

Har dezagun literatura paisaia gisara. Nola ikusten du Hasier Etxeberriak euskal literaturaren paisaia?

Oraindik aski ibili gabeko soroa da, baina dagoe-neko ikusten dira bidezidorrak, erreten batzuk ere bai.

Baita galtzadak ere. Autopistarik ez dago oraingoz. Batzuk kexu dira horregatik. Ni, ez.

Idazle gisa berriz, paisaia horretan zure burua?

Erreten txiki-txiki bat egiten ari den kamineroa naiz ni, izatekotan. Eta irakurle naizen aldetik, ostera, erle bat naiz, edota kolibri bat. Lorez lore beti.

Irakurlea kontuan hartzen duen idazlea zarela esan duzu inoiz.

Bai, behin esan nuen hori, baina ez dakit ongi ulertu zitzaidan. Asmatu edo ez asmatu, nire pareko irakurle batentzat idatzi dut azken nobela. Liburuak irakurtze-koak baitira berez, eta horrek baldintzatu egiten du idazketa. Irakurria izateko esperantzaz idatzi dut bai. Bekatua dirudi hori aitortzeak, baina, azken finean, liburu bat kultur kontsumorako ekoizpen bat da, jendearen eskuetan amaituko duen objektu zehatza. Kontua da, hori esaten baduzu, *best sellerkeriarekin* nahasten dituztela zure hitzak. Eta ez da hori, ez da hori.

Nobela hil ez dadin idazten duen idazlea, apika?

Ez, hori ez. Nik badakit ez dudala fitsik salbatuko. Are gutxiago nobela. Gainera, zeregin horretarako badaude hobeak gurean. Zorionez.

Nobela etengabe berritzen ari den generoa izaki, zer nobela mota lehenesten duzu?

Ez naiz oso irakurle konplikatu. Istorio interesgarri eta berriak era erakargarri eta berrian kontatzen dituzten nobelak ditut maite. Literatura berarekin, zuzenki ukitzen nauten gaiekin edo arte plastikoeekin lotuta baldin badaude, hobe. Ez naiz literatura psikoanalitikoaren oso zalea, nahiz eta Imre Kertesz eta horiek gutiekin gozatu ederrak hartu ditudan oraintsu. Irakurtzen ari naizen nobelaren mantalean harrapatu bidez

gustatzen zait niri, eta horretarako potentzia ere behar du kontakizunak. Bestela, jai dago. Liburu on batek, bere menpeko txorimalo bilakatu behar nau, ezer baino lehen.

“Soilik hurbilekoek ezagutuko dituzte nire errealitatearen aztarnak nobelan”

Damian Arruti, nobelaren protagonista, entomologoa da eta Ertzaintzarentzat egiten du lan. Gorpuen adina asmatzea da bere lana, bere eulien edota zomorroen azterketen bidez lortzen duena. Une batez, honen emaztea desagertu da eta gorpu bat aurkitu du Ertzaintzak. Garai berean, Damian Arrutik minbizia duela jakin du. Nobelaren protagonista hil zorian dago, orduan hasten da bizitzen, ordea. Orduan abiatzen da nobela...

Arruti protagonista eta Etxeberria idazlea pertsona ezberdinak izan arren, nobelan idazlearen bizitzakoak izan daitezkeen gertaerez aritu gara egilearekin: “Damian Arruti eleberriko pertsonaia entomologoa da. Ni ez. Baina jolas egin nahi baduzu, esan dezagun baietz, nire bizitzako gertaerak ere badaudela fikzioaren maila berera eramanda. Zer ardura dio horrek irakurleari? Zer ardura dio zatituta agertu den gorpu hori nire andrearena den edo ez jakiteak? Zer aldatuko du horrek? Nobelaren forma onartzen du hasieratik idazleak eta baita irakurleak ere. Lizentzia adostua da hori. Berdin dio ni martziano bat naizen edo ez jakiteak. Soilik hurbilekoek ezagutuko dituzte nire errealitatearen aztarnak nobelan, eta, seguru asko, irakurketaren kaltean”.

Egilea literaturaz eri dagoela imajinatu dugu eta nobela hau, agian, terapia ona izan dela berarentzat. Hone-tan, aurrekoetan lortu ez zuen zerbait lortu ote duen komentatu diogu: “Ni eta zu ez gara atzokoak, zorionez. Eta nobela hau gaur idatzi dut. Gaur naizen honek idatzi du, gaur euskarak badaukala uste dudana irakurlearentzat.

Haiek idatzi nituenean ere gaur zen. Hori beti da horrela. Idazleak une orotan egiten du ahal duena, batez ere, ekonomia aldetik ezer konponduko ez dizun produktu literario bat idazterakoan. Esaten dutenez, horixe dugu euskal idazleon malura, baina niretzako nago, malura baino, ekosistema bikaina dela nahi dugun bezala idazteko. Askok nahi luke askatasun eremu hori. Nik, behintzat, begiratzen diot hasieran aipatu duzun gure paisaia horri eta fruitu eder askoak ikusten ditut. Hori bai, tatian-potian. Tantoka mantoka”.

Idazkera eta irakurkera erraza bereizi beharraz

Idazkera erraza erabili duela esan diot Etxeberriari: “Oker zaude. Oso oker. Idazkera erraza diozun lekuan, irakurkera erraza esan behar zenukeela uste dut. Askotan nahastu egiten dituzue bi horiek. Ez dira kontu bera. Testu bat irakurgozo gerta dadin, lan asko egin behar du idazleak. Ez da batere erraza izaten hori lortzea. Zuk “idazkera erraza” deitzen duzun hori, oso zaila da lortzen. Egin ezazu bestenaz, frogà”.

2003/uztaila

BIXENTE SERRANO IZKO

**“Askatasunaren gauzapena ez da inon,
ibilbidean baizik”**

2001eko Juan Zelaia Sarian Jon Alonsoren *Agur Darwin* eta Joxe Manuel Odriozolaren *Euskal Intelligentsiaren ideologia zantzuak* saioek lehen eta bigarren sariak erdietsi zituzten. Bixente Serrano Izkoren “*Beldurra bera zaldi*” (*uhalik gabeko askatasuna*) liburua saririk gabe geratu zen, alta bada, Pamiela argitaletxeak argitaratu zuen. Liburu honen egilea historia irakaslea da. 1948an Saratsan jaioa; Iruñerriko herrixka batean. Askatasunaren aldeko borrokan aritua izaki urte luzetan, bere esperientziatik eta berezko jakintzatik ondu du saio hau. Askatasuna helburu izanagatik, helmuga izan beharrean, Bixente Serrano Izkok eguneroko ibilbidean aurkitu beharreko nahi gisara proposatzen digu askatasuna.

Zer gogoeta egiten duzu zure liburuaren gainean, gaurdanik ikusita?

Generoa nahiz gaia zein den kontuan hartuta, argi daukat ez dela halako moda baten araberrako best-seller bihurtzeko liburu bat. Hausnarketak egitera gonbidatu nahi duen zerbait da, pixkanaka dastatzeko zerbait izan nahi du, irakurleari interesa pizten baldin badio behin baino gehiagotan irakurtzeko, agian osorik, agian zatika.

Bertzalde, denbora pasa ahala irakurle berriak lor ditza-keen liburu bat delakoan nago. Baina batik bat, berri-rakurri ala ez, ideia edo sujerentzia berriak erein nahi ditu irakurlearengan, hau berau gero, agian jakin gabe ere nondik datorkion irudikapen berri hori, hortik abia dadin bere kabuz bertze hausnarketa berrietan barna.

Zergatik liburu hau?

Uste nuelako zerbait errateko nuela eta, aldi berean, argitaratzeko aukera nuelako. Zerbait errateko hori zer den? Bada, askatasuna eta handitasuna edo heroismoaren arteko lotura ohiko hori, oro har Mendebaldean baina bereziki Euskal Herrian, ezbaian jarri behar dugula.

Norentzat idatzi zenuen liburu hau?

Irakurleria zehatz bat baino gehiago, buruan nuena bertze haxe zen: gai horretaz interesik duen edozein irakurleri nola eskaini dakizkiokeen ikuspegi berrietarako aukerak. Noski, kultura maila bat izan behar du liburu honen irakurleak, baina ez zentzu akademiko batean. Hiritar politikoki edo kulturalki edo sozialki aktibo denak, esperientziak dituenak, dudarik gabe bere buru-tazio propioak eta kezka bereziak ditu askatasunaren inguru-an. Nire ahalegina hau izan da, planteamendu teoriko anitz gure gizarteko egunerokotasunean bizi ditugun hainbat kezkarekin lotzea. Ez dut uste irakurleak, bere espe-rientziak baldin baditu, aditua izan behar duenik nik aipatzen ditudan filosofo hauen ideiak bere bizipen eta kezkei lotzeko, eta bere kabuz sakonago pentsatzeko gero.

Esperientzia eta jakintza uztartu dituzu zure bizitzan. Askatasunaren bila hasi zinen borrokan gaztetatik eta askatasuna da zure liburuaren ildo nagusia. Zer da askata-suna zuretzat?

Funtsean zerbaitetik hanka egiteko nahi bat. Bigarren mailako kontua da nora joan nahi dudana, zeren bila

nabilen. Gainera, inoiz ez gara heltzen helmuga ustez aske batera, baina bidean bertan libre ibiltzen gara. Utopia erakargarri edo iman-utopia batek baino gehiago, liburuan arku-utopia deritzodanak mugiarazten nau: hau da, askatasunaren gauzapeña ez da inon izanen, mundu berri batean edo, ihesean bertan, ibilbidean bertan baizik.

Frankismoaren garaian, "zertarako libre izan?" galdera planteatzen zen. Gaur egun aldatu al da galdera hau planteatzeko modua?

Gaur egun guztiz libre garela datu funtsezkotzat, naturaltzat, har dezagula nahi da. Sakratua egin dute askatasuna, jainkosa ukiezin bihurtu dute, aldare batean jarri, dela konstituzioaren aldarean, dela Europa ekonomikoaren aldarean. Jainkosa horien gorputzak libreago uzteko edo erabat aldatzeko nahia, askatasunaren, naturaren kontrako bekatu gisa ikustarazi nahi digute.

Askatasunak beldurra du akuilu. Askatzailea eta ekintzailea izan zara. Agertu zer den zuretzat beldurra.

Gure-gurea da beldurra, denon kontua. Eta beti, historia hasi zenetik, zerbaiten beldur mugitu dira gizakiak; gehienetan, bertze zerbaiten bila abiatu dira, baina inoiz ez dute lortu amesturiko bertze zera hori; halarik ere, askapen bidean ibili dira. Beldurrak, noski, amildegi batera eraman gaitzake, baina aurreko egoera beldurgarri bati ihes egitera bultzatzen gaitu. Edo horrela dela aitortzen dugu, edo askatasuna lau heroiren kontu bat dela aitortu beharko dugu. Baina askatasuna gutariko bakoitzaren kontua da, geure beldurrak eta guzti. Maiz entzun zaizkio ustezko eta une bateko heroi askori erratea beraiek ez zutela ezer berezirik egin, ez direla heroiak izan. Eta egia da. Beldurrak berak eraman ditu, funtsean, ez-usteko bat, ustezko ekintza heroiko hori egitera.

Askatasuna nahimenaren gauza bat da, ez beharraren kontu bat. Paradoxa bat da beraz. Zuk nahimenean kokatzen duzu askatasuna, ez arrazoian edo adimenean.

Guk libre nahi dugu izan, eta arrazoiari, gehienez jota, aholkuak eskatuko dizkiogu nahi hori asetzeko. Askatasuna arrazoian kokatzea libre izateko behar logikoa onartzea da, kontraerrankorra hortaz. Nahimenaren eremuan kokatzean askatzen dugu askatasuna paradoxa horretatik.

Azken hamarkadetako euskal gizartearen bilakabidea eza-gutzen duzu, heroismoa ez duzu guztiz arbuizatzen, baina kritikoa zara.

Heroien kontua, nire planteamenduan, garai bateko abangoardien kontuaren antzekoa da. Paper bat bete dezakete lau “heroik” une historiko batzuetan, baina askatasun bila ibiltzen badira konturatu behar dute inor ez dela libre izanen ez badu nahi. Edo gutariko bakoi-tzak, gure koldarkeria eta guzti, nahi dugu libre izan, edo inork ez digu askatasunik emanen.

Gure gizarteak beldurren edo beharren eskasik ote dauka, libreago izateko?

Kontsumismoaren moldeko ongizatearen eta konformismoaren beldurgarritasunaz ohartu beharko da gure gizarte libreago izanen bada.

Uhalik gabeko askatasuna ez al da utopia bat?

Jakina. Baina orain arteko iman-utopiak deitzen ditudan horiek, helmuga bat planteatzen zuten horiek, gaur egun indarra galdu egin dute. Ez aldiz arku-utopiek, abiapuntutik etengabe ihes egin nahi dutenak.

Nahia eta ihesa dira askatasunaren motorrak. Gizakiok naturatik ihes egin genuen. Gaur egun, askatasuna lortzeko gizartetik ihes egin beharko genuke, naski. Norantz?

Askatasunari helbururik jarriko zenioke bilakabide horretan?

Jar daitezke helburu batzuk, eskubide anitzen lorpena, noski. Baina lortu ezker, indar berriez berriro ihes egiteko nahiari esker jarraituko dugu libre izaten. Bertzela, kate berriak bihurtuko zaizkigu lorturiko helburu horiek.

Askatasunaren bidean legeak gizartearen kontuak dira. Naturan ez dago legerik, naturan beharrak daude. Zure iritziz gizartearen legeak naturaren beharren antzean bihurtu nahi ditugu, gure legeak naturaren kontuak balira bezala, eta hori tranpa hutsa da. Sakondu aspektu hori amiñi bat.

Garai batean, gizarte baten legeak finkatzeko, jatorri erlijioa eman ziguten gizabanakooi. Ukiezinezko legeak ziren, betiko legeak. Gero, arrazionalismoarekin, iusnaturalismoa teorizatu egin zen, hau da, naturak berak emandako agindu gisa aurkeztu ziren legeak. Baina gizarteak berak, gizarte bateko nagusiek edo nolabaiteko botere duten sektore desberdinen arteko itunek egiten dituzte legeak. Eta unean uneko boteredunek ukiezinezkoak nahi dituzte lege horiek. Naturaren legeak, lege fisikoak deitzen ditugunak, zientifikoki, bertze kontu bat dira: gure adimenaren kategoriak dira naturaren osagai aunitz guk geuk ulertu, sailkatu eta erlazionatzeko. Grabitate-legea ez da lege bat, baizik eta lurrera erortzeko orduan hainbat baldintza betez gero guk geuk ikusten dugun gauzen portaera bat. Gizartezko itun edo inposaketari eta naturaren portaera jakin aurreikusgarri horiei “lege” deitzen badiegu, zubi eder bat eraikitzen dugu gizarteko legeak, bidegabeak izanda ere, agindu natural bezala, ukiezinak beraz, ikustarazteko.

Askatasuna eguneroko gauza sinpleenetan finkatzetik abiatu behar bide dugu. Gaurko gizartea nola ikusten duzu zeregin honetan?

Konformismoa da nagusi, baina kontu berri batzuen beldur dago gizartea: globalizazio ereduaren ondorio batzuez, gerrez, hondamendi ekologikoaz, matxismoaren arriskuez... ohartzen doa Mendebaldeko gizartea neurri batean. Autoritarismoak bere mugak izan ditzake.

Desobedientzia zibila, gizateriaren bilakaeraren ondorio bezala ikusten duzu. Hasieran gizateria bera sortu zen naturatik ihesi, desobedientzia naturala izan zen hura. Askatasunaren bidean, gizarteak hainbeste hierarkizazio eraiki dituen honetan, zertatik ihes egin behar du gizakiak?

Ihes egin beharko luke, libre izan nahi badu. Zertatik? Globalizazioa deitzen dugun honetan, autoritarismoa da estatuari boteredunek ematen dioten funtzio bakarra: legeak errespetarazteko, zergak biltzeko eta beren nahierara banatzeko, diru publikoa enpresa handien interesen arabera gastatzeko, esku hartze militarrik egiteko... Eredu horretatik ihes egin beharko luke.

Eguneroko politikara etorriaz desobedientzia zibilarik aukerarik ikusten diozu?

Ez ote zen izan koldarren kontu bat intsumituena? Gaur, langile gisa baino gehiago kontsumitzaile eta zergadun gisa sostengua ematen badiogu indarrean dugun eredu horri, eta lau heroirena ez, guztion kontua baldin bada askatasuna, horretan datza ihesbidea, nire irudikoz. Frommek erran zuena: "Desobedientzia-ekintza batekin hasi zen gizateria, ea ez ote den bukatzen obedientzia-ekintza batekin. Beldurgarriegia da perspektiba hori ihes egiten ez saiatzeko".

KOADROA

“Ezkerreko abertzaletasunak astindu eder bat behar du”

Markos Zapiain literatur kritikoak “Askatasunez inor ez da sekula Bixente Serrano Izko bezala mintzatu”, esan berri du *Berria* egunkarian. Zer iradokitzen dizu bere esanak?

Biziro eskertzeko iritzia da, dudarik gabe. Borondatea nuen, eta kontzientzia ere bai idatzi ondoren, ikuspuntu ez-ohiko batetik hurbildu naizela gaiari. Beldurra ere bai, bertzalde, irakurle batzuek ez ote duten hartuko bitxikeria huts gisa. Baina sinetsita nago nire ikuspuntu honek aukera berriak irekitzen dizkigula askatasuna eta askapen bi-deak bertze era batean planteatzeko, gure artean ohituta gauden era “heroiko” horiek baztertze aldera, adibidez.

Alfonso Sastrek “herri honek ezkerreko intelektualak falta ditu”, esan du Argian orain gutxi. Zer deritzozu?

Egia da “intelektual” hitzaren zentzu ohiko eta estuan, baina nik erranen nuke herri guztien hutsune bat dela. Gurean, euskaraz, badaude hausnartzeko aukera aberasgarriak ematen dizkigutenak, nahiz eta gutxitan garatu dituzten preseski beren planteamenduak. Merkatu kontua da, neurri batean. Bertzalde, noski, intelektualen oihartzuna eskasa baldin bada oro har media handietako erranetara jartzen ez direnean, are apalagoa da euskaraz egiten dena. Dena dela, “intelektual” hitza zentzu zabalago batean hartuta, gizarte eta kultura mugimendu asko eta aberasgarriak ditugu Euskal Herrian, Europako herri gehienetan, guztietan ez bada, baino gehiago. Hauetako partaideak ere intelektualak dira, dudarik ez. Ezkerreko abertzaletasunari bereziki dagokionez, astindu eder bat behar duelakoan nago, kultura politiko berri baten beharra du.

2003/iraila

JOXEAN AGIRRE

**“Literaturarekin bakarrik bizitzeari
sekulako beldurra diot”**

Nobela ugari iritsi da euskal literaturaren plazara urte honetan. Joxean Agirreren *Romain zen bere izena* (Elkar) berezko lekua betetzera heldu da. Nobela honez eta literatura bizitzeko duen moldeaz mintzatu gara liburuaren egilearekin.

Romain zen bere izena *da zure azken literatura lana. Nola hasi eta nola gauzatu zenuen berau?*

Nobeletan eskeletoa egitea da zailena niretzat. Etxe baten egituraren antzera ikusten dut, egina izanez gero, bere menpe jartzea da kontua: adreilu batzuk hemen, atea hor, leihoak han... Hemen, literaturari buruzko nobela idaztea erraztuko zidan eskeleto bat behar nuen. Hainbat idazleen aholkuei jarraitu ondoren, William Boyd idazle anglosaxoiak idatzi zuena kontuan hartu nuen. Idazle honek margolari faltsu baten biografia eta obra idatzi zituen, eta New Yorkeko galeria inportante batean aurkeztu zuen, beste margolari ospetsuen aldean aurkeztu ere. Galerietako adituek eta pinturako puntako kritikoez obra guztiak izugarriak zirela esan zuten, izugarri onak, inpaktu handikoak. Ordea, Londreseko kazetari batek gauza arraroak ikusi eta katalogoan zeuden

biografia eta obra bat ez zirela existitzen esan zuen. Editoreari deitu eta iruzurra salatuko zuela esan zion. Iruzur kontuetan ari nintzela Romain Gary idazlearen kasua topatu nuen, literaturaren munduko iruzur kontuetan egin den kasu politenetako bat.

Zergatik Romain Gary idazlea?

Idazle frantziar honekiko omenaldi moduko bat egin nahi izan dut. Idazle honek bere “ordezko” bat sortu zuen, *Golem* da hitzik jatorrena. Ordezko txingote edo esperpento bat sortu zuen bere aginduetara lana egin zezan, bere nobelak firmatzeko eta kazetarien eskaerei erantzuteko. Bere liburuen promozioa egiteko, hitz bitan esanda. Hartara, bere lehengusu batekin akordio batera iritsi zen, muntaia bat egin zuten eta literatur estilo erabat diferente bat sortu ere. Emile Ajar izan zen ordezkoko autorea edo *Golema*. Roman Garyren eta Emile Ajaren lanak erabat differenteak dira. Gero, bien arteko tirabirak sortu ziren eta horiek erabili ditut nire nobela egiteko.

Nobela bat gauzatzeko modu bitxia, nolana ere.

Idaztea bizitzeko modu bat da. Sormenaren sustriak gure baitako leku ezkutuenetan aurki daitezke hartara. Nik Garyri buruzko dozena bat liburu irakurri dut eta nire buruari galdetzen diot: Nola landu daiteke horrenbeste estilo differenterik? Romain Garyk bere barruko alderdi batzuk azaltzen zituen eta Emile Ajarek beste batzuk. Horrek gure baitan pertsona bat baino gehiago bizi direla erakusten digu. Are gehiago esango nuke, gure izaera, dualista ez ezik anitza dela.

Literaturak pertsona baten bizitza osoa hartzen al du?

Kasu batzuetan hartzen du, neurri batean hala ere. Idazle batzuk kontatzeko bizi dira, beste batzuk, berriz, bizitakoa ezin dute kontatu, asmatua bakarrik kontatzen dute. Kasuistika asko dago.

Liburuaren azalean emakume baten gorputzaren silueta agertzen da. Gustura geratu al zara berarekin?

Nire ideia idazle baten aurpegi tapatua edo ezabatua islatzea zen. Ezkutatzen den idazlearen irudi bat azaltzea zen nire asmoa, nolabait. Baina, liburuan maitasun istorio pare bat ere badaude eta horregatik neskaren gorputza azaltze hori.

Nobelan emakumeek berebiziko tokia dute, islatzen duten liluraz egiten dituzun deskripzioak nabari dira.

Xabier Mendigurenek, nobelaren editoreak, nobelan emakumeekiko deboziozko kontenplazioa ote dagoen esan zuen. Ez ninduen molestatu horregatik. Nobelan *voyeurismo* moduko bat dago, oso maskulinoa, baina ez da matxista inola ere, emakumeak begiratzeko modu bat besterik ez da. Horrekin asko jokatzten dut.

Zaila ote da nobela hau?

Nahiko lineala dela uste dut, atzera-aurrera askorik gabekoa, eta mantsoa. Idazten ari nintzenean estiloa motela ote zen pentsatu nuen, nobela girotzean nolabaiteko gozamena bizi izan nuen. Irakurri duten batzuek maitasunez eta emozioz hitz egin didate, erraz irakurri dutela. Beste batzuek, berriz, alderantzizkoa esan didate.

Literatura gai izan duzu. Abentura bat narratu duzu eta halaber narratzearen abentura hizpide izan duzu.

Batzuek nobela gidoi batekin idazten dute, nik ezin dut hori egin. Hau da: bi orrialde drama, beste bi komedia, beste bi umorea... Aspergarria iruditzen zait. Nik, gutxi gorabehera, idatziko dudan honen inguruan gogoeta egiten dut, eta ondoren, honen bilbeak edo tramak ematen dio nobelari abentura itxura.

Nobelak beltz ukitua du hasieran.

Hiltzailea krimenaren lekuan bertan gelditzen da, eta beraz poliziak harrapatzen du. Argitu beharreko mis-

terioa da, ea hiltzaileak zergatik hil duen idazlea. Misterio hori istorioa garatu ahala argitzen da. Nire planteamendua –literaturaren ikuspuntutik– autore anonimoa zein den aurkitzea da. Komisarioak –nobela polizia-koaren ildoan– ez du hiltzailea nor den argitu behar, hori oso garbi dagoelako, zergatik hil duen baizik.

Hasieran, nobela beltzaren bilbe edo trama paralelo bat gauzatzeko aukera ikusi nuen, nobela poliziakoetan badaude beti aukera horiek, krimen perfektuaren kontakizuna gauzatzea helburu dute nobela hauek. Krimen perfektuari buruzko nobela asko idatzi da eta politikak dira. Hilketaren gauzapena literatur arte obra bat bezala ikusten dute literatur kritikoeak. Nik neuk ere baneukan paralelismo hori gauzatzea, baina zailtasunak emateaz gain ez zen nire intereseko zeregina.

Nobelak funtsean kritika kutsu bat dauka eta galdera nagusi bat: “Zer da literatura”?

Bai. Eta, nire uste apalean, literatura ez da bere ondorioz ekoizten diren elkarrizketak eta prentsaurrekoak, gaur egun literaturaren parte handiena dena. Aitzitik, literatura isiltasunean egiten den lana da, sorkuntzari buruzko gogoeta. Literaturak daukan gauza magiko eta polit bakarra gure buruarekin egiten dugun lan isil hori da.

Zure burua ezkutatu nahi zenukeen idazlea ote zara? Hots, aukeran, nobela zure Golem batek azaltzea nahiago zenuke?

Bai, jakina. Ez daukat inolako dudarik. Baina, Euskal Herrian literaturak oso dimentsio apala edo xumea dauka. Nobelan literaturari egiten diodan kritika –ikuskizun eta espektakulu bezala azaltze hori, dena aurkeztu behar izate hori– ez diot euskal literaturari egiten, bereziki normalizatua dagoen literaturari egiten diot. Dena dela, literatura normalizatuaren balizko kasu horretan, nik neuk nahiago nuke anonimo izan eta ez agertu inon.

Ezkatatu nahi hori idazle askoren nahia al da?

Jorge Luis Borgesek ikusezina bihurtzeko nahia zuela esan ohi zuen. Gure literaturan, Bernardo Atxagaren kasua oso adierazgarria da. Seguru ikusezina bihurtzea desiratzen ari dela. Topiko hori erabili dut nobela honetan, protagonistak ikusezin bihurtu eta ezkatatu nahi hori. Idazleak ezkatatzea lortzen du, baina bere ordezkoa hil eta gero. Guzti horren atzean sorkuntzaren garapena dago, oso garrantzizkoa, oso ikuspegi erromantikotik garatua, kutsu erromantikoegitik, agian.

KOADROA

“Literatura bizitzeko lilura moduko bat dut”

Irudikatu dezagun euskal literatura paisaia gisara. Nola ikusten duzu euskal literaturaren paisaia?

Azken sei edo zazpi urteotan gorakada moduko bat sumatu dut bai kantitatean bai kalitatean, denetarik daukagu. Arte espresio guztietan bezala, sentsibilitate eta espresio talde ezberdinak daude. Irakurle bakoitzak bere gustuaren araberako aukerak dauzka. Nobelan, adibidez, modu askotako ereduak lantzen eta ikusten dira.

Nolako harrera izan du nobela honek?

Nobela hau batzuei asko gustatu zaie eta beste batzuei batere ez. Izan ere, irakurle bakoitzak bere autore kuttunak ditu, bakoitzak literatura heziketa propio bat du, nork bere bideak egiten ditu, nik neureak egin ditudan bezala. Ibilbide horretan idazleak eta irakurleak topo egiten badute, bien arteko elkar hartze bat baldin badago, errazagoa da nobelak harrera on bat izatea. Baina, tira, nobela baten harrera baloratzea eta neurtzea zail samarra da.

Literatura bizitzeko modu propioa duzula esan dezakegu?

Badut literatura bizitzeko lilura moduko bat, literaturarekiko eta idazle batzuekiko maitasun moduko bat. Nobela honetan maitasun hori etengabe ageri da. Nobelan agertzen diren hainbat idazlerekin bueltaka ibiltzen naiz eta literaturari buruzko galderak egiten dizkiot nire buruari.

Zehaztu iezazkiguzu galdera horiek.

Honen aurreko nobela –*Elgeta* izenekoan– oso kezkatuta ibili nintzen artearen inguruko galderekin. *Elgetaren* azpian “Posible al du pertsona batek musikarekin bizitzea?” galdera dago. Elgetak ez baitzuen ez familiarik ez etxerik. Elgeta soinu txikiarekin bizi izan zen, nolabait. *Romain zen bere izena* delakoan galdera antzekoa da: “Pertsona bat bizi edo ase ote daiteke literaturarekin?”

Elgeta soinu-joleak musika nola, halaxe maite du literatura nobela honen protagonistak. Nobelako protagonistak literatura gauza guztien gainetik maite du. Are gehiago, idazle hau hiltzeko prest dago bere sorkuntza babesteko.

Literaturak gatibatua, eta aldi berean, bere burua ezkutatu nahiko lukeen idazlea zara, akaso.

Literatura egileekin gatibatua, akaso. Baina literaturarekin bakarrik bizitzeari sekulako beldurra diot. Nik ez nuke jasan ahal izango egun osoan sorkuntzatik bakarrik bizi behar hori. Nire egoera oso eroso da, soldata kaze-taritzatik lortzen dut, eta bestalde-edo, literaturari ordu batzuk eskaintzen dizkiot. Baina ez badut ezer sortzen, ez da ezer gertatzen.

2003/azaroa

TERE IRASTORTZA

“Zenbaitetan ez dugu gure bizitza bizi”

Tere Irastortza 1961ean sortu zen, Zaldibian. Beasaingo Andramendi ikastolako zuzendaria da. Bi seme-alaben ama. Idazlea da, eta poeta oroz gain. Bere lehen liburua 1980an argitaratu zuen: *Gabeziak* poesia liburua. Obra poetiko oso oparoa osatu du harrezkero. Bere obraren antologia Susa argitaletxearen *XX. mendeko poesia kaierak* bilduman dago, Koldo Izagirrek apailatua. Antologia hau *Izen gabe, direnak. Haurdunaldi beteko khantoriak* liburuarekin (Pamiela, 2000) ixten da. Liburu horretan Jainkoarengandik hurbil dagoen poeta gisa antzeman genuen Tere Irastortza. Aurten argitaratutako *Glosak. Esana zetorrenaz* liburuan (Pamiela) berriz, pertsonarengandik hurbilagoa aurkitu dugu Zaldibiko poeta. Liburu honetaz, euskal literaturaz eta bere ibilbide literarioaz aritu gara berarekin. Tere Irastortza Euskal Idazleen Elkarteko (EIE) lehendakaria da iaztik, hartara, zeregin honetaz ere galdetu diogu elkarriketaren hasieran.

Zer moduz EIEko lehendakari postuan?

Laguna dudan Andolin Eguzkitza aurreko zuzendariak kargua hartzea eskatu zidan. EIE n eragile lanetan aritzea suertatu zait eta pozik nago. Egiten dakidana egiten saiatzen ari naiz, lan talde oso ona dago. Idazleen lana eta euskal liburua oro har sustatzeko helburuz ari gara.

Zeregin honek mugatzen al zaitu idazteko orduan?

Nire idazle ibilbidean saiakera, ipuinen bat eta itzulpena ere landu ditut, baina batez ere poesia idatzi izan dut. Azken urteetan eraman dudana bizimoduak beste modu batera idaztera eraman nau, hori bai. Alegia, gazteagoa nintzela inspirazioaren zain egoteko beta izaten nuen; orain, berriz, idatzi nahi dudana buruan ondo gordeta izaten dut paperera eraman baino lehen.

Glosak. Esana zetorrenaz liburua azalean pertsona baten silueta agertzen da, testu zaharren artean. Azaldu ieza-guzu liburua azala?

Liburuaren azalean euskal literaturaren testu zahar bat azal zedin nahi nuen. Ez nekien horregatik zein izango zen gainean jarriko zioten irudia. Baina gustura geratu naiz. Silueta bat agertzen da hitzen artean, eta silueta hori ere denok daramagun errainua izan daiteke, kasurako, nik neronek daramadan errainua izan daiteke.

Nondik nora Glosak. Esana zetorrenaz liburua?

Idazleak hizkuntza baliatzen duenean beste batzuek esan dutena jasotzen du. Ez dut uste ezer ezerezetik sortzen denik, inspirazioa besterik gabe datorrenik. Glosa hitzak beste pertsonen —edo kasurako idazle batzuen— ekarria adierazten du. Bigarrenik, eta bestalde, euskarazko aurreneko hitzak glosetan agertu ziren; beste hizkuntza askotan bezala. Historian zehar glosak baliatu izan dira testu zail bat ulergarriagoa egiteko, testua ulergarriago egiten duen ohar ttipia da glosa. Finean, nire poemak mundu ulertezin hau ulertzeko lagungarri nahi nituzke eta horregatik deitu diot *Glosak* nire liburuari, poema horiek mundualdi batean txertatuta daudela adierazteko.

Liburu baten isuri poetikoa taxutzean berebiziko garrantzia du bere eraikuntzak. Liburu hau hiru ataletan eraiki duzu. Lehena Ateraldi entziklopedikoak. Idatzian zetorrenaz da. Zertan datza?

Poema liburu hau idatzi nuenerako oso urrun sentitzen nintzen hainbeste aipatzen den hipertestu eta meta-literaturaren adiera “literarioaz”. Liburuaren humusa ezin da testu literarioez bakarrik osatu, egunero edo bizi-modu normalean aurkitzen ditugun beste testuez ere baliatu naiz, beraz. Batetik, esate baterako, aipatzen ditudan anatidoak edo gamma-izpiak entziklopediaren nire irakurketatik datoz. Bestetik, badut inpresioa, sinestarazi digutela zientzia oso gauza arrazionala dela, nahiz eta deskubrimendu edo tesi gehienetan badagoen irudi bat, metafora batean egon daitekeen bezalaxe, zientzian batzuk besteen ondorioetatik abiatzen direlako hori adierazi nahiz, isildua edota estalian uzten bada ere. Poesiaren bidez, testu horien azpian dauden irudiak, lurperatutako metaforak, agerian jarri nahi izan ditut.

Oharkabean zetorrenaz. Edo ilunaren eta beldurraren inbertsioak *da bigarren atala. Nola osatu duzu berau?*

Idatzian zetorrenaz irakurri ahal izan dudana zerbaiten interpretazioa da; Oharkabean zetorrenaz atalean garaiz interpretatu ezin eta irakurri gabe utzitako ondorioak islatu ahal izan ditut. Sarri behatz artetik hondarrak bezala egiten digute ihes besteen esperientziak, esperantzak edota egonezinak. Gure bizitza une zenbaitetan ez dugu bizi, lotuegi gauzka bizimoduak bizitzeko. Haatik, halako batean, bizipen eta irudi horiek gogoratu egiten dituzu eta oharkabean behatzetan geratu diren hondararrastoek iratzarri egiten zaituzte; bere gisara pizten zaituzte. Hainbatean, horretaz konturatzeko ere gauzak inbertitu behar dituzu. Inbertsio hitzak bi zentzu ditu gutxienez. Bat ekonomikoa da: orain gastatu gero irabazteko edo arriskatu gero ez galtzeko. Bestea, gauzak atzeko aurrera jartzea da. Hondarrari begiratu ordez behatzei begiratzea. Hori da bigarren ataleko poemetan apur bat egiten dudana, beste modu batez begiratzen dut.

Ibileran. Esateko zegoenaz da *hirugarren atala. Ibileran idatzitako poemek osatua, beharbada.*

Hauxe esaten da beti: “Dagoeneko esan beharreko guztia esana dago”. Baina inor ez da isiltzen. Orduan, badago zer esanik, esateak berak asetzen ez bagaitu ere, apur bat osatzen gaitu, eta hitzak dira gure urratsak. Badira gure aurretik norbaitek ireki dituen bideak, baina kontua da norberak egin behar duela aitzina bide horietan. Bidea da agertzeko dagoena, ez bakarrik norabidea, are gutxiago helbidea bakarrik. Hitz hauek dira nire urratsak, eta bidean nik sortutako erretenak.

Bidean bide, nor du Tere Irastortza poetak liburu honetan bidaide eta gogaide?

Nor ez du poetak bidaide eta gogaide?, galdetuko nuke nik. Nik hizkuntza asko baliatzen dut idazteko. Tradizioarekin, gogoratzen ditudan hitzekin eta pertsonekin idazten dut, maite dudan jendearen oroitzapenekin. Lehen bi atalen ondoren, hirugarrenean, ibileran idazten dudala esatean, esan nahi dut ez dudala bakarrik idazten beste batzuen poesiekin, besteen literaturarekin alegia, baizik eta, nolabait, denok garela literaturarako gai. Halaber, ibilian esatean, literaturan orainaldiak garrantzi handia daukala adierazi nahi dut, ez dela gure aurretik izan den literatura —edo bestela ere ikasi duguna— soilik kontuan izan behar, baita bizi izan duguna ere, esperientziaren bidez ikasia ere funtsezkoa izaki.

KOADROAK

“Poesia idazten segitzen dut, poesiak bizitzen laguntzen didalako”

Irudikatu dezagun literatura paisaia gisa. Nola dakusazu euskal literaturaren paisaia?

Niri ibaia duten paisaiak gustatzen zaizkit. Euskal literatura gizentzen doan ibaia da niretzat. Ur sorta xume batetik sortutako ibai bat. Gaur egun ibai zabala da eta bere inguruan zuhaitzak eta txoriak daude. Idazleok egiten dugunaren inguruan bizia sortu da, bazen garaia eta poztekoa da horregatik.

Idazle gisa berriz, paisaia horretan zure burua?

Irudiak irudi, ziurrenera, ibaian gora doan amuarraina izango nintzateke, harripean arrautzak erruten dituen amuarraina. Urak dakarrena hartzeko uraren aurka borrokan ari den amuarraina, halaber.

Gabeziak liburua gogoan, hona Koldo Izagirrereren hitzak: “Maitale urrundu edo ezezagun bati mintzo zitzaion Tere Iratzortza”. Zer aldatu da poeta harengandik egungora?

Aldatuko nintzela pentsatzen dut, ez daukat hogeitau urte-eta! Ziurrenik, galdu dudan gauza tristeena inozentzia izango da. Gainerako pertsona guztiak bezala aldatuz joan naiz, ez hainbeste literaturari dagokionean, literatura finean eta funtsean, norbera beste norbait izateko aukera delako, besteekin norberekoa egitekoa. Alde horretatik liburu guztietan urruneko maitale gordea dago, askotan oso gertu dagoena.

“Obra oparoa, anitza, estilo ezberdinekoa, baina ingurutik baitaritzen ditu bere bulkorik jasoena” dio ere Izagirrek.

Urteen joan-etorrian, batzutan harritu egiten naiz poesia idazten segitzeaz, nire burua horretan ikusteaz.

Gaztea edo gazteago nintzenean, poesia herrialde azpi-garatuen literatura mota bat zela esaten zen, edo modan zegoen hori esatea. Orduan, epe motzeko bizitza ematen zitzaion poesiari. Nik baina, poesia idazten segitzen dut, poesiak bizitzen laguntzen didalako, baita nire poesiak beste batzuei apur bat bizitzen ere lagunduko dielakoan.

FLASH

Formak eta gabeziak

“Denbora asko behar izan nuen poemei forma emateko. Banan-banan poemak idazten ez dut ohikoa baino denbora gehiago behar izan. Bai poemak aukeratzeko eta liburuari forma oso bat emateko. Esanahiari eutsiko dion formari ere adierazi nahi bat atxikitzeko. Gustura geratu naiz. Halaber, urte luze hauetan, nire lehen liburuari eman nion izenburua berreskuratu edota salbatu nahian idatzi dut. Alegia, “gabeziak” sentituko ez bagenitu, ez genuke literaturarik egingo”.

2004/urtarrila

PATXI ZUBIZARRETA

“Kanpoan ez dago interesik hemengo arazoaz ulertzeko”

Patxi Zubizarreta (1964, Ordizia) Gasteizen bizi da. Haur eta gazte literaturaren kritikaren errekonozimendua jaso du. Helduentzako ere ederki idazten du alta. Horren lekuko *Barrikadak* (Alberdania) eleberria. Barrikadak zirrara pizten duen liburua da, zinez. Zinez, zinemarako idatzitako nobela da. Duela hogeitun urte girotutako erretratua paratu du Patxi Zubizarretak. Idazleak gogo bizia eta begi zoliak paratu ditu tren baten barruan, Vigo-Hendaia espresak egindako ibilbidean. Euskal Herrian bizi dugun gatazka gaitzat hartu du idazleak. Lan gaitza beraz. Literaturazale hori, espresa hartzeko biletea erostera gonbidatzen zaitugu. Patxi Zubizarretaren eleberrigile sena aurkituko duzu bere ibilbidean.

Elkarrizketaren ibilbide honen hasieran, imajina dezagun liburua koadro gisara. Hots, literatura paisaia moduan. Nola ikusten duzu euskal literaturaren paisaia?

Irakurle moduan oso paisaia erakargarria zait. Beharbada ez nau guztiz asebetetzen, baina, bere txikian euskal literaturaren paisaia galeria ederra da.

Idazle gisa berriz, paisaia horretan nola ikusten duzu zure burua?

Beste paisaietako koloreetatik zerbait hartu nahian ari den idazlea bezala, koadro polit bat osatu nahian ari den idazle bat.

Nola definituko zenuke polit hori?

Oso gauza bitxia da, haur eta gazte literaturan ideiak azkar garatzen ditut, baina helduentzako lan bat burutu ostean basamortua etortzen zait. Michael Winterbotto-*men Wonderland* pelikula ikusi ondoren hauxe esan nion nire buruari: “Hau da nik literaturan egin nahi dudana”. Baina ez dakit hori nola gauzatu. Liburu politak irakurtzen ditut, baina gero nik ez nuke politasun hori nahi nire liburuetan.

Zer da justu filma hori?

Londreseko auzune periferikoetan egindako film bat da. Zuzendariak bizkar gainean eramandako kamera erabiltzen du, eta nik horrelako zerbait egin nahi nuke ere literatura egitean. Filmak egunerokotasuna jasotzen du, familia arrunt baten egunerokotasuna. Hori da gehienbat erakartzen nauena, idealismoetatik eta kurtsileriatik urrun.

“Nire idazle bizitzaren sakonean helduentzat idazteko gogo dago”, esana duzu inoiz. Helduentzako idaztea sakonago idaztea al da?

Ez, ez eta ez. Ipuin txikienean helduentzako idazten duzunean bezain sakon idatz dezakezu. Demagun, nik *Barrikadak* nobelaren ildotik ipuin txiki bat idatz dezaket: Pikolo izenburua jartzen diot. Herri txiki bat, eta bertako herritarren eta guardia zibilen semeen arteko harremanak landu ditzaket. Istorio hori haurrentzat modu batera egingo nuke. Helduentzat idaztean, berriz, askeago sentituko nintzateke nolabait. Izan ere, bietan

irakurlea nor den kontuan hartu behar dut, eta bietan, nolabait, sinpletasunaren bidetik iritsi ninteke sakontasunera. Haatik, helduen literaturan pertsonaien pentsamendua eta harremanak ñabardura gehiagorekin osatu behar ditut, edo aukera hori eskaintzen dit behintzat. Alegia, zuk aipatu koadro horretan zertzelada gehiago, ñabardura gehiago sar dezaket.

Haur eta gazte literatura bereizi ohi dituzu. Nolakoa da genero hauekiko zure harremana?

Haur literaturan eroso sentitzen naiz eta erraz idazten dut. Baina eroso izate horretan, eroso edo erosoe-gi baldin banabil, malo. Haur literatura gazte literatura baino tentagarriagoa da, nahikoa da printza edo izpi bat izatea ipuin xume bat egiteko, hori marrazki zoragarriekin apaintzeko eta liburu apalategian egon dadin. Gazte literatura heldu literaturarekin pareka daiteke nolabait, bere lanaren planteamenduan esan nahi dut: egitura, protagonisten pentsamendu eta bilakaera kontuetan. Gazte literaturan –haur eta gazte literatura parekatzen baditugu ere, ez dira parekoak– aspaldian ez dut ezer egin. Ez bada *Mila gau eta bat gehiago* antologiaren itzulpena, gazteentzat ere kontsideratua izan dena. Gazteentzat idazteak erakartzen nau, baina gaur egun zailtasun handiak ditut, zaila egiten zait gaurko gazteen mentalitatean eta bizimoduan sartzea.

Literaturaren paisaia orokorra utzi eta sar gaitezen Barrikadak liburuan. Zein testuingurutan edota nola sortu zenuen? Zergatik?

Koadroaren ideiarekin jarraituz, *Barrikadak* liburuarekin euskal gatazkari buruzko koadro bat margotu nahi nuen, galderak eragingo zituena: non daude barrikadak, egileak, ideiak? Nire jaioterrian, Ordizian, gurasoen etxe parean trenbidea dut, honen ondoan errepide nagusia, –nazionala?– eta bestaldean Guardia Zibilen

kuartela. Paisaia edo ingurumari hori guztia ikusmira erakargarri gisa bizi izan dut txikitatik, koadro batean jasotzeko modukoa da. Garai batean oso paisaia ezaguna egiten zitzaigun. Gaurko gazteei ez hainbeste. *Barrikadak*, alde horretatik begiratuta, egungo gazteek memoria historikoa landu dezaten liburua edo koadroa izan daiteke, gure iraganari begiratzeko leiho moduko bat. Garai hura gogoan nuen eta erretratatzeko gogoia ere bai.

Duela 20 urteko gatazkaren parametroetan idatzitako liburu gisa hartu behar al da?

Hala idatzia da. Baina funtsean galdera hau egin beharrean gaude: Barrikada fisiko horiek ez ote dira psikikoak bihurtu”. Izan ere, baikorrenak ez luke gatazka gaindituta dugunik esango. Galdera hor dago, istorioa duela 20 urte kokatua da, baina, funtsean errealitatea ez da gehiegi aldatu.

Narrazioa bost ataletan eraikia da, atal bakoitzaren hasieran idazle baten aipu bat paratu duzu: Paul Auster, Marcial Lafuente Estefania, Ignacio Aldecoa, Julio Llamazares eta Itxaro Bordarenak. Narrazioaren kontalariak bost izaki, zer moduz eraikitze lan horretan?

Nobelaren egitura berez atera zitzaidan. Egia esan horrek mugatu egin ninduen liburua garatzean. Baina niri, irakurle bezala, Tereixak –galiziar frantsestua eta lehen protagonista– barrikaden aurrean zer pentsatzen duen ezagutzea interesatzen zait. Nik ez dut pentsamolde horren berri ematen, protagonista bakoitzak bere esparrua dauka liburuan eta bakoitzari falta zaizkion esparruak irakurleen esku geratzen dira, irakurleak irudikatu beharko ditu. Liburua irekia da zentzu honetan.

Tereixaren ondoren Miguel lapurra dator. Gero Guardia Zibila, hurrena euskal militantea, eta adinez zaharra den pertsona azkenik. Nobela edo koadroa soziologia ezberdineko piezek osatua da, mosaiko bat da.

Ez nuen soziologia moduko bat osatzea helburu. Tereixa aipatuko dut, adibide gisa. Nik sarritan egin dut Ordizia eta Gasteiz arteko bidea. Behin Kanariar Uhartetatik zetorren neska batekin elkartu nintzen. Ordiziara iritsitakoan barrikada bat zegon trenbidean, Guardia Zibila jaitsita zegoen kuarteletik, tiro eta su festa zegoen nolabait, eta neska hura beldurrak akabatua zegoen trenean. Trenari sua emango ote zioten pentsatu zuen. Nik lasaitu nahi izan nuen eta gero taxi bat hartzera lagundu nion.

Liburuan, gatazkak –Tereixa pertsonaiaren bitartez– euskal gatazkatik kanpo daudenei nola eragiten dien agertzea ere izan da nire asmoa.

Psikologiaren aldetik ere, elkarrizketetan erreparaturik, ondo landuak dira pertsonaiak. Zer moduz beraiekin?

Pertsonaia nagusiak bost dira, baina beste bi ere funtsezkoak dira: trena eta txartel zulatzailea; pika-pika bezala ezaguna. Pika delakoa da beharbada inportantea, ahotsik ez izan arren. Eta irakurleak pika bost pertsonaien ikuspuntuaren arabera irudikatu behar du.

Zein da osatzen lan gehien eman dizun pertsonaia? Guardia zibilak, apika? Euskaraz azaltzeagatik-edo, esan nahi dut.

Ez. Eta nahiz istorioa duela 20 urtekoa izan, hori ez da kezka niretzat. Izan liteke, eta ulertzen dut batzuentzat izatea. Niretzat topikoetatik harago joatea da kezka eta lana. Guardia zibila osatzea bezain zaila izan zait barrikadak jartzen dituen gaztearen larruan sartzea. Izan ere, militante hori hurbilegia daukat. Datu gehiegi nituen, erreportaje bat egiteko adina datu nuen: zein musika entzuten zuen edo zein pegatina zeraman ezagutzen nituen. Hurbilegi izanda, kazetaritza kronika bat idazteko arriskua saihestu behar nuen.

Azken pertsona, amona, berriz, bitxia.

Bai. Militantearen herrikidea izanda ere, bera da plazerik handiena eman didana. Bere hizkera eta bere ikuspuntuarekin bat egiten dut. Pertsonaia hau zen nobela bukatzeko behar nuena, pertsona klabea. Tren geltokiak agureekin edota aitona-amonekin lotzen ditut.

FLASHAK

Zerotik hasi beharra

Liburua zinematografikoa dela adierazi diogu, elkarrizketen aldetik oso landua eta prest pantailara bide egiteko: “Ohore bat da hori entzutea. Literatura eta zinema oso uztartuak daude nire kasuan. Elkarrizketan film bat aipatu dizut, bada, baliteke nire hurrengo liburuaren abiapuntua izatea. Film baterako aproposa izan liteke, baina orain berriro ere zerotik hasi beharrean nago”.

Arantza bat

“Idazleok azken urteetan komunikatuak edo atxikimenduak sinatzera mugatu gara. Baina idazleonek egitekoa idazlan onak idaztea da. Zentzu honetan, bizitzea eta ezagutzea tokatu zaizkigun gertakari larrien gainetik agirien hoztasuna gainditzen saiatu naiz. Nire barrena askatzeko beharra nuen eta hori literaturatik egin dut”.

Ilustratzeko nahia betea

Liburua ilustratzeko errebindikazioa gauzatu du idazleak: “Antton Olariagak oso ondo islatu du istorioa. Trena eta trenbidea, tunelak barne, paregabeki marraztu ditu, tunelen beltza eta elurraren zuria” Leonardo da Vinci margolariaren hitz batzuk bere egin ditu Zubizarretak: “Idaztea margotzea dela zioen edota margotzea idaztea. Nik ere bai. Batzuentzat ilustrazioa gauza arrotza

da literaturan. Ez gaude ohituta, antza. Egia da, argitaletxeari ekoizpena garestitu egiten zaio, baina horrelako apustuak egin behar dira. Horrek ez du esan nahi liburu guztiak ilustratu behar direnik. Liburua ilustratzea planteatu nion argitaletxeari, baina ez esplizituki, haur literaturan bezala, istorioa doi-doi girotzeko baizik”.

Gatazkaz interesik ez

Liburu hau gaztelaniaz ondo litekeela esan diogu Zubizarretari: “Baietz uste dut. Baina errealistak izanda, ez dago gaia ezagutzeko interes handiegirik. Morboa izan daiteke, baina ez dago interesik hemen bizi dugun arazoa ezagutzeko, ez sakon aztertzeko behintzat”.

2004/otsaila

PAKO ARISTI

**“Ez dut bake lasaia nahi, ez pentsatzera
zaramatzen bakea”**

Sarrera

“Poetaren ezaugarri edo baliabideen jabe izan gabe, edo haietaz gabetua, da poeta Pako Aristi” (...) “Bere poesiak ez dauka ezer prosaikotik” (...) “Bere poesian ez dago beharrezko ez den edergailurik, nekez isuriko zaio estereotipo lirikorik, hitz bakoitza da pertinentea”, deskribatu du Koldo Izagirrek Pako Aristi (1963, Urrestilla) *XX. mendeko Poesia kaierak* (Susa) antologian.

Hona Aristik Izagirrereren hitzez esan diguna: “Koldo oso gizon azkarra da, zuzena da bere lanetan. Asko gustatu zitzaidan berak egindako euskal poesiaren antologia. Nire antologiaren sarrera zorrotza da. Identifikatzen naiz”. *Libreta horiko poemak* (Susa) liburuan bildu ditu Aristik bere azken poemak. Poema berriotan ez du bere burua traizionatu, ezta Izagirrereren hitzak deuseztatu ere. Libreta horiko poemek zer esana eman dute honezkero. Baten batek liburua dagoeneko kanonizatua dela esan du. Poetak bere nahia bete duela aitortu digu bere sorterrrian, organista moduan ari ohi den elizaren atarian. Liburuan ez dago hitz neurturik ez metrikaririk ez erri-maririk. Izan edo ez izan, poemek izenbururik ere ez dute.

Nola idatzi zenuen liburua?

Poemak, idatzi ahala eraman nituen paperera, libre-ta hartu eta paratu. Presazko itxura dauka liburuak. Ez nintzen tituluetan pentsatzen jarri, ezta titulu ozenak, musikalak edo hitzen aldetik poema definituko luketena-
nak paratzen jarri ere. Orri bat osatzen nuen poema bakoitzarekin, ez nuen bi orrialde behin ere egin. Horrek nire estiloa zehaztera behartu ninduen: idatzi nahi nuena ondo pentsatu behar nuen lehenik eta modu trinkoan paperean paratu gero.

Autozentsurarik gabeko liburutzat joa izan da.

Bai. Horrela da. 2.300 esaldi inguru daude. Esaldi bat bakarrik jan dugu, neronek jan nuen. Bere atzean historia luzea dago.

Zer da poesia Pako Aristirentzat?

Gazte denboran poesia idatzi nuen, baina berandu hasi nintzen poesia argitaratzen. Normala bada poesia idaztea eta gero nobelara pasatzea, nik alderantzizko bidea egin nuen: nobelarekin hasi eta hogeita hamar urtetik gora, adin serio batean jada, poesia idazten eta argitaratzen hasi nintzen. Horrek, niretzat, poesia gauza serioa dela adierazten du. Poesia pentsatzeko tresna bat bezala hartzen dut, poesia gogoetatzeko tresna bihurtu zait, edo bestela esanda, poesia hori bihurtu nahi dut.

Zergatik poema liburu hau? Iaz 40 urte bete izanak ba al du zer ikusirik?

Ez. Adinarena kasualitate hutsa da. Concceta Probanzak libre-ta hori bat oparitu zidan eta libre-ta hark tira egin zituen nire barruan aspaldi neuzkan kezka-
k, iritziak, kritikak eta pentsamenduak. Libre-ta hori horren magia izan da liburuaren eragilea. Pasadizo horrekin lotuagoa dago iaz 40 urte bete izanarekin baino.

Libretak zure baitatik tira egin zizun. Zure barruko guztia kanporatu ote zenuen?

Osorik ez, bakarrik traba egiten zidaten gauza bazuk, zaharkituak gelditu zirenak, oroimen gaiztoak gordetzen zituztenak, eguneroko bizitzan ezer ekartzen ez zidatenak. Horiek kanporatu behar baitira funtsean.

Poeta eta Pako bera dira, beraz.

Bai. Ni neu naiz. Poesia idazten ez dudanean ere, nire bakardadean, hara eta hona nire gauzak egiten nabilenean, beti sentitzen dut nire barruan eta nirekin beste bat dabilela. Uste dut hori dela nirekin dabilen poeta.

Bitxia da, musikaria izanik poesia lirikorako emana ez izatea. Edo, agian, horregatik ez duzu poesia mota hori behar?

Bai. Hori aukera estetiko bat da. Poesia urteekin eboluzionatzen doan espresio bat da eta nik ez dut poesia liriko eta amesgarri horretarako lekurik. Egungo bizimoduarekin eta bizitza martxa honekin ez diot zentzurik ez tankerarik antzematen. Aitzitik, egungo egoerarekin lotzen den poesia mota bat dago eta nik leku bat egin nahi diot poesia horri. Poesia estilo hori idazten saiatzen naiz.

Antipoetikoak ote zure liburua?

Poesiaz dugun iritziaren arabera! Poesia edertasun ekintza bezala ulertzen badugu, naturari buruzko liluraz eta hitz arraroaz idatzitako poesia bezala, nirea horren kontrakoa da, antipoetikoak da. Adibidez, Gabriel Arestiren poesiarekin alderatzen badugu, ez. Haren poesiaren egituraren antzekoa da.

Zer da egia Aristirentzat?

Ez naiz erabat ziur. Sinesten dituzun gauzak esaten eta defendatzen jakitea izan daiteke. Ziurtzat jotzen dituzun gauzak inongo lotsarik gabe esatea. Hori egia izan liteke.

Ez diozu poesiari –ez zure buruari– traiziorik egin orduan?

Ez dut traiziorik egin, ohore egin diot. Izan ere, saiatzen naiz forma berriak bilatzen poesia horrentzako, saiatzen naiz jendea hurbiltzen poesiara eta poesiak ez diezaion jendeari atzera egiteko gogo sortu. Hori, uste dut, poesiari ohore egitea da eta ez traiziorik.

Maitasunaz, sexuaz, diruaz, gizarteaz, politikaz edota adiskidetasunaz idatzi duzu, begirada zorrotz eta gupidagabez idatzi ere. Etsaiak ugaltzera etorri zara, akaso?

Ez, ez. Etsaia maite behar da. Etsaia edukitzea ere inportantea da. Etsai handiak baldin badauzkazu zu handia zaren seinalea da. Libretan badago etsaiarentzako poema bat. Liburua zintzoki idatzia dela uste dut. Ez dut idatzi ni neu egoera perfektu batean biziko banintz bezala, beste guztiak zaborren pare uzteko. Ez da liburuan dagoen jarrera. Liburua gizartean bizi den eta minak dituen pertsona batek idatzia da. Edo horrela azaldu nahi izan dut nire burua behintzat.

Amodioaren inguruan etsituta al zaude?

Ez. Amodioaren sinonimo naturala porrota dela diot. Amodioa, gehienetan, zoriontasunarekin lotzen da. Alegia, zoriontsu izan nahi dugu eta maitasuna nahi dugu. Baina, maitasuna ez edukitzea gabeziatzat joa da guretzat edo horrela hartzen da gizarte honetan. Eta niri iruditzen zait ez dela horrela, maitasuna gain dimensionatua dagoela uste dut. Maitasunaren inguruan parafernalialia linguistiko, pelikulero eta komertzial bat hedatuta dago. Maitasuna usteldu egiten duen joera oso zikina, maitasuna sentimendu bezala zikintzen duena. Maitasuna, porrot egin ondoren, berriro ere saiatzera bultzatzen gaituen desgrazia bakarra da.

Sexuaz idatzi duzu eta homosexualitatea aipatu ere bai. Joanjo Olasagarrek zure liburua hizpide izan zuen Berrian.

Ezkerrekoa izanagatik ez zara oso aurrerakoia agertu non-bait.

Nire kezkek agertu ditut. Etxean bakarrik eta zeure buruarekin bakarrik zaudenean, gauza asko datorkizu burura. Niri nire imajinarioa garatzen hasten zait eta neskak gogora azaldu. Nire inguruan gizonok neskazaleak izan gara, heterosexualak modu natural batean. Niri beti neskak gustatu zaizkit eta hauen gorputz atalak imajinatzen ditut. Baina, aldiz, halako batean tunel batean sartu nintzen, hasi nintzen imajinatzen zakil bat nire begien aurrean eta poema nahiko fribolo eta arin bat idatzi nuen, besterik gabe.

Sexuaz asko gogoetatzen duzu, antza?

Sexuak indar latza du gure bizitzan. Sexuak, modu irrazional batean, komeni zaigun pertsona askorengana garamatza. Adibidez, poema baten abiapuntua Sonia Gonzalezen poema bat da. Horrela dio: “Autobusean noa eta sexuan pentsatzen dut. Eskolan nago eta sexuan pentsatzen dut”. Haren poematik abiatu nintzen esateko nik ere sexuan asko pentsatzen dudala, mundu guztiak bezala.

Ana Urkizak “emakumeak ez dituzula kontuan izan” esan du Berrian. Liburua “emakume gazte bati ez zaiola erakar-garri suertatuko” ere bai.

Kontxo, ez nekien idazterakoan emakumeak kontuan hartu behar zirenik, edo jubilatua, edo dibortziatua, edo arrantzaleak, edo beste edozein kolektibo. Uste nuen idazlea librea zela nahi zuena idazteko nahi zuen bezala, eta irakurleak esango ziola asmatu zuen edo ez. Iruditzen zait emakumeekin zerikusia duen guztira halako zuzentasun politiko bat iritsi dela, gauzei bere izenarekin –edo nik nahi dudan izenarekin– deitzea debekatzen duena, literaturan oso pobrea eta tristeia izan

litekeena, eta hori puskatu nahi izan dut. Bigarren aipamenari buruz hauxe: nik ikusi ditut neska gazteak Durango poema solteak irakurtzen eta barrez. Hala ere, pozten naiz Idazleen Elkarteko Idazkariak gure gazteak irakurtzera animatzeaz. Agian bere liburuak gomendatu nahiko ditu, almazenean hautsak jan ez ditzan.

Jakinduriaz ere gogoetatu duzu. Zer da jakinduria?

Jakinduria bizitza alferrik pasa ez duzula frogatzen duen zerbait da. Pertsona nobleagoa edo besteekiko ulerkorragoa izaten ikasi duzun seinalea da jakinduria. Urteetan gauza asko bizi ondoren zenbait gauza ez baduzu ulertu edo ikasi, duela 20 urteko itsutasun berekin bizi bazara, horrek esan nahi du bizitza alferrik pasa duzula. Aitzitik, gizarteak inposatu dizkizun gauzetan ez duzula denbora alferrik galdu islatzen du zure jakinduriak, hainbeste inporta zitzaizkizun gauzetan erreparatu duzula. Bi gauza dira: gizartea eta zu. Interes diferenteak daude askotan, baina gizarteak sinestarazi nahi dizu gure interesa dela hari interesatzen zaiona. Ez bazara zure gustuen arabera bizi izan, hustasun moduko bat sortzen zaizu.

“Bake urduri baten zain” segitzen duzu?

Bakeari lasaitasuna kendu nahi diot, patxada, ezer egin gabe tontotua egote hori. Ez dut bake lasaia nahi, ez pentsatzera zaramatzen bakea. Inguruan dagoen den-dena onartze hori. *Teleberri* ikusten jartzen zaituen bake lasai hori, adibidez. Gure mundu “aberats” honetan jendeak hain bereganatua daukan bake hori ez dut onartzen. Alde horretatik ez naiz bake zalea. Bake urduria alde horretatik aipatzen dut, bakea bilatzen duenak kezkatua izan behar du gauzekiko.

Denborak kezkatzen ote zaitu?

Denborak baino gehiago oraina bizitzeko distira gal-tzeak. Askotan imajinatzen ditudan momentuak ederra-

goak dira nire imajinazioan une hartan gertatu zirenak baino. Horrek kezkatzen nau. Agian fantasia indartsuegia daukat eta momentuan disfrutatzeke ahalmen hori kamusteak kezkatzen nau.

Liburu gehiegi idazten ote den kezka bizi duzu. Isiltasunak ere kezkatzen zaitu, agidanez.

Isiltasunak jakintsuagoak ez ote gaituen egiten ikararekin idazten dut beti. Ez ote litzateke hobe isiltzea! Isiltasuna balio handikoa da gizarte honetan. Askotan idatzi edota gauza asko esaten dugu hedabideetan. Bartzuetan zarata besterik ez ote dugun ateratzen iruditzen zait. Gehiegi idaztearen kezka horrekin bizi naiz.

Zer eman dizu liburu honek orainokoan?

Idazteko gauza naizela konprobatzeko poza, ez da gutxi. Jendeak komentatu dizkidanak bestalde. Funtsean, dirurik irabazi nahiko banu ez nuke liburu bat idatziko, beste zerbait egingo nuke.

KOADROAK

Dirua versus zoriontasuna

Diruak ez du inor zoriontsu egiten baina lagundu egiten du:

“... Ez nago konforme. Diruak laguntzen du gauzak erosten, beste ezertan ez. Zenbat eta diru gehiago izan, gero eta behar gutxiago duzun gauza gehiago erosten duzu. Dirua irabaztea gauza ontzat dauka gizarteak eta ez irabaztea gauza txartzat. Dirua ez baduzu irabazten, ergela zara denentzat. Nik askotan uko egin diot irabazteari, beste gauza batzuk egin nahi nituelako. Lasai nago alde horretatik”.

Lao Tse-ren Tao Te King

Lao Tse-ren *Tao Te King* liburua aspaldi irakurri nuen, nire ohe-buruko liburua da. Asko maite dut. Libreta horiko poemak liburuaren aurkezpenean “liburu hau nire *Tao* txikia da” esateko tentatua izan nintzen. Baina, handikeria bat bezala ulertuko ote zen lotsaz-edo ez nuen ezer esan. Gogoeta egin eta filosofia eta bizitza ulertzen saiatzeko liburu paregabea da *Tao Te King*. Finean, sentimenduak ulertzea eta hitzak menperatzea da bizitzako apustu gogorrena.

2004/maiatza

JUAN RAMON MADARIAGA

**“Bizitza gertakarien erantzunak
deskubritzea da”**

Juan Ramon Madariaga (Bilbo, 1962). Poeta eta mendizalea. Interneteko Nontzeberri kultura atariko arduraduna. Euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzi du poesia. Poesian hainbat sari jaso baditu ere –Bizkaiko Foru Aldundiko Olerki Saria, Imajina Euskadi Saria, Kritika Saria, Felipe Arrese Beitia Saria...–, poeta legez ez da ezagutua. Goi-mailako mendizaleekin ibiltzen da, eta ez da mendizale ezagutua.

Juanito Oiarzabal, Eneko Pou eta Alberto Zerainekin batera *Ama Dablam 2004* espedizioa burutu berri du Juanrak. Tontorra poltsikoan ekarri duela esan digu. Hirian (Bilbo) bildu arren, mendia gure imajinarioan genuela solastatu gara Madariagarekin. Mendiaz, literaturaz, poesiaz eta *Izozmendiak* liburuaz aritu gara oharkabe pasatzen den poeta eta mendizale honekin.

Mendira joatea –poesia idaztea legez– ihes egitea ote da?

Niretzat bai. Egunkotasunak ito egiten nau, eta asteburu oro mendira joatea, kirola egitea eta aire freskoa hartzea bizitza eta aireratzea da niretzat. Horrelako espedizioetara joaten naizenean energiak kargatuta

etortzen naiz, bizimodu petral honi aurre egiteko gogoz. Oraintsu Nepal aldetik ibili naiz berriro, dagoen mendirik ederrenetako baten magalean eta gailurrean gozatzten. Hango bizipenek aldatzen dute nire barrua.

Mendiz mendi, paisaiaz paisaia. Har dezagun literatura koadro baten gisara. Nola ikusten duzu euskal literaturak osatzen duen paisaia?

Zabala ikusten dut. Pasaiaren muinoetan eta ordokietan gauza asko kabitzen dira, paisaia honetan ertz eta bazter asko antzeman dezakegu. Euskal literaturaren pasaia ere horrelakoxea da. Irudi berezi asko gordetzen duen paisaia zabala da. Berean begiak kokatzen badituzu, koadrorra hurbildu ahala, collage antzeko bat badagoela begitantzen zait. Ahots asko eta esateko modu asko entzuten dut paisaia horretan.

Eta zure burua paisaia horretan?

Nik paisaia bazterretatik ikusteko ohitura izaten dut, ez naiz bidearen erditik “erakusten” joaten den horietakoa. Paisaia, agian, hobekiago ikusten da erdigunetik begiratuta. Orduan, besteek esan beharko lukete ni non nagoen, ba ote nagoen ere. Nik paisaia zabala ikusten dut eta horretan nire burua, txiki.

Beste paisaia batean ere zure arrastoak utzi dituzu, gaztelaniazko poesia paratu baituzu. Zer dela-eta?

Nire ama hizkuntza gaztelania da. Euskaldun bihurtu nintzen nire familian euskaldun peto-petoak nituelako, baina ez zidaten irakatsi, ahalegin bortitza barrutik sortu zitzaidan. Katea ez zela eten behar pentsatu nuen eta horretan ahalegindu nintzen. Harro sentitzeko moduko lehia izan zen. Euskararekin izan dudana harreman horretatik euskara irakurtzeko grina handia izan dut, pilo bat irakurri dut euskaraz, eta irakurtzeko zale-tasunak gaztelaniazko poesia irakurtzera ere eramana nau.

Asko irakurri dut bi hizkuntzetan, baina idatzi dudan gaztelaniazko poesia ariketa linguistikoa izan da niretzat, ea hizkuntza horretan nituen kezka garatzeko gai nintzen argitzeko.

Bilboko zara –Gabriel Aresti bezala– euskara nahiz gaztelaniazko poesia paratu duzu dagoeneko. Zer da zuretzat poesia?

Ez dakit poesia mailu bat ote den! Wallace Stevens-ek esaten zuen “sasitzetan sartzen den indioilarra dela poesia”. Poesia gure inguruarekin eta munduarekin, oro har, harreman mota bat gauzatzeko modua dela esango nuke. Ezagutzen ez dudanaren kontra egiteko antidoto gisa hartzen dut nik. Bizitzen ez jakitearen ondorioa izan daiteke poesia. Artista askok desoreka bat du bere baitan. Nik ez dakit desorekatuta nabilen mundu honetan, baina zer edo zerengatik izango da poesia paratzeko dudan grina hau.

Poeta gisara zure ibilbidea aintzat hartzekoa da, alabaina, esango nuke ez zarela poeten “ohorezko” klubean agertzen.

Ez dut inoiz nire burua poeta handien artean ikusi ezta kokatu nahi izan ere. Poeta apala naizelako, agian. Nik egiten ditudan ekarpenak txikiak dira. Honezkero, adindunen artean izaki, poesia ibilbide horretan gazte sentitzen naizen arren, ikasteko gogoarekin segitzen dut. Ez dut uste nahikoa jakinduria dudanik “ohorezko” poeten artean kokatzeko.

Izozmendiak da zure azken liburua. Zer da berau zure ibilbidean?

Orain bi urte, koaderno berri bat hartu eta zerbait sakonagoa egitea erabaki nuen. Honen aurreko koadernoaren bukaeran *novo rumo* hitzak jarri nituen, beste norabide bat hasi nahi nuela adierazteko-edo. *Izozmendiak* liburuaren poemak hausnarketa baten ondorio dira.

Bizitzan nork bere hautua egiten du eta bere bidea hartu. Hala ere, nahiz eta ibilbide zehatza aukeratu, batzuetan izozmendiak bezala ibiltzen gara munduan. Noraezean, itsas korronteek bultzatuta.

Izozmendien xedeak eta izozmendien noraezak definitzen dute liburua.

Hor nonbait! Gizon-emakumeok zeregin zehatz bat bete behar dugulakoan munduraten gara. Xede baten bila joaten gara, auskalo zer dela-eta. Gehienetan noraezean gabiltza. Batzuetan alderrai ibiltzen gara, zertarako etorri garen eta zein den gure eginbeharra jakin barik. Guzti honi erantzuteko mila arrazoi aurki dezakegu, baina ez dira nahiko, aurrera segitu beharrean gaude.

Izozmendiak edo icebergak pertsona lakoak gara. Metafora polita.

Bai. Normalean icebergaren punta ikusten dugu, ez dugu urpean dagoen beste aldea edo zatia ikusten. Icebergak sorrarazten duen beldurra ez da azaltzen den aldearengatik, barruan gordeta daukanarengatik baizik. Izozmendiaren metafora oso egokia iruditzen zait ere pertsonentzako: pertsona bat ikusten dugunean ez dakigu zer daukan barruan. Nik neronek ere zer daukadan ez dakit-eta. Adibidez, folio baten aurrean esertzen garenean eta gure barrua hustean harrituta gera gaitezke gure baitan daramagunarekin. Orduan, eguneroko gertakarien aurrean ez dakigu zer-nolako erantzuna eman dezakegun. Erantzun hori deskubritzea da bizitzea, nolabait.

Nola moldatzen zara folio horren aurrean?

Normalean uholdeka idazten dut, folio aurrean sentimenduek bor-bor egiten didate, bihotzean, tripan, buruan, eztarrian edo hortzen artean. Hitz batzuk ez dira hortzen artean geldirik egotekoak. Boligrafoaren puntara

pasatzen dira eta hortik foliora. Nolanahi ere, uneari ematen diot garrantzia, espontaneitatea eta naturaltasuna oso garrantzizkoak dira niretzat. Poema ez dut egiten gogoeta sakon baten ondoren, poemen hausnarketak beste plano batean gauzatu ohi ditut.

Erantzunen bila joate horretan, Bitoriano Gandiaga, Roger Wolfe, Roque Dalton, Horacio Quiroga edota Yukio Mishima agertzen dira liburuan edo zure ibilbidean.

Bidelagunak dira eta nire kode partikularrekoak. Horietako batzuk bere buruaz beste eginiko poetak dira. Beste batzuk gaztetatik ezagutu ditudan poetak dira. Poemek poeta horien mezu ezkuturen bat gordetzen dute.

Poemak eguneroko esperientzien ondorioak dira. Norenak dira poemak? Zu zara beraietan beti?

Ez zait ni neu poemetan bakarrik agertzea eta biluztea gustatzen. Batzuetan besteen larruetan sartzen naiz, pertsonaia askoren ahotsak entzuten ditut. Hori da literaturak ematen digun ahalbidea. Norberaren inguruan bizi direnen esperientzien islak eta keinuak paratzea arrunta da. Ezinbestekoak dira, zu eta zure ingurua gauza bera izaten dira sarritan.

Zentzu horretan ez dituzu hitzak baztertzen, zuretzat denak dira baliagarriak.

Poesian edozein hitzek balio dezake. Hitzen esanahia baloratu behar dugu. Ditugun altxor bakarrak dira. Hitz guztiek badute bere funtsa. Adibidez, haikuak edota poesia minimalista gustatzen zaizkit hitz batek dena azal dezakeelako. Halaber, hitz kopurua tamainan gustatzen zait. Hitz asko baldin badago poema ez da esanguratsua. Hitz gutxirekin gauza asko eta indarra agertu ahal baduzu poemak balio handiagoa dauka, nire aburuz.

Poesia defentsan eta erasoan idatz daiteke.

Baietz uste dut. Irakurle asko gure poemen aurrean modu defentsiboan jarriko dira seguru, eta beste batzuk erasoan. Poetak ere askotan sentitzen gara erasanak eta defentsiban. Agian, hau dela-eta, erasoan idazteko modua aukeratzen dugu.

Munduan barrena ibili ohi zara. Munduko egoera eta noraeza ere islatzen dituzu zure poesian.

Zorionez edo zoritxarrez, munduaren alde askotan ibilia naiz. Asia aldean nola Ameriketean. Denetarik ikusi dut. Nire begiek ezin dute ikusten dutena ahaztu. Egoera tristeak ikustean bihotza apurtzen zait eta egoera pozgarriekin, ostera, puztu. Hori ere ageri da poesian, jakina.

Hitz gutxiko poesia eta denetaz berba egitea hobesten duzu.

Guztiaren gainean egin behar dugu berba. Askoren ustez, ezin da poesia idatzi lur jota ez bazaude. Alegia, holako egoera sentikor batean nekez idatziko duzu poema alairik. Bizitza honek, tamalez, arrazoi asko ematen dizkigu eroria eta goibel ibiltzeko, triste, eta ez zoriontasunean murgildurik egoteko behintzat.

Zer da zalantza zure ibilbidean edota poesian?

Bizitzan dena da zalantza. Nik pauso bat eman orduko aurrekoa ondo eman dudan zalantza daukat. Ez ote dudan...

Hala ere, ezin bizitzari desertzioa egin.

Eta era berean, badakigu ihes egin behar dugula *Izozmendiak* liburua ixten duen poemak esaten duen bezala-, baina ez dakigu nondik ihes egin, zergatik ihes egin, eta batzuetan desertzio bat egiten dugunean ere, desertzio horretan erabat galduta ibiltzen gara, ez dakigu benetako erabaki ona hartu ote dugun.

Suizidioaren gaia ere aipatu duzu, Terminal I eta II poemetan.

Esperientziak sorrarazten dizkizuten sentsazioak eta ondorioak dira poema horiek. Poetok errealitatea islatu behar dugu paperean. Errealitatea krudela da, baina ez dago modu hobea gogorik krudeltasun horretaz jabetzeko idaztea baino. Errealitatea krudela eta erabiltzen dituzun hitzak gogorak izan arren.

Zer ondorio atera duzu azken ibilbide poetiko honen ostean.

Liburua amaitutakoan oso gustura gelditu nintzen, hori ez ezik hustuta ere bai. Liburua plazaratu nuenetik esan dezaket ez dudala ia poema berririk idatzi, ez dudalako horrelako behar handirik izan. Ideiak pasatzen zaizkit, baina boligrafoa hartzeko betarik ez dut. Beharbada, hustuta sentitzen naizelako.

Isiltasuna ere paregabea da.

Bai. Isiltasunean ere, bolada batean behintzat, oso ondo sentitzen naiz. Presiorik gabe bestelako hausnarkeak egiten dituzu. Isiltasunak ez du nolabaiteko presio hori sakatzen.

FLASHAK

Mundua goi-mailako tontorretatik

“Espedizioetan une zirrargarri eta goxoak pasatzen ditut. Cho Oyura igo nintzenean, ordu bete eman nuen tontorrean bakarrik. Ikaragarria zen nire inguruan ikusten nuen mundu zabala. Everesten tontorretik munduaren kurbatura ikusten omen da, eta nire kezka bakarra hori zen, nolabait, mundu biribil baten barnean nabilela ikustekoa, ez nuen kurbatura deskubritu baina inguruan zegoenak erabat bete eta poztu ninduen”.

Izozmendiaren urdinkara

“Izozmendiak liburuaren azal kolorea urdina izan behar zela erabaki genuen Gorka Arrese editoreak eta biok. Zerua izozmendiaren isla izaten da, distira beltza edo urdinkara. Liburuaren azalean izozmendi baten urdinkara islatu nahi izan dugu nagusiki. Urdina eta zuria dira preziatzen ditudan koloreak”.

2004/uztaila

JOANES URKIXO

“Literaturak tarte on bat pasatzeko balio behar du”

Bilbo, 1955. Galdakoztarra da hezkundez, bilbotarra hazkundez. Euskal Filologian lizentziatua. Zinema eta telebistako gidoilaria eta idazlea. Apirila Sariaren (2003) irabazlea, *Gerlari zuria* nobelarekin (Elkar. Argitaletxe elkartuak). Bilbo zaharreko etxean hartu gaitu idazleak.

Joanes Urkixo idazleak abentura oso gogoko zuen gaztetan. Bulegari, leiho-garbitzaile, egunkari banatzaile ibili zen, baita Europan barrena bidaiari ibili ere, Dinamarkan hiru urtez. 1978tik 1980ra bitartean Pott bandako kideekin ibili zen. Harrezkero, letren munduan aritu da etengabe. Abentura maite zuen eta abentura nahiz fantasia bizi ditu egun literaturaren bidez. Genero hori lantzen du bereziki.

Generoak genero, euskal literaturaren paisaiari buruzko bere ikuspegia, baita bere burua bertan nola ikusten duen azaldu digu hasteko: “Euskal literaturaren paisaia oparo eta nabarra ikusten dut, kolore askotarikoa. Paisaia anitz horretan nire burua ikusi soilarekin konformatzen naiz. Ez da gutxi. Fantasiatzako edota abenturatzako generoa lantzen dut, gazteentzako batez ere. Genero honek euskal literaturan esparru txikia du, baina gustura ari naiz. Ezaguna naiz. Ez dut gehiago eskatzen”.

Gerlari zuria *liburua hizpide*. *Nondik nora liburu hau?*
Zer da berau zure ibilbidean?

Kondaira edota historia zaharren zalea naiz. Liburuaren ideia, batetik, Jaun Zuriaren eta kondairaren liburu batetik sortu zitzaidan. Orain dela zortzi urte euskaraz argitaratua. Fikziozko istorio polit bat izango zelakoan erosi nuen. Pertsonaia honen inguruan istorio zatiak aurkitu nituen, baina elkarrekin lotura handirik gabe, uztartu gabe nolabait. Ez zegoen nik fikzio egingo nukeen moduan edo nik liburu honen istorioa fikzionatu nahi nuen legez. Alegia, Jaun Zuriari buruzko zerbait egiteko gogoia nuen eta hutsune moduko bat egin zitzaidan. Ideia horrekin ibili nintzen luzaroan, buruan bueltaka, harik eta behin batean, Interneten beste zerbaiten bila nenbilela, Irlandako kondaira batekin topo egin nuen arte. Irakurri eta berehala konturatu nintzen hura zela nire ideiarik falta zitzaion hanka, istorioa osatzeko zatia nolabait.

Apirila Sarian euskaraz izan den lehen saritua. Zer-nolako prozesua izan zuen liburuak?

Euskal Herritik aurkeztutako hautagaiak “normalki” euskaraz idatzitako liburuak izaten dira. Ondoren erdaratu egiten dira epai-mahaikoek ulertu ditzaten. Nik argumentua edo sipnosia idazteko sei orrialde inguru behar izaten dut, ondo borobilduta eta zehazkizun guztiez. Hori da argitaletxei aurkezten diedana. Liburu honekin horrela egin nuen eta argitaletxeak eta biok hautagai moduan aurkeztea erabaki genuen. Beraz, erabaki hori hartu genuenean liburua idatzi gabe zegoen. Gerora erdaratu egin behar zela jakinda, editoreak eta biok zuzenean erdaraz idaztea erabaki genuen. Alegia, nire bizitzan lehenengo aldiz gaztelaniaz idatzi nuen eta gero euskaraz. Euskaraz beste bertsio moduko bat egin nuen. Ez da itzulpena, ez da izaten ahal gainera.

Historia dramatiko eta fantastikoa. Irlanda eta Euskal Herrian “Bizkaiko Urdaibai ibarrean” kokatua.

Komeni zaigu gogoratzea Jaun Zuria Bizkaiko kondaira dela. Oker ez banaiz, Bizkaian lehendabiziko Jauna edo buruzagia izandakoa. Jaun Zuriaren kondairek oinarri historiko bat dute bere baitan. Kondaira hau XIV.-XV. mendean sortu zen. Lope Garcia de Salazar egilearen *Bienandanzas e fortunas* liburutzarreen agertzen da. Bertan Europako hainbat leinuen jatorriak aipatzen dira, besteak beste, Jaun Zuriarena. Liburuan esaten denez, Jaun Zuria Eskoziako printzesa baten eta deabruaren semea zen.

Bestalde, istorioak badu sustrai historiko bat: Asturias eta Leon erresumak, VII. eta VIII. mende aldean, Bizkaia okupatzen saiatu ziren. Hango demografia handitu bide zen eta erresuma hartako nagusiak lur berrien bila etorri ziren hona. Bi aldiz saiatu ziren, lehenengoz itsasoz heldu ziren, Bakiora, eta hurrengo urtean, lurrez. Araba aldetik, hegoalde, etorri eta Arrigorriagaraino igo ziren. Horrelako arrisku egoera batean, Jaun Zuriak bizkaitarrak asturiarren inbasioaren aurka batu omen zituen.

Zein bide landu zenuen berau idazteko?

Hasieran zalantza bat eduki nuen. Istorioa hautatu ostean zein generori ekin behar nion edo istorioarekin zein genero landu eta uztartu behar nuen zalantza izan nuen. Lehenik, bertsio honen lauzpabost orrialde idatzi nituen, abentura historikoa zen, edo aurre historikoa nahi baduzu. Baina ez zeukan fantasia heroikoaren ezau-garririk.

Gero, Madrilgo lagun bati eman nion irakurtzeko. Aurreneko bertsio hartan etsaiak asturiarrak ziren! Lagunak horrela esan zidan: “Hau argitaratzen baduzu ez irten istorio honekin Euskal Herritik kanpo. Nazionalista

hauekin beti berdin, beti kanpokoaren kontra borrokatzen ari zaretela esango dizute”. Zer pentsa eman zidan, eta aldez aurretik zalantza hori neukanez, berehala erabaki nuen. Fantasia heroikoaren generoa aukeratu nuen eta honek dituen ezaugarri konkretuak erabili ditut.

Irlandako klanen izenak benetakoak al dira? Alegia kondairan azaltzen diren biscayne eta mornatar, kasu.

Izen guztiak benetakoak dira, biscayne klanak badu berezitasuna. Nik dokumentatzeko joera handia daukat. Idazten dudan edozer gauza dokumentatzen dut eta kasu honetan erruz dokumentatu naiz. Pilo bat irakurri dut eta, hartara, hainbat testu antzinako irlandar errege eta leinuen izenekin aurkitu nuen Interneten. Hortik hartu ditut izen guztiak, baita biscayne ere. Fionne pertsonaia nagusiari buruz aurkitu ditudan kondairen artean bere klana Byscne zela esaten da eta hortik biscaynera pauso oso laburra dago. Hori aurkitu eta buruan neukan ideiarekin bat zetorrela ohartu nintzen.

Zein dira gakoak irakurlea harrapatzeko? Nola gainditzen da istorioaren hasieran izaten den anabasa hori?

Teknika oso zorrotz erabili behar da. Badago egitura bat, erabiltzen ahal dena eta askotan erabiltzen ez dena. Nik, nire ofizioarengatik, argi daukat egiteko hori. Gazteentzat idazten dudan bitartean teknika honetaz baliatuko naiz zehatz-mehatz. Irakurlearen arreta harrapatzeko arau nagusi bat daukat: lehen kapituluko lehenengo bi orrietan bai generoa bai protagonista zein diren nabarmen geratu behar dira, baita istorioaren lehenengo zantzua zein den ere.

Gazteentzako abenturazko istorioek inimizazio bidea eta amaiera biribila behar omen dituzte.

Nonbait irakurria daukadanez, literaturan eta ahozko literaturan erabiltzen diren inimizazio bideak antzina-

antzinako gizarteko erritoetan errotuta daude. Gaur egun oraindik ere, beste kultura batzuetan mantentzen dira errito horiek. Iniziazio erritoak benetako erritoak dira. Nerabegarotik heldutasunera pasatzeko errito bat gainditu behar dugu, eta hain zuzen ere, iniziazio bidea esaten dugunean horren lehen arrastoa aipatzen ari gara. Literaturan hori oso hedatuta dago, garai guztietan erabili da, eta azken batean, istorio honetan jatorrizko errito horretara nahiko hurbildu naizela uste dut.

Abentura eta fikzioa. Fantasia heroikoa. Batzuek generoa indartsu dagoela diote, beste askok muzin egiten diote, ez dela genero hau idazteko garaia diote.

Bada garaia. Noski, zeinek irakurtzen du genero hau? Gazte jendeak. Indartsu dago, baina hein batean. Asko ikusten den generoa da, baina detaile batzuk ezagutzen dituzunean, indartsu delako hori ez da hainbesterako. Espainia mailan gehien irakurtzen dena ingelesetik gaztelaniara itzulia da, eta tiradak nahiko txikiak izaten dira: 3.000 alekoak. Orduan, pentsa nirea. Gaztelarazko bertsioa ez dut uste asko saltzen ari denik. Beraz, nire itxaropen guztia euskarazko bertsioan jarrita daukat.

“Gaizkia” eta “ongia” bitasuna. Batzuek gutxietsi izaten dute gaia.

Tira, nire uste apalean, literaturak tarte on bat pasatzeko balio behar du. Irakurleak goza dezan, entretenit dadin batez ere. Gero, jakina, idazleak idazten duen edozein gauzatan ezinbestekoa du bere barrutik zer edo zer ipintzea. Zentzu horretan, nire subkontzientetik zer edo zer adierazi dudala uste dut, lerro artean zerbait ipini dut, alegia. Tira, azken batez, gaizkia eta ongiaren arteko gatazka literatura bezain zaharra da, eta nik kontzienteki eta apropos iturri horretara jo nahi izan dut.

Azkenik, genero hau hizpide. Zer iritzi duzu J. R. R. Tolkien-en Erasztunen jauna istorio fantastikoez?

Ni genero honen zale izan naiz betidanik, J. R. R. Tolkien-en lanak aspaldi irakurri nituen eta eztabaida nahiko ahaztuta daukat. Gaur egun, beste genero bat bezala onartzen bada ere, gehienbat bigarren mailako genero bezala ikusia da beharbada. Gehienetan genero honetan idazten dena ez omen da literatura jaso, ihesbideko literaturatzat joa da. Baina azken batean, zer behar dute gazteek irakurtzeko ihesbideko literatura ez bada?

FLASHAK

Gerlari Zuria marrazki bizidunetan

Film bat egitea ametsa edo fikzioa da guretzat. Euskal Herrian bizi garela kontuan izanda, istorio hau pantailara eramatekotan marrazki bizidunetan egin liteke. Hala eta guztiz ere, liburu hau marrazki bizidunetan egitea garestiegia da Euskal Herrian. Saiatu gara, baina gurea bezalako industria txiki batean egitea ezinezkoa da. Espainia mailan ere zaila ikusten dut.

Euskal gidoilarien patua

Euskal Herrian ez dago ikus-entzunezkoaren industriarik eta horren arabera ez dago gidoigintzarako azpiegiturarik, ez sendoa behintzat. Gidoilariak hor gabiltza: Madrilen, Bartzelonan, Euskal Herritik kanpo bizibidea atera nahian, alegia. Nik azken urteotan zorte ona eduki dut eta badut zer eginik. Euskal Herrian ere lan apur bat egiten dut, tarteka-marteka.

2004/abuztua

UR APALATEGI IDIRIN

“Literatura ez da jolas huts eta debaldekoa, literatura tentsioa da”

Paris, 1972. Euskal literatura garaikidea irakasten du Paueko Unibertsitatean, bertako irakasle titularra izaki. La Naissance de l'écrivain basque /Euskal idazlearen sorrera lanaren egilea da, Bernardo Atxagaren obraren azterketa. Eleberrigile gisa Beterriko liburua saria lortu du (1997) *Gauak eta hiriak* nobelarekin. Hurrenez hurren Elkar eta Erein argitaletxeen eskutik plazaratua. Gaztelaniaz *Las Relaciones imperfectas* (Hiru) izenburuarekin kaleratua.

Ur Apalategi Idirin-en *Gure Gauzak S. A.* eleberriak zer esan franko eman du. Argitaratu aitzin ohiko argitaletxe literarioen ezezkoa jaso zuen, eta azkenik, Utriusque Vasconiæ argitaletxearekin kaleratu da. Liburua esku askotatik pasa da, eta dirudienez esku asko erre ditu. Nobelak ez du argitaratzeko bide konbentzionalik aurkitu. Alegia, polemikaren zurrunbiloan jalgi zen literatur plazara.

Zergatik Utriusque Vasconiæren eskutik eta ez Gauak eta hiriak kaleratu zuten Elkar eta Ereinekin?

Egia esateko, niri baino argitaldari horiei galdetu beharko litzaieke. Nik bere unean erabakiak hartu

nituen, eta horietako bat, nobela muga guztien gainetik argitaratzea izan zen, ohiko ez zen bide batetik bazen ere. Utriusque Vasconiæren apustua ausarta izan da.

Zer moduz orain arte eleberriak egin duen bidea?

Zorionez erantzun positiboa izaten ari da, bai irakurleen aldetik bai prentsa edo hedabideen aldetik. Lehen edizioa agortzekotan da. Ondo irakurtzen ari dela dirudi.

Nobelak argitaratzeko izan dituen eragozpenak ezagututa, nola ikusten duzu euskal literaturaren panorama?

Euskal literatura gudu zelai konplexu bezain dibertitu bat bezala ikusten dut. Gudu zelai diot, bertan gauza asko jokoan daudelako. Bere txikian, jende asko ari da, baita era guztietako borroketan ari ere. Borroka horretan, batez ere, hierarkia baten egonkortzea “ez bakarrik idazleen artekoa, baita argialetxeen artekoa ere” ikusten dut. Normalizazioaren zantzu pozgarria da egonkortze hori batzuentzat. Beste batzuentzat, ordea, inertzia kreatibitateari gailentzen ari zaion seinale. Uste dut egungo euskal idazleak bizi duen problematika berria dela eta egoera berri horren kontzientzia hartzeaz gaudela: zorionez sortzea lortu den industriadun kultural erlatiboki autonomoak bere baitan sortzen ditu honezkero alienazio mota berriak, “bereziki ekonomikoak”, ez dago literatur esparrutik kanpo bilatu beharrik egungo idazlearen “etsaia”. Garai batean Eliza zen idazlearen askatasuna mehatxatzen zuena, gero politikari profesionalak bihurtu ziren bere ahotsaz profitatu nahi izan zutenak. Orain ez da hala gertatzen. Hots, borroka eremua desplazatu egin da. Gaur egun literatur sistemaren baitan dago gatazka, idazlearen borroka ez da jada eremu extra-literarioen aurkakoa.

Eta nola ikusten duzu zure burua gudu zelai horretan?

Gudu zelaiaren metaforarekin jarraitzeko, frankotiratzaile gisa-edo.

Azaldu iezaguzu Gure gauzak S.A. izenburuak aditzera eman nahi duena.

Izenburuak hiruzpalau konnotazio edo denotazio dituela esango nuke. Lehenik, *Gure Gauzak S.A.* euskal argitaletxe handi baten izena da, fikziozkoa noski. Bigarrenik, “gure gauzak” esanez, euskal kulturan eta bereziki idazleen artean bizi ditugun bizipenei erreferentzia egin nahi nien. Hirugarrenik, tituluak Cosa Nostra famatua ekartzen ahal digu gogora. Azkenik, beharbada, “gu” izenordain kolektiboaz egiten den abusu susmagarria azpimarratzeko modu ironiko bat da.

Liburuaren azaleko argazkian emakumezko bat azaltzen da, bere ahoa esku batzuek tapatua. Adierazgarria.

Argazkiak liburuaren generoan sartzen gaitu, suspensezko nobela bat da, gaur egun komunzki thriller deitua. Hartara, liburua irakurri ahala zerbait deskubritzen goaz. Julene Oihanburu protagonistak gauza asko deskubritzen du kulturgintzan gertatzen denari buruz. Gure euskal letren mundutxoan, alegia. Alabaina, zerbaitek edo norbaitek eragozten dio hori egitea. Julene Oihanburu idazle hasi berriak ikusi eta esan ezin dituen artean sortzen den tentsioa da nobela egiten duena.

Fikziozko eleberria da, baina gure errealitatea oso presente dago. Zerk bultzatu zaitu hau bezalako nobela bat idaztera?

Liburu indartsu bakoitzaren atzean errealitatea dago. Errealitate hori gehiago edo gutxiago errefraktatua izan daiteke, baita transformatua edo metaforizatua ere. Baina literatura ez da jolas huts eta debaldekoa. Literatura tentsioa da. Anbizio estetiko eta formala duen zeregina, bai, baina baita bizitza errealarekin haragizko lotura duen zeregina, aldi berean. Finean, literatura zeregin nahiko inpurua eta bastardo da, eta nahasketa horretatik datorkio interesa. Horiek guztiek bultzatu naute nolazpait.

Julene Oihanburu da nobelaren protagonista. Gaston Berrizar idazle historikoaren biografia egiteko beka jasotzen duena... Azaldu iezaguzu amiñi bat eleberraren nondik norakoa.

Istorioa hortik abiatzen da. Thriller batean beti dago errealitatea ikertzen duen pertsona eta berau deskubritzen duena. Nik garbi neukan ez nuela protagonista detektibea izatea nahi. Figura hori ez zait euskal testuinguruan guztiz naturala iruditzen. Bekadunaren figura bektore hobea izan zitekeela bururatu zitzaidan, sinesgarriagoa, egokiagoa euskal literaturaren testuinguruan ikertzailearen figura birsortzeko. Hartara, Julene Oihanburu bekaduna hil berri den euskal idazle baten biografia idazten hasten da. Horren bitartez hasten da bilbatzen nobelaren trama.

Nobela, hala ere, ez da hari bakar batez osatua.

Ez. Hari baten bidez Juleneri gertatzen zaiona kontatzen da. Julene hezur-mamizko pertsonaia da, arazo sentimentalak eta afektiboak dituen bekadun gaztea. Bigarren harian idazle historikoen figura agertzen da, Gaston Berrizarrena eta bere bitartez euskal literaturaren iragan hurbila esploratzen da. Bere bizitza kontatzen zaigu, nolabait. Hirugarren harian, Julenek Gastonen biografia prestatu ahala euskal literatur sistemaren funtzionamenduaz ustekabeko hainbat gauza deskubritzen ditu. Hari hau da “errebelazioak” ekartzen dituen.

Nobelak irakurketa bat baino gehiago dauka.

Liburu honen baitan hainbat pertsonen errealitate konkretua dago, pertsona ezagunak. Beraz, liburuaren barne motibazioa ez da, hutsean, estetiko eta artistikoa soilik, beste zerbait ere badago tartean. Esan dudana bezalaxe, literatura bastardoa da, errealitatearekin nahasten den zeregina. Hori ezin zaio liburu bati eragotzi.

Halere, oren buru, inpultso artistikoak gaina hartu behar dio oinarrian dagoen kinada edo inpultso errealari. Bien arteko talkaren emaitza da literatura, nolabait.

Zure inguruak eta ibilbideak ekarri zaitu nobela honetara, antza.

Bai. Arrazoiak arrazoi, hainbat zirkunstantzia tartekatuta dira, familiarrak eta beste. Gai bila ibili bitartean, hainbat nobela entsegu bertan behera geratu zaizkit. Halako batean ordea, gauzatu nahi nuen nobela idazteko materiala aurkitu nuen. Horrek eman zion hasiera idazketa prozesuari, material hori guztia eskura izan zezakeen bakarrenetakoa nintzelako kontzientziak bultzaturik.

Horren eskandalagarria al da gure testuinguru literarioa?

Beno, nola gerta edo nola konta! Berau betaurreko arrosekin edo beltzekin ikus dezakezu. Nire helburua ahalik eta thriller eraginkorrena egitea zen, eta gure errealitatea betaurreko beltzez begiratzea erabaki dut. Izan ere, euskal kultur industriak thriller on bat idazteko lain iluntasun ematen du. Hortik nire eskizofrenia: euskal hiritar gisa nobelan azaltzen den errealitate horrek indignatu egiten nau, baina nola uka idazle gisa ezin gozagarriagoa izan dela hau idatzi ahal izatea.

Antza denez, askori ez zaio gustatu zuk islatu nahi izan duzun mundua horrela islatzea. Literaturak funtzio hori ere bete behar du, ordea.

Literaturak –idazleak, alegia– errepikatzen baldin badu prentsak kontatzen duena, modu estetizatu batean eginda ere, gureak egin du. Orduan, idazleok beste zer-bait idatzi behar dugu, edo beste gisa batez behintzat. Idazlea ez bada bazter inarroslea, ez badator errealitatearen beste ikuspegi bat proposatzera, ez du merezi idazteak. Nire ikuspegia, agian, erromantikoen da, baina, niretzat, idazletzari horrek ematen dio zentzua.

Idazlea ez da politikari bat, ados. Baina politika egiten du “hitzaren jatorrizko zentzuan”, modu sotilago edo baita batzuetan bihurriago batean.

Nola sentitu zara nobela behin kaleratu ondoren?

Bukatu eta argitaratu bitartean nengoen baino askoz lasaiago. Zazpi urte iragan dira *Gauak eta hiriak* kaleratu nuenetik. Nobela hau idaztea atzera begiratze moduko bat izan da niretzat. Idazletzarekin jarraitzeko ezinbesteko baldintza, halaber. Liburu hau idatzi gabe ez nukeen jarraituko idazten.

Nobela edota garai mugarrria da zuretzat, beraz?

Bai, liburu honekin berriro sortu naiz idazle gisa.

FLASHAK

Idazle izatea

Idazle izateko nahikoa al den idaztea

Erantzunik gabeko galdera da. Liburu hau idaztearekin batera, idazletza modu kontziente batean hartu dut nire gain. *Gauak eta hiriak* aurreneko liburuarekin ez bezala. Lehen liburua idaztea gauza errazena da, bigarrena da benetan zaila”.

Gure gauzak S. A. eleberria kaleratu ondoren, ea nola ikusten duen bere burua euskal industriaren esparruan?

Oso ondo. Liburuak badu umore dosi bat. Nahiz irakurketa maila ezberdinak eskaintzen dituen, liburua ezin da lehen graduan bakarrik irakurri. Gaiztoki, baina esango dut, idazleak oso nartzisistak gara eta nahiago dugu gure burua liburu batean erretrataturik agertzea “gaizki agertzeko bada ere” ez agertu baino”.

2005/maiatza

J.M. OLAIZOLA *TXILIKU*

**“Niretzat idaztea asmatzea da,
besteentzat atsegina izatea”**

J. M. Olaizola *Txiliku* (Zarautz, 1951). Ingeniaritza tekniko eta irakaskuntzarako ikasketak egin zituen iragan urrun edota hurren batean –denbora aldagaia erlatiboa baita–. Orain baino gazteagoa zenean –gaztea izatea ere erlatiboa izaki– irakaskuntzan aritu zen. Gaur egun, eskolako materialen egilea da ogibidez; Elkarlanean argitaletxearentzat dihardu. Lanbidea ziurtatua-edo –hau ere erlatiboa izaki– jakintza modu guztiak bilatzen ditu *Txilikuk*. Idazle lanetan edo atsegin bideetan –oro erlatiboa baita– hitzekin jostatu eta istorioak asmatu egiten ditu, baita ipuinetan ederki egokitu ere. Asmatzea eta laketzea, honatx J. M. Olaizola *Txilikuren* lema.

Bere liburuak J .M. Olaizola izenez agertu ohi dira. J. M. delakoen baitan, Joxe Mari edo Joxe Martin izan zitekeen. Jexux Mari da ordea. Jexux Mari Olaizola inork gutxi ezagutzen du ordea. *Txilikuz* galdetuta, aldiz, mundu batek ezagutu lezake edo Zarauzko mundu batek bederen. “Txiliku Zarauzko auzo bat izan zen; hartaz ez da ezer gelditzen, iturri bat izan ezik. Lau bat baserri ziren. Auzo oso entzutetsua zen, bertan ontziolak zirelako. Duela 400 urteko kontuez ari naiz...”. Izena auzoari zor

dio. Norengandik jaso alabaina?: “*Txiliku* izena gure aitona jaso zuen. Aia herriko auzo batekoa zen eta Txilikuko kale-baserri batera etorri zen. Ezkondu zenerako emana zioten izenorde hori eta berak oinordekoei pasa digu”. Txilikuk seme-alaba koxkortuak edo heldu samarrak ditu dagoeneko, hauek Txiliku baino Txili izenez deituak omen direla esan digu solaskideak.

Txiliku hamabi urtez aritu zen irakasle. Orduan beste garaia eta erreferentziak bizi omen zituen. Seme-alabak aitarengandik ipuinaren xarma jaso zuten. Eskolan nahiz etxean kontu kontari aritzeak adorea eman zion ipuinen munduan murgiltzeko. Ipuinlari izateko, ahalik eta kontu, istorio eta mundu gehien ezagututa hainbat hobeto. Hitzez gainera edo hitzen azpian, munduek eta paisaiek osatzen dute ipuina. *Txiliku* euskal literaturaren paisaiaren parte da honezkero: “Paisaia mota askotarikoa da gure literaturarena, beste literaturen mailakoa, zorionez. Ni neroni, berriz, paisaia horretara kontatzeko samurtasuna eta gogoia ekartzen saiatzen naiz”. Etengabe idazten duen jitea hartu diogu *Txilikuri*: “Ez pentsa. Egunero idazteko ohitura daukat, baina boladak izaten ditut. Azkenaldion gutxi idazten ari naiz. Tira, zerbait beti izaten dut buruan, prestaketan”. Idaztea zer den galdetu diogu irrikaz: “Batez ere ekimen atsegingarria da. Niretzat idaztea asmatzea da, besteentzat emaitza atsegina izatea nahi dut”. Kontatzeak merezi duelakoan ari da *Txiliku*. Eta zeregin horretan “ez da lehen saria”. 2004ko Gazte eta Haur Literatura saria irabazi zuen *Osaba Bin Floren* liburuaren eskutik: “Ustekabea izan zen, sorpresa atsegina. Hainbeste urtetan ari naiz idazle lanetan, bada, lana beste norbaitek gustuko duela ikusteak poza ematen du”. Ez da kaleratu duen azken liburua, harrezkero, *Jokin Galtxagagorri* ipuinak argia ikusi baitu. Bi liburu hauetan barneratu gara egilearekin batera.

Osaba Bin Floren

“Bi liburu hauek enbor komun bat dute, biak foiletoki gisa astekarietarako eginak dira, astero-astero idatzitakoak. Lehena *Euskaldunon Egunkarian* eta *Berrian* argitaratu zen eta *Berrian* bigarrena. Beraietan kazetari baten konpromisoa dago nolabait. Astetik astera etengabe idatzi gabe ere, egunkarian astero agertu behar zuen ipuinen segidak. Inspirazioa zetorrean “atal bat edo pare bat astean” idatziz gauzatu nituen ipuinok”. Liburuak beranduago argitaratuak eman ziren, orrazketa bat edo beste hartu ondoren. *Egunkarian* atera zenean *Osaba Florentinoren ipuinak izenburua* eraman zuen *Osaba Bin Floren* ipuinak. Gero, orduan eta orain ospetsua den Osama Bin Laden figuraren ukitua hartu zuen, izenburuaren soinukidetasuna. Beraz, honek badu kutsu hori: “Liburuek bere garaia edo unea dute, garaian garaiko seme edo alabak dira”, adierazi digu zarauztarrak. Elena Odriozolak egunkarirako nahiz libururako egokitutako marrazkiak goraiatu ditu ipuinlariak.

Ipuina non girotua dagoen aipatu dugu: “Bi mundutan egokitua edo kokatua dago. Zati bat, orain dela 50 urte inguruko auzo batean, Euskal Herrian”. Txiliku auzoa ote den itaundu dugu, berriz ere irrikaz: “Ez da Txiliku auzoa, ordurako erre eta desagertua zen. Auzoak Behorlegi du izena, mendiko herri koskorra da, Donostiako Igeldo auzoa izan liteke, agian. Behorlegiko telefono bakarra Garmendia Txiki baserrian dago. Euskaldun-amerikar baten ondarea da”.

Ipuinean agertzen den beste zatia –zatiak hobekiago esanda, ipuinak ipuin handi batean tartekatzen baitira– arabiar mundua da. Iragan hurbileko Euskal Herrian eta arabiar munduan barrena murgildu gaitu Txilikuk: “Europak iraganean nolabaiteko erromantizismoa bilatu zuen eta arabiar herrialdeetan aurkitu zuen nolabaiteko

altxorra. Egia da, arabiar ipuingintzan badago altxor hori, denetarik dago. Funtsean arabiar ipuinak –kontatzekoak diren ipuinak– kontakizunetan sustraituta daude. Forma berezia dute, memoriari laguntzen dioten istorioak dira. Hango kontatzeko moldeak berezko triki-mailuak ditu: ipuin baten barruan beste bat tartekatzeko modua agertu ohi dute. Horretan ere ageri da beren ipuinen magia”.

Osaba Bin Floren ipuinaren pertsonaia nagusia Florentino da: osaba. Bere ondoan berriz, Inazio, Maite eta Tomaxito ilobak dabilta ipuinen gose: “Irudimezko ipuinetan edo ipuin fantastikoetan badago halako objektu magikoa. Honetan osaba Florentinori sendagileak jarri dion benda da. Bendak bere mundua aldatu egingo du. Alegia, osabak bizi duen mundua aldatu egiten da, bere buruan ez du Behorlegi ikusten, mundua beste nonbait ikusten du. Hartara, bere imajinazioak ipuin klasikoekin tokira egiten du bide, Arabiara”.

Ipuinek bere magia izaten dute. Txilikurentzat honetan datza ipuinen magia: “Rafik Schami idazleak badu liburu bat, *Gaueko kontalariak*, eta bertan badira hainbat ipuin kontalari. Nahiz eta ipuinak oso-oso fantastikoak izan, jendea prest izaten da kontatzen dena sinesteko. Ordea, kontalari batek une batez esaten badu Ameriketara bizi den iloba bat duela eta –kontatzen badu– telebista bezalako tresna bat eta teknika eta teknologia baliatzen dituela, jendeak esaten dio “ez etorri guri horrelako kontuekin”. Beraz, ipuina sinestartzeko, kontakizunak berezko gramatika behar du. Rodarik horri fantasiaren gramatika deitzen zion; ipuinak forma bat eduki behar du, badakigu ez dela egia, baina sinetsi nahi dugu eta egia balitz bezala bizi dugu”.

Jokin Galtxagorri

Ipuinek magia behar badute, zer egokiago magia egiten duten pertsonaien bidez ipuina osatzea baino, ezta? Galtxagorriak euskal mitologiako pertsonaiak dira. Ez dira urruti bizi izan, bestela entzun adi-adi *Txilikuk* zer dioen: “Galtxagorriak magia egiten duten pertsonaiak dira. Zarautzen pertsonaia ezagunak ziren, gaur ez hainbeste jakina”. *Txilikuk* gure mitologiaren pertsonaia hauek erakutsi dizkigu Jokin Galtxagorri: “Galtxagorriak jeinuak ziren, langileak, agindutako guztia egiten zutenak, eta gurean, Baionan erosten omen ziren. Hara joan eta bi dukat ordainduta ekartzen ziren. Aspaldiko kontuak dira. Euskal mitologian kontatzen denez, haiek lana ematea nahi zuten. Nik, berriz, langilea izan beharrean alferra zena bilatu dut. Berezi samarra da, nahiago du beste edozer egin lana baino. Esate baterako, ipuina kontatzea nahiago du beste ezer egin baino”.

Martin marrazkilariak –*Txilikuren* hitzetan– ederki apaindutako ipuinean, Aitona Martin eta Mainerren arteko harremana kontatzen da. Tartean Jokin jeinua dago. Mainer alfer samarra da ordea, eta Jokin baliatu nahi du eskolako lanetan. Hau alferra izaki, horiek komeriak! Aitonak lagunduko du Mainer, ez eskolako lanetan, Jokin alferraren dohainak ikusten baizik: “Jokinek edonor aspertzeko modukoa izaera dauka, baina ipuin kontalari trebea da...”, diosku *Txilikuk*.

Galtxagorriaren pertsonaiaz gainera, Basajauna edota Lamia agertzen dira ipuinean. Beren alde ona eta gaiztoa hizpide izan ditugu segidan: “Gaur egun, euskal mitologiako mundua gero eta urrutiago daukagu. Nik, hala ere, manikeismoa kenduko nuke, ona edota gaiztoa izate hori, alegia. Basajauna, adibidez, ez da ona edo gaiztoa, beste kultura batekoa da, bizitzeko beste kultura du, baita lamiek ere. Beren izateko eta bizitzeko ohiturak bestelakoak dira”.

Egileak ez dio ikuspegi klasikoa eman ipuinari. Umorez deskribatu ditu pertsonaiak. Baita egungo pertsonaiak aipatu ere, hala Son Goku nola Pokemon: “Lehenengo horiek badoaz eta hauek badatoz berriz. Nahitaezkoa da hori. Guk Superman edo Marvelen heroiak bizi izan genituen, mitologiaren kutsua zutenak. Gaur egungo pertsonaia berri hauek ez ditut hainbeste ezagutzen, baina gaurko umeek badute horien berri. Eta nik ‘gure gaurko mitologiako’ pertsonaia horiek aipatu egin ditut. Horientzat ere toki bat behar baita”. Edonola ere, *Txilikuren* gusturako, mitologiak gure irudimenean lekua du oraindik ere, mitologiak badu oraindik zer esana. Gure irudimena pizteko balio du. Ipuinak irudimena pizteko balio ote duen itaundu dugu azkenik: “Gaur egun irudimena piztea gero eta konplikatuagoa da, hori egia da. Hasteko eta behin, lehen baino askoz irudi gehiago dagoelako. Ez dugu liburua behar, zinea eta telebista hor daude. Dena dela, liburuak badu abantaila bat, irudi bidez ikusten duguna egina dago eta liburuak aldiz irudia –eta ipuina bera– are gehiago garatzeko aukera ematen digu”.

2005/uztaila

HARKAITZ CANO

“Irakurleari ez zaio beti nahi duen
guztia eman behar”

Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975). Zuzenbidean lizentziatua. Lubaki bandan hasi zen literaturaren bidean. *Kea behelainopean bezala* poesia liburua izan zen lehen onura, 1994an argitaratua. Harrezkero hantxerik dabil. Donostiako literatur portu finkotik New York, Paris edoartzelara bidaiatu ohi du tarteka, maletak hartuta batzuetan, imajinazioak gidatua bestetan. *Neguko zirkua* ipuin liburuari azken ukituak ematen dizkion bitartean –uda ostean kaleratuko da–, *Belarraren ahoa* liburua dugu bidaia hauetako azken onura. “Aiztoarena baino zorrotzago da belarraren ahoa” gazti-gatu digu sarreran. Idazluma aiztoa bailitzan ari da literatur zirkuan. Musikarako trebezia mugatua duela onartua, hitzak josten eta zorrotzen aparta dela erakusten digu aldi-aldi. Hona hitz zorrotzailearekin izandako solasa.

Donostia du hiri, hiri koskorra, bizitokia eta lantokia. Cano hiri handiagotara joateko joeraz mintzatu zaigu abiaburuan: “Kanpora joate hori ez da hiri kontua, denbora kontua baizik. Denbora irabazteko era bat da. Kanpoan bazaude eta inork ez badaki non zauden –gero eta zailagoa dena– denbora biderkatzen da”.

Horregatik-edo, Donostiako etxean dagoenean anti-patiko samar bihurtzen omen da. Jendearen eskaerei ezezkoak ematen ikasi du denbora hektareatxoak irabazte aldera. Denborak denbora, hektareak hektarea, Donostiako bere etxebizitza oso txikia dela aitortu digu: “*Belarraren ahoaren* bigarren partea oso autobiografikoa da. Pertsonaia etxe gero eta txikiago batean bizi da. Lagunak bisitan etortzen ziren Parisera eta esaten zidaten: Etxe hau Donostiako hire etxea baino are txikiago duk! Gero eta txikiagoa izan etxea gero eta hobeto lan egiten dut”.

Harkaitz Cano praktikoa eta soila da. Bai literaturaren sorkuntzan bai bizitza errealean: “Esnatu eta mahai gainean zain ditudan lanek horrela gogorazten didate: ‘Ei! Txikito. Hona etorri behar duk lan egitera’.

Bidaia bidaia, oraingo ez bide du Donostia uzteko asmorik.

Nola gauzatu duzu Belarraren ahoa liburua?

Liburu ez-bilatua da, nolabait esanda. Parisera joan nintzen nobela bat idaztera, baina huraxe ez nuen idatzi. Tarte hartan hainbat gauza idatzi nuen, haietako asko hasi eta bukatu gabe utzi nituen. Hori egin ahal izatea luxua da. Hau da, gauzei denbora ematea, eta aldi berean, proiektu bat utzi eta gogoak ematen dizuna idaztea. Horrela pasa nituen hilabete batzuk.

Bere sorreran, hala ere, zer ikusia du Parisko giroak.

Bai. Erresistentzia garaiaren moda pil-pilean zegoela topo egin nuen Parisekin: gaiari buruz nonahi ziren erakusketak eta liburu asko argitaratzen ari zen. Hemen Espainiako Gerra Zibilarekin gertatzen ari den antzean. Parisen, nazien aurkako erresistentzia garaiaren obsesioarekin topo egin nuen. Erresistentzian parte hartutakoen kuraia aipatzen zen, zenbateko traba jarri zieten alemaniei eta abar. Era berean, beste batzuk, beharbada, alemaniar naziekin eroso bizi izan zirelako gaizki sentitzen ziren...

Artean, Charles Chaplinen *Diktadore Handia* filma berrestreinatuta zen. Halako magma berezi bat sortu zen nire baitan, hipotesi zoro edo ez hain zoro batera eramanez. Edonola ere, giro horrek eman zidan idazten hasteko behar nuen txispa.

Alegia...

Monterrosok zioen posible dela bi aldiz ibai berean bainatzea, baldin eta ibaia nahikoa geldoa bada eta zaldi edo bizikleta bat eskura baduzu. Historia ibai geldo denez, eta literatura bizikleta edo zaldi hori, aukera baliatzea erabaki nuen: Hitlerrek Europa osoa menperatu izan balu zer egingo zukeen galdetzeraz eramanez. Europa osoa menperatu ostean, AEBak ere menperatu nahian abiatuko zela pentsatu nuen. Nora eta New Yorkera joango zela. Orduan, nire buruarekin haserretu nintzen, esana bainuen ez nuela gehiago New Yorki buruz idatziko. Alabaina, garai batean Espainiako aktoreek strip-teaseari buruz “gu gidoiak hala eskatuta biluzten gara bakarrik” esan zuten bezala, kasu honetan ni ere, gidoiak hala eskatuta, fikzioak New Yorkera eramanez berri. Nahiz eta gero hiriak ez duen protagonismo handirik istorioan.

Izenburua Belarraren ahoa da. Bitxia ezta?

Jendeak –titulua entzutean– belarrak norbait jan behar duela ulertzen ote duen nago. Ez da hori asmoa, belarraren zorrotzaz ari naiz, labanaren ahoaren ordean, belarraren ahoaz ari naiz, historiaren sabela ireki eta gero barruan sartzen laguntzen digun bisturi horretaz.

Literatura irakurtzen hasi berrientzako liburua zaila ote?

Ez nuke esango. Liburuaren bi irakurketa bereizten ditut: batetik, komiki bat bezala ikusten dut, erdira arte akziozkoa da. Erdialdean badu bira poetiko bat, beraz, liburua erdiraino era batera irakur daiteke eta erditik

aurrera –beste era bateko akzioa da– beste giro bat hartzen du. Irakurle mota batek akzioa nahiago izango ote zuen hasieratik bukaerara, eta beharbada, baldin eta irakurle horrek hasieratik bukaeraraino komikia nahi bazuen, defraudatua senti daiteke. Baina irakurleari ez zaio beti nahi duen guztia eman behar.

Idazten denaz gainera, idazten ez denak du berebiziko munta eta funtsa literaturan. Zurean halaxe da nik uste.

Belarraren ahoa zorrotza dela esaten dugu. Nik zorrotzasun hori bilatu dut denbora guztian, istorioa ez dadila kamuts gelditu, zehatza izan dadila. Oso gustura idatzitako nobela edo ipuina da, ez baitakit zer den zehazki. Istorioaren erdiraino iritsitakoan aurrera segitzea zaila zela sentitu nuen. Urte eta erdi izan nuen geldirik, bukaera idatzi gabe, eta horrek bukaerako giro poetiko-alegoriko horretan eragin zuela uste dut.

Euskaraz ez den beste hizkuntza batean idatziko al zenuke liburu hau? Euskarak ematen al dizu behar duzun guztia?

Ematen dit guztia eta gehiago. Ematen ez didanean kilikatzen nau, eta batzuetan gizatxartzen edo haserretzen naiz beharbada. Baina ez diot aitzakiarik ipintzen euskarari. Zaila ikusten dut gaztelaniaz ipuin bat idaztea. Inork inoiz eskatuta gauzaren bat egin izan dut, itzulpenak ere bai, baina berezko irrika bezala ez zait normalean etortzen erdaraz idaztea.

Zer ekarri duzu hizkuntzaren aldetik aurrekoetan ekarri ez duzuna?

Horretan bi indar edo pultsio izaten dira. Batzutan, istorioak eramaten zaitu arrastaka eta besteetan hizkuntzak. Nik beti pentsatu dut istorioak eraman behar zaituela gehiago, hizkuntzak baino erakarpen handiagoa izan behar duela. Batzuetan ongi dago hizkuntzak eraman zaitzan uztea, baina arriskutsua da, hizkuntzaren

baliabideen makulupean soilik dagoen istorioak entitate nahikorik ez duela pentsa dezakegu. Ni bi zaldiko zalgurdiz noa beti, eta jaten hobe ematen diodan zaldia istorioa daramana da. Kasu honetan biak nahiko batera joan direla esango nuke, hala ere. Zaldiak zaldi, zalgurdia bakarra da.

Olivier Legrand da protagonistetako bat: pertsonaia bitxia, konkorduna, galtzailea...

Ziur asko kariño gehien diodan protagonistetako bat da Olivier Legrand. Liburuan ez dut Hitler izena aipatzen, “gizon txikia” baino ez dut esaten. Olivier Legrand izenekoa da, benetan handiena. Pertsonaiaren oinarrian benetako meatzari bat dago. Hark behin kontatutako istorio bat nuen aspaldi buruan: berak ez omen zuen ikatza ateratzen, bere lana besteek ikatza ateratako lekuan lurra botatzea zen, zuloa betetzea. Galeriak gero eta beherago joan ahala, berauek hondarrez bete ezean meategia behera etortzeko arriskua baitzegoen. Bere lana oso garrantzizkoa zela esaten zioten: “Hire lana ondo egiten ez baduk, barruan daudenak hil litezke. Gurea bezain inportantea duk hirea, inportanteagoa ez bada...”. Baina berarentzako oso zapuzgarria eta frustrantea zen. Berea betelana zela pentsatzen zuen. Kasu honetan inoiz baino hobeto esana. Istorio hori kontatzeko gogoia nuen. Horra, edozein liburu idaztean beharrezkoa den hirugarren zaldia: motibazioa, apeta.

Zoriak edota patuak ere badu munta gero.

Bai, izugarria gainera. Hitler eta Chaplini buruz idazten ari nintzen horretan, “hemen sartuko dut meatzaria” pentsatu nuen. Une batez, kapritxo eta motibazio hori duzu eta konturatzen zara asmoa ondo egokitzen zaiola istorioari. Hori da literaturaren gauzarik politenetako bat. Batzuetan, asmoa arrazoiz zertzen duzu eta ondo dago, bestetan tranpa egiteak laguntzen dizu, laborate-

giko jokoia egin behar duzu. Hori da Olivier Legrand protagonistaren kasua: polizoia, estatuaren barruan doana, estatuaren pieza txikituen barruan Rouenetik New Yorkera daramatena.

Jorge Oteizaren hutsaren ideia heldu zait gogora. Hutsaren funtsa berretsiko al zenuke literaturarako?

Litekeena da, baina ez hori bakarrik. Demagun koadro inpresionista bat. Efektua oso ezberdina da koadrotik urruntzen zoazen ahala. Irakurketan antzeko zerbait gertatzen da: liburuaren bukaerara hurbildu ahala, liburuan gero eta gehiago sartuagatik, urruntze bat ere bada-go, istorio osoa distantzia batetik bere osotasunean ikus-tea ahalbidetzen duena eta irakurlearengan sentsazio berri bat sorrarazten duena. Hori da lortu nahi nuena. Hau da, irakurri ahala ikusten dituzu istorio batzuk eta amaieran denek hartzen dute forma nolabait. Nahiz eta amaiera irekia izan, distantzia horrek berak ixten du lana.

Ederra eta absolutua ezinezkoa da. Agian liburuak ez du absolutua erdiesten baina...

Alan Pauls idazleari ea kalitateko literatura zer den galdetzen ziotenean “ez zitzaiola kalitateko literatura interesatzen” zioen. Berari zirriborroa interesatzen zaio. Baina zirriborroa berezko generoa ere bada. Margo erakusketetan gero eta gehiago ikusten duguna da, batetik koadroa, eta bere inguruko bitrinetan koadroa berau egiteko erabilitako zirriborroak, probak, saiakera halamoduzkoak edo zehatzak. Askotan horiek sendoagoak dira azkeneko emaitza bera baino. Potentzialtasun horretan ikusten dugu batzuetan bukatutako lanetan nekez ikusten duguna. Idazterakoan filosofia hori izan nuen, baina horrek ez du esan nahi zabarkeriaz idatzita dagoenik, jakina.

KOADROAK

Taxi gidaria, agian

“Euskal literaturan pribilegiatua bezala ikusten dut nire burua. Duela hamar urte poemak argitaratzen hasi nintzenean ez nuen erraza ikusten idaztetik edo idaztearen inguruko gauzetatik bizitzea edota ogibide bat izatea. Komikiak irakurtzen zituen ume hari esan izan baliote egunen batean komiki gidoiak idatziko zituela... Alde horretatik beraz zoriotsu ikusten dut nire burua, ez dut kezarik”.

Entusiasmoa da idazteko gakoetako bat, Canoren ustez: “Idazle bati gauza asko barkatzen ahal zaiola, baina ezin zaiola entusiasmorik eza barkatu esan ohi dut. Idazleak poz sortzaile bat izan behar du, bestela sufrikarioa litzateke. Alde horretatik nire entusiasmoak bizirik jarraitzen du”. Bere literatur bidaiaren unea deskribatu digu: “Hasieran mundu surrealista eta amets giroko batetik abiatu nintzen nolabait, gero, gauza errealistak idazteko gogoia sentitu nuen. Orain erdibide batean nago, errealismo hutsa eta errealismo zikina deitzen diren horiekin pixka bat aspertuta. Erdibide bat topatu nahian ari naiz, gauza errealista baina aldi berean arnasbide pixka bat fantastiko eta metaliterarioa duten gauzak idatziz. Ildo horretatik doa *Neguko zirkua*”.

Idazleen banitateaz aritu gara segidan. Bakartasunean ohituak eta bereziak direla. Bera bakartia den itaundu diogu: “Bai, baina lanean bakarrik. Idazleak bakardadean idazten du, baina jendearentzat sortzen du eta kontzientea da horretaz: hitzaldiak ematen ditu, jendearekin harremana du, hitz egiten du irakurleekin eta lana kontrastatu nahi izaten du. Hartara, inguruko jendeak pistak ematen dizkio. Beraz, bakardadea parte garrantzitsua da idazlearentzat, baina berea bakardade sortzailea da inola ere”.

Hona Canok, aukeran, idazle lanbidetik kenduko lukeena: “Kenduko nuke enkarguzko zenbait lanen proportzioa eta presa, denbora mugatuan egin behar izatea. Eta ordainetan irakurtzeko denbora gehiago izan nahi nuke... Bekak idazteko ez ezik irakurtzeko ere eman beharko lituzkete, denbora libreza izateko!”. Alta bada, ez du bere burua literaturan ez den beste egiteko batean ikusten: “Zaila egiten zait”. Inoiz edo behin musikari zapuztua dela aitortu duenez, musikari ikusten ote duen azaldu diogu gaiztoki: “Saiatzen naiz musikariz inguratzeko ea zerbait neureganatzen dudan, baina... (irriak). Hara, lehengo batean amets bat izan nuen, idazleok askotan gezurrezko ametsak kontatzen ditugu, baina hau benetakoa da. Taxilaria nintzela amestu nuen. Beraz, idazle izango ez banintz beharbada taxilaria izango nintzateke. Ametsean gustura samar nengoen, hala ere, egin kontu ez dudala autoak gidatzeko baimenik... Baina batek daki, nire etorkizuna taxi-gidari izatea da agian. Liburuaren antza dute taxiek: istorioz betetako lekuak dira”.

Dezepzioa

“Etxean beti kontatzen zuten gure aitona nola izan zen estatuaren barruan, eta nik ditzosozko estatua ikusteko irrika hura nuen. Eta estatua ikustean, denei gertatzen zaiena gertatu zitzaidan dezepzioa: hain da gauza ziztrina!

Miopea naizenez, nire moztasun horretan, agurtzen ari zen nazi bat zela iruditu zitzaidan. Amesgaiztozko espejismo hori da nobelaren beste sorburuetako bat. Antton Olariagak bikain ulertu zuen liburuak behar zuen azala”.

“Zer esaten ari haiz?”

“Liburuaren aurkezpenean, ni ez naizen beste idazle batek idatzitako nobela bezala ikusten nuela esan nuen. Inazio Mujika Iraola editoreak zeharka begiratu zidan

“Zer esaten ari haiz?” esan nahiko balit bezala. Azaldu nion geroago: “Ni baino hobea den idazle batek idatzitako liburua dela” esan nahi nuen. Oso diferentea delako aurrekoekiko eta hori sorpresa polita da. Idazte prozesuarekin batera idazleok ere zerbait berria ikasi behar dugu. Narratzailea ez zara zu zeu. Narratzailea gaiztoagoa, ausartagoa eta zu zeu zaren baino idazle hobea da. Hor dago benetan narratzailearen magia. Alde horretatik gustura geratu nintzen”.

2005/iraila

ALBERTO BARANDIARAN

“Gertakizunak historia izatera noiz pasatzen diren dut kezka”

Alberto Barandiaran Altsasun sortu zen 1964an. Historia eta Geografian lizentziatua da, eta 1990tik itxi zuten arte *Euskaldunon Egunkarian* aritu izan zen lanean. Egun, *Berriako* Iruñeko kultur kazetaria da. ARGIA Saria bi aldiz irabazitakoa (1991 eta 1999 urteetan) eta Rikardo Arregi Saria 1995ean. *Ez zaigu ahaztu* kronika idatzia du: euskal jatorriko argentinarr desagertaraziei buruzkoa (Susa, 1998) eta *Gaizkileen faktoria. Hemingway eta euskaldunak* (Euskaldunon Egunkaria, 2000). *Pasionaria* biografia argitaratu du bestalde. Euskal kazetaritza inoizko une onenean dagoela adierazi digu Alberto Barandiaranek. Gustura dihardu alor horretan. Arian-arian, kazetariak bestelako letretara lerratu du bere jarduna. Honen emaitza aurten argitaratutako fikziozko liburua: *Mundu txikia* (Susa). Hamalau narraziotan mundu txikiko ur handiak dastatu ditugu.

Alberto Barandiaranek kultur kazetaritzan dihardu. Aldian-aldian literatur lanak ere burutu ohi ditu. Euskal literatur paisaia behatzeko ikuspegi zabala dauka hartara: “Literaturarekin idazleen bitarteko harremana daukat, elkarrizketak eta bestelako lanak egitean. Euskal literatur

paisaia askotarikoa da, kolore askokoa: berdeak, horiak, marroiak edota beltzak daude. Ez zait iruditzen paisaia bereziki ederra edo itsusia denik, ez da aspergarria eta hori da azpimarragarriena. Pasaia bizia eta bere urtaroak dituen da”.

Paisaia honetan bere ekarpena honela dakusa Barandiaranek: “Pintzeladaren bat ekartzen dut aldiaren behin, baina nolakoak diren, nik baino, besteek esan beharko dute”.

Kazetaritza eta literaturaren arteko uztartzeaz honela mintzatu zaigu: “Kazetaritza nire lanbidea da, eta neurri batean pasioa ere bai. Denboran ondo finkatuta dudan zeregina da, eginahalean lanbide hau zer den ikasi dut. Literatura berriz, beste gauza bat da. Aurreko liburuak oso lotuta izan ziren nire lanbideari, kazetaritza erreportajeak izan ziren nolabait. Berauek garatu eta sakondu ondoren liburu bihurtu zirenak. *Mundu txikia* berriz literatura da, edo literaturagoa behintzat, beste planteamendu eta ahalegina eskatu didana”.

Fikziozko literaturan zure lehen urratsa eta emaitza da Mundu txikia liburua. Nola gauzatu duzu berau?

Beste idazleek ez dakit nola gauzaten dituzten liburuak. Nik, kasurako, obsesio batzuk nituen buruan, argazki edota irudi moduko batzuk, horiek jira-bueltan ari zitzaizkidan buruan eta zirriborratzen hasi nintzen paperean. Zergatik idatzi nahi nituen ere ez dakit, ez dakit idazten hasten zarenean horretaz kontziente ere idazten ote duzun. Alegia, hasieran “nire kasuan behintzat” ez nuen liburu bat idatzi nahi izanaren ideia finkoa. Lardaskan aritu nintzen gaiekin, bati eta besteari zer edo zer atera nahian, gai batzuekin zerbait egin nezakeela konturatu nintzen eta beste batzuekin ez.

Zer nabaritu duzu aurreko liburuekikoan. Erosoago edo deseroso aritu al zara honetan?

Honetan modu diferente batez sentitu naiz, eta aritu ere bai. Aurreko lanetan banituen dokumentazioa, elkarrizketa batzuk, erreportajeak, eta orduan horiek oinarrian garatu nituen liburuak. Kasu honetan, esan bezala, ideiak edota irudiak nituen, eta zirriborro horien gainean istorioak gorpuzten hasi nintzen. Alde horretatik, beraz, ez da eroso edo deserosoago aritzen zarela, idaztean zalantza gehiago duzula baizik. Tarteka, idaztea merezi ote duen galdetzen diozu zure buruari. Aurreko liburuetan oso garbi ikusi nuen eginbidea eta aurrera. Niri idaztea gustatzen zait eta deseroso ez nago inoiz. Deseroso nahi baduzu, ideia aurrera ez doala ikusita idazteari uzten diozunean senti zaitezke.

Iñigo Aranbarri idazleak aurkezpen ekitaldian “zaparrada humanoa” iritzi zion liburuari. Zer deritzozu?

Gustatu zitzaidan. Ondo definitzen du liburua. Narrazioak giza-erretrato txikiak dira eta horregatik liburuaren alde humano hori.

Mundu txikia izenburua. Bi hitzetan liburuaren funtza egoki bildua.

Bai. Aurreko liburuetako tituluak buruhauste batzuk eman zizkidaten, dudak izan genituen. Kasu honetan, karpeta txurian agertu zen lehen titula Mundu txikia izan zen, narrazioak idatzi bitartean iraun zuen eta beraz, horrek tituluari pisu edo sinesgarritasuna eman dio nolabait.

Hamalau narrazio paratu dituzu. Idatzi zenituen guztiak daude ala gehiago izan zitezkeen?

Bai, izan zitezkeen gehiago. Baina daudenek badute tokia liburuan, alde horretatik ez dut damurik.

Hamalauetatik denek izen propio bana dute izenburuan. Ezkurra izenekoak izan ezik. Hau hirugarren pertsonan kontatuta dago...

Ez dut gehiegi gogoetatu horri buruz, istorioa gauzatu ahala hautatu dut kontatzeko moldeak. Hau da, bartzuetan istorioa lehen pertsonan heldu zait, bestetan hirugarren pertsonan. Horri buruz ez dut teorizatu, nik irudia ondo transmititu nahi nuen, hori nuen lehen nahia, hori izan da nire ahalegin handiena.

Istorioak istorio, ideiak ideia, narrazioen arrakasta ondo narratzean datza. Arrandi handirik gabeko prosa da zurea.

Ez naiz prosa barrokoen zale. Hau ikur eta kakotxen artean diot. Prosa barrokoa egiten duten idazleek ondo idazten baitute, ez diot idatz molde horri maniarik, ez deus. Ni ahozko espresioen inguruan ibili naiz ordea. Irudikatu ditudan pertsonaiengandik gertutasuna dudalako, eta horiek horrela, narrazioek horrela eskatzen zidatelako. Ez nuen inola ere irudia eta kontakizunaren artean oztoporik sortu nahi.

Istorioak badituzu gogoan oraindik?

Bai.

Eta zeinek eman zizun lan edo buruhauste gehiago gauzatzeko?

Itxuraz, sotilenak direnak, bizpahiru orrialde inguruko istorio direnak. Afari bat kontatzen duena edota pianistaren bakardadea islatzen duen istorioa, adibidez. Nahiz eta istorioak sotilak izan, lana asko findu behar izan nuen. Asko moztu nuen eta irakurlea galbidera eramanez edo despitatu zezakeena kendu. Ez naiz eseri eta berehala idazten dudana pertsona, zirriborro asko geratu da idatzi bitartean. Arestian esan dudanaren harian, narraziotan irudiak daude eta horiek hasieran harriak bezalakoak ziren. Zizelkatzen hasi nintzen eta egin ahala, halako batean irudi bat azaldu zitzaidan. Ni neronez ere irudi eta pertsonaien atzean zegoenez jabetuta idaztearen

zeregina harriduraz hartu dut. Beraz, aldez aurretiko estrategiarik gabe idatziko narrazioak dira.

Mundu txikian mundu eta pertsona txikien berri ematen duzu. Horixe litzateke narrazioen ezaugarrietako bat.

Narrazioetan haur txiki baten begirada aurki daiteke, nire txikitako oroitzapen bat edota etxean entzundako pasadizo bat. Nik badakit zer den kazetaritza lanean aritzea, mundu honetako zurrunbiloan ibiltzea: manifestazio izugarriak segitzeak, prentsa-aurreko on bat aditu duzula usteak edo elkarrizketa eskusibo izugarri bat egin duzula pentsatzeak poztu eta puztu egiten zaitu batzuetan, eta batzuetan gehiegizko inportantzia ematen diegu horiei. Baina benetan mundua mugitzen duten gertakariak beste batzuk dira: besarkada bat, zaplazteko bat, eskutitz bat... Alde horretatik, liburuak gauza txikien aldarria izan nahi du. Egia esanda horiek guztiak ia denok hobesten ditugu. Noski, horiek bizi garen “mundua” ren arabera onartzen ditugu edo ez. Baina, ez dago dudarik, pertsonen arteko harremanek mugitzen dute mundua. Eskutitz batek manifestu edo komunikatu batek baino askoz gehiago esaten du. Baina –denok daki-gunez– horiek ez bezala, eskutitz hori ez da hedabideetan ateratzen.

Narrazio hauen bidez zure obsesio zenbait kanporatu duzu. Zer dute autobiografiatik edota zenbat dute zure ingurutik narrazioek?

Idazle guztiak idazten dute bere autobiografiatik neurri batean. Idazlea ez da bere pertsonaiengan azaltzen beti, jakina, baina berak entzun, eta bere barne munduan bildutakoak islatzen ditu pertsonaien bitartez, bai bizitakoetatik bai irakurritakoetatik... Beraz, liburu batek idazlearengandik du asko edo dena. Hemen badago, ez dena, nik entzun, ikusi, eta irakurrikoetatik asko.

Nire ingurutik berriz zenbat? Nire inguruak Iruñean, Sakanan (Altsasu) edota Irunen daude. Badaude horietatik jakina: Iruñea eta Sakana arteko trena, Irungo muga. Erreferentziak daude. Baina edonon ager daitezkeen tokiak daude. Gure inguruak herriak eta hiriak dira, eta horiek usaintzen dira liburuan.

Pertsonaiaren baten nortasuna ezagutzen duzun pertsonaren baten nortasunetik hurbil al dago?

Ez dut uste. Puska asko dago pertsonaia bakoitzaren baitan.

Josune joan den mundu bateko pertsonaia da.

Bai. Istorioan asko esan eta eman zidan mundu bat kontatu nahi izan dut. Halako batean mundu hori joan dela konturatu zara, sentazio hori, ezin egona...

Elvira pertsonaiaren istorioak Argentinarekin zer ikusia du. Argentina presente beti ere?

Argentinan gertatzea kasualitatea da, gerta zitekeen Venezuelan. Obsesio hori munduan desagertuz doazen pertsonekin daukat. Egia da, Argentinari buruzko kronikaren gaiarekin lotura duela: gerra zibila, isiltasuna... Ni kezkatzen nauen gaia hau da: “gertakizunak historia izatera noiz pasatzen diren”. Alegia, gertakari batzuk noiz gelditzen diren oroimenean, hutsean oroimenean edo noiz arte baldintzatzen dituzten gizonen eta emakumeen harremanak. Galdera da gertakari horiek noiz arte segitu behar duten gure bizitza korapilatzen eta zailtzen. Adibidez, noiz esan ahalko dugu 1936ko Gerran gertatua gainditua dugula? Eta berdín Argentinako kasuan ere bai. Asko interesatzen zaidan gaia da.

FLASHAK

Ramon Masatsen argazkia azalean

“Liburuaren azaleko argazkia Ramon Masats kataluniarrarena da. Giza erretratoak ateratzen zaildua. Iruñeko zezen-plazan ateratako irudia da. Ezkerreko eskuaz botila bat eusten duen pertsona batena da eskua. Hasieratik gustatu zitzaidan, ez nintzen gauza izan identifikatzeko eskua emakume edo gizon batena zen, eskuari begira emakume batena iruditu zitzaidan hasieran, gero ordulariarekin duda egin dut. Oso sinbolikoa iruditu zitzaidan ardo botilarena. Inoiz edo behin, baten batek esan didanez, ‘irudi horren bidez mundua eskaintzen zaigu’. Botila barruan mundua dagoela nolabait, botila bete-beteta baitago”.

Drama puntu bat

“Kontakizunek, bere txikian, denek dute ikaratik zer edo zer, drama puntu bat. Istorioek, hala ere, ez dute hasiera eta bukaera eta akaso garapen ikaragarriarik. Ur sakonak dira, gure hanken azpitik doazen istorioak direla esan du Iñigo Aranbarrik. Gure hanken azpian edo atzean gertatzen denari buruz idatzi dudala, alegia. Benetako gauzen aurrean zer sentimendu agertzen dugun pertsonok, zein gabezia dugun...”.

Kritika txarrak ez ohi dira iristen

“Gustura nago liburuarekin, baina onak diren kritikak iristen dira bakarrik, txarrak ez dira iristen sekula. Inork ez dio ezagutzen duenari liburu txarra egin duela esaten. Kurioa da, ipuin bakoitza modu ezberdin batez gustatu zaio jendeari, bat bati eta besteri beste bat. Orain arte, jendea denarekin ez bada, sorta batekin edo besterekin identifikatu da. Tira hori jakitea ere ez da gutxi!”

2006/uztaila

JUAN RAMON MAKUSO

“Hiritar bezala frakasatu dugu”

Erreterian jaio zen, 1961ean. Lezon bizi da. Donostian egin zituen filosofia ikasketak eta gai bera erakusten du Durangoko Fray Juan de Zumarraga (BHI) eskolan. 2004an argitaratu zuen lehen poema liburua: *Bizitzeak hil egiten du*. Bi urteren ostean, Elea argitaletxearen eskutik, *Hiri gorazarre* plazaratu du: “Keinu bat egin diot Lizardiri. Xabier Letek ezagunak egin zizkigun bertso horiek. Berez bertsoak neguaren ondorengo eguzkiari omenaldia egiten dio. Ni hitzarekin joko poetiko bat egiten saiatu naiz. Hiria dut ardatz, hiriari egiten diot gorazarre, gizaki bezala hirikoa naizelako, gizakiak aspaldi naturatik ihes egin baitzuen. Ez hori bakarrik, ia bizkarra emanda bizi gara”.

Igor Estankona poeta eta kritikariak “mezulariaren eskua” ikusi du poeta honengan: “Makuso ez da odolusten, entzun dezagun nahi du”. Guk poeta bidaide hartu eta hirian barrena abiatu gara. Hona poetari entzundakoak.

*Bizitzeak hil egiten duela abisatu zenigun lehen liburuan.
Bizitzea abiatzea dela onetsi ondoren, hiltzea irabazi ote
zenuen ulertu genizun...*

Beharbada irabazi bat da hiltzearena. Gizakiak benetan ahaztu egiten du, egiten dugu, zerbait baldin bagara,

heriotza garela. Heriotza ez da gugandik zerbait berezitu, gure eskuak beste aldea ere badu, badu ahurraren beste aldea, hau da, bere esku-azpia. Ezinezkoa litzateke eskua beste era batera ulertu. Bizitzarekin berdin gertatzen zaigu. Hasteak bere baitan heriotza ere badu.

Hirian barrena abiatu zara oraingoan. Zer moduz bigarren ibilaldi honetan?

Eroso esatea gehiegizkoa litzateke. Pozik bai. Idaztea, areago poesia egitea, ez da ariketa bat, barneko etorria da. Beharbada nire barneari irekitze bat gertatzen ari zaio, nik neuk ere ez dakidala norainoko irekitzea den... Nire larrutik labana bat sartzen ari da, meloi bat irekitzen dugun antzera.

Hona nire juzkua zure ibilbideaz: Bizitza ulertzeko filosofia ikasi eta erakutsi nahi zuen gizona poeta bilakatua da. Filosofoa poetagoa da.

Nire ibilbide filosofikoan Platonen irakurketak anitzak izan dira eta oraindik ere, oso gustukoa dut. Platonek idatzi poetiko ikaragarri bat utzi zigun: Haitzuloaren mitoa. Gizakiaren egoera oso ederki deskribatzen du bertan. Gure bizitza haitzuloan eramaten dugu, uszezko errealitate batean. Errealitate horretan murgiltzeko, poesiak indarra ematen dit, hitzaren indarra aurkitzen dut bertan. Nahiz eta oso garbi daukadan, askotan, hitzaren ezintasunarekin talka egiten dudala.

Filosofoa, poeta eta "animalia politikoa" ere bazara. Politika interesatzen zaizu, polisean gertatzen dena, alegia.

Aristotelesek aspaldi esan zigun, gizakia abere politikoa dela. Gizakia beste gizakiekin elkartu eta gizarte bat osatzen duela. Eta polisak, hiriak, ematen dio bere izaera gizakiari. Beste kontu bat da gaur egun politikaz esaten dena eta politikan dihardutenak. Hauek ez daude polisetan, ez daude agoran, plazan. Agoran baleude, elkar hitz

egingo genuke, eta orduan, agian, eraikiko litzateke benetako elkarrizketa. Baina honek ba al du interesik? Eszeptizismo handiz begiratzen diot plazari.

Felipe Juaristiren hitzetan "hitzaren bila" abiatu zinen poeta zara. Oraingoan hitza, modu batez aurkitu eta agertu duzula ematen du.

Aurkitu ez dakit aurkitu dudana, alegia, oraindik ez dut aurrez aurre berarekin topo egin. Beharbada hitzaren lantegian murgilduta nabil, eta oraindik hitzaren ezintasun batean aurkitzen naiz, ibilbide poetikoa hori baita. Argi dago, Felipek hori esan zuenean hitzak neurtuta esan zituela, eta oso ongi irakurri eta barneratu zituela nire lehen poema liburuaren nondik norakoak.

Hiria "harrizko aorta" gisa irudikatu duzu. Teknopolisa, hitza, giltza... errimatu dituzu. Etikak kezkatzen zaitu, baita estetikak ere.

Etika eta estetika lotura handiz ulertzen ditut, bere zentzu hertsian. Etika zerbait bada, barnekoa da. Etika barnekoa bada, ni subjektu, muga bat naiz, ni eta munduaren artean. Arteak barneko mundu bat eraikitzen du, eta estetikaren eginkizuna hori azaltzea litzateke. Estetika eta etika gogoetak diren heinean interesatzen zaizkit.

"Egunero gabiltza joan-etorrikoan, ero-ero. Egunak du haria, baina ez dago jarraipenik hirian", diozu. Etsia ote poeta? Gizona edo emakumea etsita al daude polisean?

Gizakia eta bere gizatasuna daude etsita, eta noski ni horren barnean kokatzen naiz. Nire polisa, nire ideala, hor nonbait nituen. Eta orain lekukotasun hori ez dago nire baitan. Bazirudien zerbaiten eraikuntzan nenbilena, ustezko hiri bat. Agian ez nuen pentsatzen eraikuntza idealak ez daukatela lekurik inongo geografian, lurraldetasunak artifizioak direla. Duela egun batzuk geografia bat zeharkatu dut, Irungo nazioarteko zubi zaharra.

Gertakari xumea baina oso handia niretzat. Ustezko bi estatuen eremuetatik ibili nintzen, eta errealtate bakar batek hunkitu ninduen: zero-lurrak, horrek eman zidan nire gizatasunaren dimentsioa. Eta berretsi nuen nire poema baten bertso lerroa: *zertarako eraiki aberriak?*

"Herrigabeak daude, baina hiria, hiritartasuna, nik daukat". Nor zaren badakizu edo nahi duzu jakin, behintzat.

Aurrekoarekin lotuta, hori azaldu nahi izan dut liburuan zehar. Hiritartasuna, lekuak, toposak, espazioak ematen du. Erdi Aroan eskubide bat zegoen: *quid est in territorio est de territorio*, hau da, lurralde batean dagoena, lurralde horretakoa da. Eta gaur egun eskubide hori faltan sumatzen dut.

Hona zenbait lerro: "Eraikuntzak gizakiarentzat dira errakuntzak" (...) "Herriak ez du topos bat, gizakia da hiriaren oztopo" (...) "Eurohiria Midasen hatzaparretan ez ote". Hiriak min ematen dizu.

Mina eta oinazea. Ez dut ikusten gure artean sentimendu hau: hiritar bezala frakasatu dugula. Oraindik ere, gure hiria eraiki gabe daukagu. Baina ez hori bakarrik, ez dugu onartzen egin ditugun ahaleginak antzuak izan direla. Ez dugu asmatu eta hau ez da bestearen errua bakarrik. Bestea ni gabe ez da existitzen, eta hau barneratzen ez dugun bitartean jai daukagu. Eta honekin ez naiz ari planteatzen guk asmatuko dugula. Ez, asmatze horretan huts egin dugula baino ez. Eta hau onartu behar dugu. Gainontzekoan konplexuz betetako hiritarrak izango gara.

"Ezustekean doazen poemak" jo dituzu hauek alabaina.

Hitzaren bilatze horretan, bertsoak edota poemak ura bezala doaz. Uraren mugimendua ezustekoa da. Urak beti korri eta ihesi egiten du esku artean. Hori gertatzen ari zait nire ibilbide poetikoarekin. Poesia eraikitzen dut,

benetan sortze prozesu batean murgilduta nagoenean, barne-barnetik ateratzeko zerbait dudanean. Nire poesiak ez du kortxo-kentzekorik behar.

Biluztu egin zara, baina ez duzu zure burua ikusgarri agertu nahi.

Biluztea gure gizartean lotsarekin parekatzen da. Adan eta Evaren biluztasunak lotsa erakutsi digu. Edozeinek, berdin zait zein den bere jarduera, sortze bat egiten badu, larruzalaren azpiko aldea erakusten ari da, azaltzen ari da. Ez agian bere osotasunean, baina azaltzen ari da, nolabaiteko erakustaldia egiten du. Ez dut sinesen entzuten dudanean “nik niretzat idazten dut”. Idatzi agian bai, baina argitaratu orduan zertarako. Elkarrizketa hau eskaintzen dut, eta nire burua erakusten ari naiz. Hori bai, honekin ez dut esan nahi exhibizionismoan erori behar dugunik. Artistez beterik daude kanposantuak.

Ez duzu hitzetan ezkutatu nahi.

Honekin ez gara ari gauza berriak asmatzen. Aspal-dikoa da “hitza haragi bihurtu zen”. Hitzak ezin du ezer ezkutatu. Isiltasuna, nahita eraikita, garrasia da. Hitzaren erreinuan murgiltzen da gizakia, hitza da gizakiaren erakusleihoa. Hitza gabe ez ginатеke gizaki izango. Eta gaur egun hau da zientzian dagoen eztabaida mami-tsuenetariko bat. Linguistak, filosofoak, fisikariak, biologoak, eztabaida sutsuan ari dira. Animalien artean, gizakiak du hitza.

“Edergailu eta metafora gutxirekin egindako poesia” jo dute zurea horregatik.

Itxuratik ez zaigu ezer heltzen. Itxuraz inguratuta nago, eta ez dut nahi, ahal dudan neurrian, ni ere itxurakeriatan erori. Gauzak ahal dudan argien ikusten saiatzen naiz, eta era berean nik eraikitzen dudanak horrelakoa izan behar duela exijitzen diot neure buruari.

Artifizio eta simulazio gehiegi ikusten dut nonahi, eta nire buruari traizio egingo nioke nik gauza bera egingo banu.

Aurreko liburuaaren ondoren, hitzen barrena bide egiten jarraitzeko gomendatu zizun zure irakurle batek.

Nire bizitzan gauza bat ikasi dut: bestea hor dagoela, eta ni ikasteko nagoela hemen. Hau horrela izanik, ibilbide poetikoan bederen, esan daiteke hitz horiei jarri niela arreta. Eta jakintsua jarraitzen dut izaten ikusten dudanean ez dakidala. Nire lagunek barre egiten didate entzuten didatenean Juan Ramón Jimenez, Lizardi eta hainbat poeta handi eta gero, nik poesia idazten jarraitzen dudala.

Amaitzeko, azken poeman “Kultura gure hirian iruzurra dela” diozu.

Ez naiz ezer berririk esaten ari, hau konstatazio bat da. Ez bakarrik iruzurra, gizakiaren aurkako joera da: saihesten ez baldin badugu gizakia aurrera eramango du. Gizakiaren berezitasun bat kultura egitearena da. Beraz kulturaren desagertzearekin zalantzan jartzen dut gizakiaren kokalekua, eta orain bai, jadanik ez litzateke egongo hiririk.

.....

1. Zatiaren AMAIERA

ELKARRIZKETA LITERARIOAK

2000ko urtarrila	– XABIER MENDIGUREN ELIZEGI.....	15
2000ko maiatza	– JUAN KRUZ IGERABIDE	23
2000ko uztaila	– RAMON SAIZARBITORIA ANJEL LERTXUNDI.....	29
2000ko urria	– ANA URKIZA	39
2001eko apirila	– JOAN MARI IRIGOIEN.....	45
2001eko ekaina	– LAURA MINTEGI.....	53
2001eko abendua	– MARIASUN LANDA	61
2002ko martxoa	– PATZIKU PERURENA.....	69
2002ko maiatza	– JON ALONSO.....	77
2002ko maiatza	– ANJEL LERTXUNDI	85
2002ko iraila	– JOXE MANUEL ODRIUZOLA	93
2002ko azaroa	– UNAI ELORRIAGA	101
2003ko otsaila	– KOLDO IZAGIRRE.....	111
2003ko martxoa	– ALBERTO LADRON ARANA.	123
2003ko ekaina	– AINGERU EPALTZA.....	131
2003ko uztaila	– HASIER ETXEBERRIA.....	141
2003ko uztaila	– BIXENTE SERRANO IZKO...	149
2003ko iraila	– JOXEAN AGIRRE.....	157
2003ko azaroa	– TERE IRASTORTZA.....	163
2004ko urtarrila	– PATXI ZUBIZARRETA	169
2004ko otsaila	– PAKO ARISTI	177
2004ko maiatza	– JUAN RAMON MADARIAGA	185
2004ko uztaila	– JOANES URKIXO	193
2004ko abuztua	– UR APALATEGI IDIRIN.....	199
2005eko otsaila	– J.M. OLAIZOLA <i>TXILIKU</i> ...	205
2005eko uztaila	– HARKAITZ CANO	211
2005eko iraila	– ALBERTO BARANDIARAN...	221
2006ko uztaila	– JUAN RAMON MAKUSO.....	229

KRITIKA LITERARIOA

bilduma

1. Jon Kortazar: Diglosia eta euskal literatura, 2002
2. Iratxe Gutierrez: Malkoen mintzoa. Arantxa Urretabizkaia eta eleberrigintza, 2002
3. Orixe: Euskal literaturaren historia laburra, 2002
4. Paulo Iztueta: Kritika literarioaren lehen saioak (1926-36), 2002
5. Paulo Iztueta: Testu hautatuak euskal estetikaz, 2002
6. Manu Lopez Gaseni: Autoitzulpengintza euskal haur eta gazte literaturan, 2005
7. Ur Apalategi (arg.): Belaunaldi literarioak auzitan, 2005
8. Iban Zaldúa: Animalia disekatuak, 2005
9. Jon Kortazar: Joseba Sarrionandiaren ipuingintza. Zuhaitz erramesa, 2005
10. Paulo Iztueta Armendariz: Euskal idazleen belau-naldiez, 2005
11. Mikel Asurmendi: Komatxo artean 1. Elkarrizketa literarioak 2000-2006, 2007